

Goienkaria

2006ko abenduaren 7a > Eguera > VII. urtea > 268. zenbakia > Doan banatzekoak

www.goiena.net

"Prozesuak ez
duela atzera
egingouste
dut, nahiz eta
gorabehera
batzuk egon"

Paco
Gartzia
PSE-EE
> 09



G2a

Debagoiendarrak
Durangoko
azokan > 35

BERGARA
Tranbiaren ibilbidea aldatu dute,
Udalak hala eskatuta > 21

LEINTZ GATZAGA
Soran etxea berritzen hasiak dira,
eta ostatua egindo dute han > 31

KIROLA
Itoitz Armendariz musherra
Munduko Txapelketara doa > 32

GOITB > DENBORALDI BERRIA

Aldaketa askorekin ekin dio GOITBk denboraldi berriari

ALBISTEGIA Eguneroko albistegia da gehien aldatu eta indartu duten saioa: aurkezlea eta atal asko berriak dira

TOKIKO Goienak sortutako Tokiko lekuko telebisten elkarrearen bidez, kanpoko saio gehiago egongo dira

HERRITARRARI BEGIRA Gero eta gehiago, gizarte gaiak landuko dira, herritarren parte-hartze zuzenarekin > 02-03

**San Nikolaseko
boloak iaz baino
jende gehiago
erakarri du**

Arrasateko urteroko ohitura da San Nikolas egunean boloa egitea, eta atzo, eguztenean, egin zuten. Eguraldi ona dagoenean, Herriko plazan izaten da, baina aurten, euriak behartuta, Uarkapen egin dute. Eta frontoia umez eta gurasoz gainezka egon da; udal arduradunen esanetan, iaz baino jende gehiago batu da alkateak eta zinegotziek botatzen zituzten gozokiak, txanponak... hartzeko. Poltsa bete gozokirekin irten zen bat baino gehiago.



UMEAK, PROTAGONISTA Arrasateko umeak San Nikolasesen boloan, eguztenean.

IKER BARANDIARAN

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarritzeta > 09
Iritzia > 10
Gutunak > 11
Herriak > 13-31
Kirola > 32-33
Kultura > 37
Sailkatuak > 38
Eskelak > 39
Denbora-pasa > 40
Gazteak > 42
Komunikazioa > 43
Telebista-Irratia > 44
Non-zer > 46-47

EKONOMIA > MERKATARI TXIKIAK

Zabaletako saltokia egitea gaitzetsi dute dendariek

Euren ikuspuntua azaldu dute merkatari txikiek ekitaldi publiko baten > 06

Debagoieneko merkatari elkarretek Zabaletan saltoki handi bat egitearen aurka azaldu dira martxenean egindako ekitaldi

baten. Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako dendariek proiektuak eragin dien kezka azaldu dute, eta gaineratu dute, halako saltoki handi bat egitekotan, herri-gunean egin dezaten nahi dutela, ez Zabaleta bezalako leku baten.

Saltoki horren proiektuak 200 dendarako lekua aurreikusten du.

Saab Sport Hatch TiD 150 ZP
telefono integratuarekin 27.000 €-tik hasita.

1947a ezkerro errepidean. 1938a ezkerro hegan egiten.
Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan Saab Sport Hatch Linear Sport TiD 150 ZP autarentzat. BEZA, matrikulazio zerba eta suspeneko deskontu barne. Abenduaren 6ra arte balagarría. AM08 autoendako, izakinak bukatu arte. Sustapen ez metaparría. Executive paketea aukerako telefono integratuarekin eskaintako prezioaren barruan. Saab Sport Hatch V6 2.8 T Aero-Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan Saab Sport Hatch Linear Sport TiD 150 ZP autarentzat. BEZA, matrikulazio zerba eta suspeneko deskontu barne. Abenduaren 6ra arte balagarría. AM08 autoendako, izakinak bukatu arte. Sustapen ez metaparría. Executive paketea aukerako telefono integratuarekin eskaintako prezioaren barruan. Saab Sport Hatch V6 2.8 T Aero.
GIAUTO. Bergara.



LANTALDEA GOITBko kazetari, arduradun eta aurkezleak.

JOSETXO ARANTZABAL

GOITB > DENBORALDI BERRIA

Hainbat aldaketarekin dator GOITBren denboraldi berria

ALBISTEGIA Programazioko saio garrantzitsuena, albistegia, bereziki zaindu dute, eta aurkezle eta atal berriak ditu orain

KANPOKO SAIOAK Tokiko elkartearrekin lankidetza areagotu egin da, eta Euskal Herriko beste telebista batzuek egindako saio gehiago izango da gurean

HERRITARRAK Debagoiendarrek parte-hartze handiagoa izango dute, gai sozialen gaineko erreportajeekin, inkestekin, kaleko kazetaritzarekin...



Kirol ekitaldiak

Kirolak protagonismo handiagoa izango du denboraldi berrian. Izan ere, albistegian tarte eta aurkezle propioak izateaz gain, Preferente mailako partidu guztiak zuzenean emango dituzte. *Harmai-latik* saioan, kolaboratzaile gehiago egongo dira.



Unitate mugikorra

Askoz ere irteera gehiago egingo ditu GOITBk bere unitate mugikorrarekin. Irteera batzuk finkoak izango dira. Horrez gain, kalean eta herritarren artean dauden gaiak gehiago agertuko dira, erreportajeen, kale inkesteen... bidez



'Ilunpean'

Mugarri garrantzitsu bihurtu da *Ilunpean* saioa; izan ere, 100 lagunetik gora elkarrizketatu ditu Oihana Elortzak. Elkarrizketa gehiago ere badira: Atxaga, Porrotx, Elorriaga... Tokikoren bidez ere zabalduko da, Goierrin, Bortzirietan, Zarautzen...

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Denboraldi berria hasi eta, horrekin batera, hainbat aldaketa dakartza GOITBk. Lantalue han-diagoa, arduradun eta aurkezle berriak, eta lana antolatzeko modu berria ditu orain, eta hori programazioan eta albistegietan islatzen da. Hala, ikuslea ere hasi da dagoeneko aldaketa horiek igartzen.

ALBISTEGIA

Albistegia da GOITBko saiorik garrantzitsuena, eta hor egin dituzte aldaketa nagusiak. Albistegiak aurkezle berria du, Larraitz Zeberio kazetaria, eta modu desberdinean egiten da kamera atzeko lana ere: hala, arduradun berriak daude -Iban Arantzabal, ikus-entzunezkoen zuzendarria; Oihane Agirre, programazio zuzendarria; Goiatz Arana, erredaktore burua; eta Julen Iriondo, edizio arduraduna-, eta horrek guztiak aldaketa ekarri diru.

Hala, irudiari garrantzi han-diagoa ematen diote, eta edukiak ikuslearekin bereziki pentsatuta egiten dira: "Albistegi gertuko egin gura dugu, jendearen ahotsa pantailaratu duena, arina", dio Iban Arantzabalek, ikus-entzunezkoen zuzendaria.

Albistegiak atal berriak ditu: egurraldia desberdin landuta; agenda; kirolak; eta platoan zuze-nean egindako elkarritzeta.

Horrez gain, *Goiena.net* web-gunea eta GOITB *ezkondu* egin dira: webgunean pantaila bat dago, eta GOITBko albiste labur-pena ikus daiteke hor egunero-egunero.

TELEBISTA SOZIALAGOA

Informazioarekin lotuta, erre-portajeak dira beste atal berri bat. Luze eta zabal lantzen dira hainbat gizarte gai: orain arte, inmigracioa eta adopcioa landu dituzte Amagoia Lasagabaster eta Monika Monterok egindako erre-reportajeetan. Ibarreko zenbait albiste sakonago eta ahots asko-rekin azalduko dira erre-reportaje-eta. Albistegietan azalduko dute erre-reportajeok zelan egin diren,

"Albistegi gertuko egin gura dugu aurrerantzean; arina, jendearen iritzia pantailara eramango duena"

"Arlo politikoaren gainetik, jendearen kezkei erantzun gura diegu; herritarrekin, herriarendako telebista izango da"

eta astelehenean eman egingo dituzte. 40 minutukoak dira.

Debagoiendarrak eurak ere protagonista izango dira, eta euren iritziak eta kezkak modu zuzenean jasoko dira, erreportajeen eta inkestek bidez. Oro har, telebista sozialagoa izango da GOITB, Arantzabalek azaltzen duen moduan: "Jendearen parte-hartza bultzatuko dugu. Arlo politikoari baino gehiago, jendearen kezkei erantzun gura diegu. Herritarrekin, herriarendako telebista egin gura dugu; noski, politikak duen pisua baztertu gabe, baina eguneroko gauza txikieie ere lekua egin. Hau horrela izan dadin, gonbidapena ere egiten diogu GOIENKARIKO irakurleari gurekin ere telebista egin dezan. Gure telefonoak zabalik daude edozein aldiste emateko, iradokizunak egiteko: 943 71 23 96 edo *goitb@goiena.com*".

EUSKAL HERRI OSOKO SAIOAK

Programazioan ere aldaketa sartu ditu GOITBk; ez dira aldaketa bortitzak, lehengo ildotik jarraituta egin direnak baizik, baina igartzeko modukoak hala ere.

Adibidez, Tokiko telebista elkartearren bitarte, eduki

berriak izango dira. Goienak sortutako elkartea da Tokiko, eta Euskal Herri osoko hainbat leku-ko telebista euskaldun batzen ditu. Orain arte, bakoitzak ordu erdiko edukiak konpartitu ditu bestekin, baina aurrerantzean, elkarlana handitu egingo da, eta ordu beteko edukiak konpartituko dira. Hala, GOITBko ikusleek Nafarroan, Bizkaian, Goierri, Zarautzen... egindako saio gehiago ikusi ahal izango ditu. Gaur egun, halako hainbat saio daude programazioan: *Eltze beroa, Bizitegia, Hitz bitan...* bes-te eskualde batzuetako errealitatea euskaraz gerturatzen.

Kirolak tarte handiagoa izango du. Albistegietan laburpenak egingo dituzte, eta egubakoitzean agendan gogoratuko dituzte hitzorduak. Preferenteko futbol partidu guztietara helduko da unitate mugikorra, eta *Harmailatik* saioan landuko direlako derbiak", dio Iban Arantzabalek. Horrez gain, Julen Iriondo, *Harmailatik* saioko aurkezleak, kolaboratzaile gehiago izango ditu kirol albisteak komentatzeko.

BARNE ETA KANPO EKOIZPENAK

GOITBren ekoizpen propioa modu berezian indartuko da. Izan ere, lantalue handitu egin da, eta bi kazetari berri daude: Txomin Madina eta Imanol Gallego. Batez ere, albistegietarako lan egiten dute, baina bestelako lanak ere egingo dituzte. Hala, Txomin Madina Saharan dago egunotan, hainbat erreportaje egiten, eta horiek laster botako dituzte GOITBn.

Kanpotik ekarritako produktuak ikusteko aukera ere izango da Debagoieneko telebistan. Hala, Tokiko elkartearren bidez lortutako saioez gain, Euskal Telebistak ekoiztutako marrazki bizidunak eta telesailak ematen jarraituko du GOITBk. Ohi bezala, telesail berriak agertzen joango dira zaharrak bukatu ahala.

Oihane Agirre > Programazio zuzendaria

"Tokiko elkartetik jasoko dugun saio kopurua bikoitzu egingo da"

L.K. > ARRASATE
GOITBko zuzendaria izatetik, programazioaren arduradun izatera pasa da Oihane Agirre. Besteak beste, saio berri-tarako ideiaklandu, programazioa osatu, digitalizazioa hedapena... Horiek dira bere ardarak.

Zeintzuk dira GOITBko aldaketa nagusiak?

Aldaketa handiena informatiboa dute: euren estruktura, bakoitzaren zereginak... aldatu egin dira. Informatiboa da gure programazioko iza-ra, egunero ematen da, eta ahalegin berezia egin gura izan dugu, bereziki mimitu. Oraindik aldaketetara moldatzen ikasten gabiltza.

Zuri dagokizunean, zeintzuk dira programazioko aldaketa?

GOITBk hiru iturri nagusi ditu bere edukiak lortzeko: bat, guk ekoiztutako saioak, eta hori, erreportajeak eta Danbaka moduko saioak ditugu berri-tasun moduan.

Bigarren iturri nagusia da EITBko saioak. Astero bost ordu ematen ditugu: marrazki bividunak, *Hasibe-*



GOIENKARIA
riaktelesaila, Teknopoli... ditugu.

Azkenik, Tokiko telebista elkartearren bidez lortzen ditugun edukiak daude. Hor beste aldaketa bat egongo da: orain arte, elkarteko telebista bakoitzak 30 minuto-ko edukiak ematen zizkien besteei, baina aurrerantzean, 60 minutukoak izango dira. Hortaz, iturri horretatik material berria ikusiko dugu GOITBn.

Atal berriak diru albistegiak...

Bai. Adibidez, platoan bertelan elkarritzetak izango dira; kirolek tarte berezia izango dute; eguraldia modu desberdinean egingo dugu, guk geuk landuko dugu aurrerantzean; eta agenda da beste atal berri bat.

Programazioari dagokionez, zeintzuk dira zure ardurak?

Besteak beste, zein saioak jarraituko duen eta zeinek ez, zein jende-rekin egingo ditugun saioak, platoan edo kanpoan egin... horiek baloratzen ditut.

Beste alde batetik, saioen irudia eta formatua ere lantzen ditut.

Larraitz Zeberio > Albistegiko aurkezlea

"Telebistan, kamera aurrean, lan egiteak zurrara berezia eragin dit"

L.K. > ARRASATE
Irungoa da Larraitz Zeberio, baina Elgetan bizi da azken urteotan. Joan den astelehenean izan zuen estreinaldia GOITBko albistegi nagusiko aurkezle moduan.



Zelan sentitu zara lehenengoz kamera aurrean jarri zarenean albistegian?

Desberdina da kamera aurrean albiste bat egiten jartzea eta platoan aurkeze moduan jartzea: han hiru kamera eta bost lankide ditut niri begira. Aspaldi sentitu gabe nengoentzako sentsazio hori, eta adrenalinna igoera izugarria izan zen.

Zein albiste dituzu gustukoen aurkeztek?

Emateko errazak dira batzuk: adibidez, Kilometroen festaren albisteak eman genuen lehengoan, eta albiste atsegina zen. Beste batzuk ez dira atsegina zen, ez aurkezteko, ez egiteko: adibidez, bi alderekin egon behar duzu-nean eta batek ez zaitueenan ondo hartzen. Baina albiste horietatik ikas-ten da gehien.

Alde handia dago Irunen eta Debagoienean lan egiteko moduan?

Herritar kopuru aldetik, antzekoak dira biak; desberdintasun handiena da Debagoiena oso eskualde euskalduna dela, Irun ez bezala. Besteak, hemen jendea irekiagoa da.



'Didjeridu'



Kazetari berriak

Tokiko elkarteko beste telebistekin elkarlana areagotu egingo da, eta *Didjeridu* da horren adibide. Orain, beste leku batzuetako gazteak ere agertzen hasi dira saio horretan: Gipuzkoakoak, Nafarroakoak, Bizkaikoak...

Lantaluek kide berriak diru: Imanol Gallego eta Txomin Madina (argazkian). Albistegietan parte hartzeaz gain, lan bereziak ere egingo dituzte: adibidez, Madina Saharan dago, eta erreportaje sorta bat egin dihardu.

ARANTZAZUKO BAKE ZENTROA > JONAN FERNANDEZEK 'SER HUMANO EN LOS CONFLICTOS' LIBURUA AURKEZTU DU

Baketik-en ikastaroek gainditu egin dute ezarritako helburua

1.000 lagun trebatzea zen Baketik-en helburua eta 1.323k eman dute dagoeneko izena.

Jonan Fernandezek adierazi zuen gizartea bospasei urte aurreratu zaiola bake prozesuari.

AINTZANE IRIZAR > OÑATI
Astelehenean, abenduak 4, Baketik Arantzazuko Bake Zentroko arduradunek prentsurrekoan egindako zuten Donostian. Batetik,

Baketik-en egitasmo nagusia den Bider Mila proiektuaren berri eman zuten. Bestetik, Jonan Fernandezek *Ser humano en los conflictos* liburua aurkeztu zuen.

Prentsurreko hartan egon ziren, Fernandezekin batera, Olatz Prat, Baketik-en Komunikazio arduraduna, eta Errektore Kontseiluko kide Gorka Landaburu eta Arantxa Urretabizkaia.

1.323 LAGUN IKASTAROETAN

Baketik-ek 2006-2007 ikasturteko esku artean duen egitasmo nagusia da Bider Mila proiektua. Proiektu horren helburua da, gatazkak etikoki lantzeko ikastaroen bitarte, 2008a baino lehen

mila berradiskidetze eragile trebatzea; eragile horiek, gainera, gizartean efektu biderkatzailea izatea da ikastaroen helburua.

Baketik zentroa urriaren 14an inauguratu zuten; 50 egun bestetik pasatu ez denean, dagoeneko 1.323 lagunek eman dute ikastaro horietarako izena. Horietatik, 560 lagunek dagoeneko egin dute ikastaroa eta gainerakoek datoz hilabeteotan egingo dute.

Horren harira, oso pozik eta itxaropentsu azaldu ziren bake zentroko arduradunak. Euren esanetan, datu hori oso esanguratsua da, datu itxaropentsua da. "Bake prozesuak zaitasunak dituen arren, etorkizunari bultzada emateko prest dagoen masa sozial kritiko eta konprometitua dagoen seinale da", adierazi digute Baketik-eko arduradunek. Jonan Fernandez Baketik zentroko zuzendaria zera gaineratu zuen: "Gizartea bost edo sei urtez aurreratu zaio bake prozesuari".

HAMAR ORDUKO IKASTAROAK

Trebakuntza eta diploma eskratzeko sei edo hamar orduko ikastaro baten parte hartu behar da. Ikastaro hori hiru modulutan banatu dute: gatazka suntsitzaleen prebentzioa, bitartekaritza (elkarrikzeta, lankidetza, akordio...) eta berradiskidetza.

Ikastaroak Arantzazun bertan edo kanpoan ematen dituzte. Hala eskatzen duten herri, era-kunde edo enpresatan ere eskaintzen dute gatazkak etikoki lantzeko ikastaro hori.

Bi erabilgarritasun ditu ikastaro horrek: batetik, eguneroko bizitzan izan ditzakegun edozein motatako gatazkei etikoki aurre egiten laguntzen digu, eta bestetik, berradiskidetze prozesua prestatu eta aurrera eramatea.

LIBURUA

'Ser humano en los conflictos', Jonan Fernandezen liburua

Ikastaroen berri emateaz gain, asteleheneko prentsurrekoan Jonan Fernandezen *Ser humano en los conflictos* liburua aurkeztu zuten. Alianza argitaletxeak eman du argitala liburu hori eta hantxe jasotzen da ikastaroetako material teorikoa. Jonan Fernandezek zera adierazi zuen liburuaren gainean: "Berradiskidetza prestatzen laguntzea da liburuaren ardatzetako bat. Berradiskidetza da errespetuan eta elkar onartzean oinarritutako bizikidetza berreskuratzea". Euskal gatazkan izandako 20 urteko esperientzia batzen du Fernandezek liburuan.

> KONSTITUZIO EGUNA
Hainbat enpresak lan egin du Konstituzio Egunean

Abenduaren 6a, Konstituzio Eguna, jaieguna izan da langile gehienendako; zubi luzea egokitzen zaie, gainera.

Lantegi, komertzio eta era-kunde publiko gehienak itxita egon ziren eguztenean. Hala ere, hainbat lan egitea egokitu zitzaien; besteak beste, lantegi handienak kasuan, Goipper, Fagor Ederlan, Fagor Etxetresnak, Ulma eta Copreci lantegietakoak. Arrasateko Udala ere zabalik egon zen egun hartan. Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak ere lan egin zuen.

Espainiako Konstituzio egun horrekin lotuta, kale agerraldiak ere egin zituzten Debagoienean. Aretxabaletan eta Bergaran, hain zuzen ere, Euskal Herriak Bere Eskola mugimenduko kideek: maiatzean, eskolak datorren urteko egutegia lantzen hasten direnean, egutegiaren gainerako kanpaina bat egiten hasiko direla, hain zuzen ere, egutegi propio bat lortzeko helburuarekin.

Bestalde, egutegiaren gaiarekin lotuta, zera adierazi digute Euskal Herriak Bere Eskola mugimenduko kideek: maiatzean, eskolak datorren urteko egutegia lantzen hasten direnean, egutegiaren gainerako kanpaina bat egiten hasiko direla, hain zuzen ere, egutegi propio bat lortzeko helburuarekin.

> IMSERSO
Bainuetxeetako programa aurreratu egin dute

Aurten, urtarrilean hasiko da Imsersok eskaintzen duen bainuetxeetako programa. Horrela, izena emateko epea ere aurreratu egin dute, abenduan izango da. Abenduaren 29ra arte dago izena emateko aukera, udaletara jota. Urtarrilean abuztura izango da lehenengo txanda eta irailean abuztura bigarrena. Informazio gehiago jaso daiteke www.seg-social.es/imserso webgunean.

> MANKOMUNITATEA
Aralar ez dago ados onartu berri dituzten aurrekontuekin

Aurreko astean eman zuen GOIENKARIAk Mankomunitateak 2007rako onartu dituen aurrekontuen berri. Aralar alderdia ez dago ados aurrekontu horiek. Bi proposamen aurkeztu zituzten: batetik, hondakin organiko-en kudeaketari dagokionez, egin beharreko ikerketa eta proiektuetarako diru partidak onartzea; bestetik, Zubillagako hiltzegiaren bideragarritasuneko diru partida onartzea.

Informa zaitez
| Zure Sukurtsalean
| Ohiko bitartekariarenag
| 902 38 08 38

LAGUN ARO
SEGUROS - ASEGUROAK
Beti zugan pentsatzen

2007KO AURREKONTUA > DATORREN URTEKO AURREKONTUA ONARTU DU OÑATIKO UDALAK

Hirigintzan eta herritarren zerbitzua hobetzen gastatuko dute euro gehien

EAJk eta EAk aldeko bota eman dute eta EBk eta PPk, aurkakoa; Ereitten ere, kontra

Kiroldeian, auzoetan, ludotekan eta ondarea erosten inbertituko dute, besteak beste

OIHANA ELORTZA > OÑATI
Azaroaren 30eko osoko bilkuraren onartu zuen Oñatiko Udalak 2007ko aurrekontua: 18 milioi euro; aurten goa baino %4,81 handiagoa. EAJ eta EA alderdiek alde bozkatu zuten eta EBk eta PPk, aurka. Ereitten herri plataformak ere ez zuen onartu aurrekontua. Nabarmeneko, Paskual Elustondo kontu-hartzaleak azpimarratu zuen sarrera arrunta igotzen ari dela eta gauza arrunta jaisten. "Aurreikusten den zor berria amortizatzen den kopuruan heinekoa dela ikusten da", gaineratu du.

INBERTSIOAK
Aurrekontua sailka banatz gero, Hirigintzak eta Pertsonal batzordeak dituzte diru gehien. Lurdes Idoiaga alkateak esan duenez, azpiegituran eta zerbitzuetan diru asko inbertituko dute:



KIROLDEGIA Zubikoa kiroldegiko obretan 1.700.000 euro inguru inbertitu dituzte datorren urtean.

LEIRE KORTABARRIA

"Kiroldegia aurreko plaza egoki-tuko dugu, Kalegoieneko gara-jeak bukatuko ditugu eta auzu-eta bideak asfaltatuko ditugu, besteak beste. Bestalde, herritarrei eskaintzeko zerbi-tzuetan egingo dugu beste inber-tsio potolo bat, zerbitzuak hobetu gura ditugulako". Horrez gain: gazteriari begira, 3 eta 12 urte bitarteko gaztetxoendako ludoteka edo programa dinamizatzailea osatzen ere inber-tituko dute, Kalexka elkartearrekin; parroquia eraberrituko dute eta Aloña Mendiri lagun-tza handiagoa emango diote, besteak beste.

EBko Karmelo Perezek aur-ka bozkatu zuen, "aurrekontuak parte-hartzaleak izan behar dire-lako". PPko Julio Perez de Arri-luzeak, berriz, "Udala zorpetuta dagoelako eta pertsonal gastuak jaitsi behar direlako" bozkatu zuen kontra. Ereitten herri pla-taformak ere ez zituen onartu, "apartheid politikoan oinarritu-takoak direlako", Marijo Altube-ren esanetan.

ITURRIGORRIKO PAGADIA
Osoko bilkura berean, Iturrigorri-rrin 500 hektareako pagadia eros-tea ere onartu zuten, aho batez onartu ere. Aizkorri-Aratz natur parke barruan dago baso hori. "Turismoa bultzatzeko, ikasleek gozatzeko eta herriak natura ondare bat izateko eroi dugu", argitu du Idoiaga alkateak.

18 milioi euro ditu Oñatiko Udalak 2007rako

Aurrekontua batzordeka

| | Garapen Agentzia | 517.933,00 € |
|---------------------------|-----------------------------------|-----------------|
| Hirigintza eta Zerbitzuak | Nekazaritza eta Auzoak | 514.422,07 € |
| Pertsonala | Euskara eta Hezkuntza | 453.566,56 € |
| Kirola | Teknologia eta Informazio Gizarte | 418.192,94 € |
| Idazkaritza eta hazienda | Gaztedia | 205.551,33 € |
| Gizarte | Guztira, Udalarena | 17.995.627,81 € |
| Kultura | Bateratua | 21.649.707,91 € |

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



600 m² baino gehiagoko erakusketa
Ikusteko 31 sukalde baino gehiago
Merkatuko prezio hoberenak
Europar marka hoberenak

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena

Armeke
Sukaldeak Integralak

YOSU THERMIK
LEIHOAK ISOLATZAILEAK

Bisita ezazu leihoen erakusketa berria
Kalitate handiena
Gehienezko berma
Prezio hobeak



ERAKUSKETA BERRIA

Kataide Poligonoa, 4 pabiloia

ARRASATE

943 770157

MERKATARITZA > IBARREKO MERKATARIAK ZABALETAKO ZENTROAREKIN KEZKATUTA

Saltoki handia egitekotan, herrian egitea eskatzen dute merkatari txikiek

Zabaletan
merkataritza-etxea
jartzearen aurka azaldu
dira eskualdeko
dendariak

Astelehenean eta
martitzenean
erakusleihoa estali
egingo dituzte
ibarreko dendetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Debagoineneko dendarien elkar-teetako ordezkarriak prentsa aurrean azaldu dira Arrasaten, Txomintxo erakunde sustatzai-leak egiteko asmoa duen merkataritza-etxea dela-eta euren kezka azaltzeko.

Merkataritza eredu hori zaharkitua geratu dela diote herrietaiko salerosleek: "Normalean 200.000 eta 500.000 biztanle arteko guneetan ipintzen dituzte, eta gure eskualdeak 60.000 biztanle ditu. Eibar, Orio, Irun edo Donostian gertatzen ari denaren aurkako proiektua da. Hiri horietan erdigune biziak eraikitzen ari dira, eta merkatartzaren modernotasuna hirigintzarekin bateratzen".

Proiektu horrekiko adostasunek eza azaltzeko hainbat arrazoi eman dituzte dendariekin. Diote eskualde mailako kontzentrazio eredu hori ibarreko herri bakotzaren garapenaren aurkakoa dela, eta beste herrietako gabeziak are nabarmenagoak izango direla. Herri barruko eta kanpoko merkatartzaren arteko aldea handitu egingo dela ere esan dute, eta horrela gizarte kohesioa oztopatu egingo dela: "Orain ere, Arrasate kanpoan dagoen izugarrizko hipermekatuaengatik, egoera delikatua da".

Hauxe gehitu dute: "Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak horrenbeste aipatzen duten garapen iraunkorraren aurka-



MERKATARI ELKARTEAK Txanda, Ibai-Arte, Aretxarte eta Bedelkarreko ordezkariek Kaleak bizirik, zentro komertziala hemen lelopean egin zuten agerraldia. AMAGOIA LASAGABASTER

ko eredua da". Horrela, Eusko Jaurlaritzari eskatu diote kontrasesanetan ez ibiltzeko: "Kaleak bizirik edukitzeko publizitate kampainak egiten dituzten bitartean, horrelako proiektu kaltegariak ez babesteko eskatu nahi dugu". Erabakiak etorkizuneko herri garapena hipotekatuko due-la eta egungo merkataritza harremaner bizi iraupena arriskuan jarriko duela ere esan dute.

EKIMENAK

Bada, euren ezinegona azaltzeko, hainbat ekimen egingo dituzte dendariekin: abenduaren 11n eta 12an, astelehena eta martitzena, ibarreko dendetako erakusleihoa estali egingo dituzte paper beltzezin; bestalde, oraindik zehazteke dagoen aste bukaera batean, erakusleihotako argiak itzali egingo dituzte. Ekimen

"Merkataritza-guneak 28.000 metro koadro izatea nahi dute, eta horrek kontzentrazio ikaragarria ekarriko luke, ondorio latzakin"

Jesús Mari Elkoro > Debagoineneko salerosleen ordezkarria

horiek erakutsi nahi dute kaleek, merkatartzari gabe, bizitzena galduko luketela.

DENDARIEN PROPOSAMENAK

Kezka adierazteaz gain, egoera horri buelta emateko hainbat

"Eredu herrikoiagoa nahi dugu, modernotasunetik aldendu gabe, baina ez hain eredu 'amerikanoa'"

Jesús Mari Elkoro > Debagoineneko salerosleen ordezkarria

proposamen ere aurkeztu dituzte ibarreko dendariekin; izan ere, proiektuaren onarpena atzeradain eskatu dute: "Aldeko eta kontrako alderdiak sakon atzertu arte, proiektua gelditzea eska-tzen dugu. Izango lituzkeen era-

ginen gaineko azterketa egin beharko litzateke horretarako", diote ibarreko merkatariekin.

Bestalde, diote "erabakietan ez dezatela bakarrik eraginik izan etxe-agentzien eta merkatartzaren enpresen negozio aukerek. Herritarren beharrak ere kontuan hartu behar dira gure idiosinkrasia eta bizimodua suntsituko dituen proiektura jo gabe".

Horretarako, proposamen alternatiboak aztertzea aurreikusi dute, "herriko eta periferiako merkatartzaren artean ahalik eta erabaki errerealista eta oreka-tuena bilatuta".

Argi utzi dute merkatariak ez daudela saltoki handien aurka, herri-guneetatik kanpo egitearen aurka baizik.

Zabaletako erosketa gunean 200 dendarendako lekua egongo da

Arrasate kanpoaldean, Zabaleta gunean, hain zuen ere, merkataritza-gune erraldoia eraikitzeko proiektua Udalean dago. 28.000 metro koadroko azalera izango du, eta horietatik 18.000 metro koadro salmentarako izango dira; 200 denda gutxi gorabehera. Txomintxo erakunde sustatzileak oraingo agintaldia bukatu baino lehen izan nahi du proiektua aurrera ateratzeko baimena esku artean, merkataritza elkartetako ordezkarrien esanetan.

Talde politiko guztiak izan dituzte elkarizketak merkatariekin, baina hasiera baten ez dute babesik lortu. Beraz, herrietako dendarien elkartek hausnarketa eta eztabaidea piztu nahi dute gai horren gainean. Herritarra inplikatu nahi dituzte. Horretarako eskatu dute proiektua atzeratzea.



ZABALETA Arrasate kanpoan egin nahi dute zentroa. GOIENKARIA



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

Txomin Madina > Saharan dagoen GOITBko kazetaria

"Sahararrek oso harrera beroa egin digute eta etxelean bezala sentiarazi gaituzte"

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE
Arizmendi eta Txantxiku ikastolen ekimenez sortutako *Ikastolatik Saharara* proiektuaren barruan, 140 bat ikasle eta irakasle joan dira oraingo astean Tindufeko kanpamentuetara. Hantxe dago Txomin Madina ere, GOITBrako eta GOIENKARIArako erreportaje egi-ten. Aitziber Aranburuzabalak Arrasate Irratirako egin dio honako elkarriketa.

Zer moduz zabiltzate Saharan?
Oso ondo; egia esan, berehala ohitu gara bertako bizimodura, bertako patxadara eta berta-ko ohituretarra.

Bidaia luzea izan duzue, ezta?
Bai. Goizaldeko laurak alde-ra irten ginen nor bere herritik; aireportura joan, hegazkina har-tu, Tindoufera iritsi, kamioiak hartu eta kanpamentuetara abia-tu ginen. Hamabi bat orduko bidaia izan zen guztira; nekatuta, baina oso ondo iritsi ginen.

Bidaiaren nekea, baina, segi-tuan arindu zizun sahararrek egindako ongietorriak.

Bai, bai; zapataun bertan, iri-tsii ginenean, ilunduta zegoen dagoeneko eta banatu gintzuten hango familietan. Familia bakoitzaren *haimetan*. Lehenik eta behin, tea atera ziguten, eta orduantxe erlaxatzeko aukera izan genuen. Hiru te hartzea da sahararren ohitura; halaxe, hiru teak hartu eta ondoren afaldzu egin genuen. Harrera oso beroa izan zen, nahiz eta hizkuntzarekin hainbat arazo izan.

Egin diguten harreraren adi-bide garbi bat kontatuko dut: lehe-nengo gaua pasatu eta gero, goi-zean, udaletxean genuen hitzor-dua. Askotako asko azaldu ginen familiako umeekin, segituan hartu gintzuelako etxekotzat.

Bada, koka gaitezen; ater-a-dezagun kanpamentuen argazki bat.

Aaiungo kanpamentuan gaude gu. Aaiunek lau herri dazka, eta herri bakoitzak hainbat auzo. Hasierako gure impresioa zen hau ezereta dela.

Kamioian hona gentozela, ilar-gian egongo bagina bezala sen-titzen ginen: ez dago mendirik, ez errekarik, ez aldarrik, ez zelairik... Gero, herrietara, kan-pamentuetara, iritsitakoan eta hango eraikinak, dendak eta abar ikusitakoan, herri tanke-ra hartu genion, baina egia da impresionatuta geratu ginela. Edozelan ere, segituan ohitu gara eta astebetean gure herri-txoa izango da. Momentu hone-tan, udaletxean gaude: borobi-lak dira, zezen-plaza tankerakoak dira. Eraikinak adobezkoak



Txomin Madina, Saharan dagoen GOITBko kazetaria. GOIENKARIA

"Hasieran impresio handia egin zigun honek: ez dago ez errekarik, ez zelairik, ez mendirik..."

"Materialez betetako 200 kaxa baino gehiago ekarri dituzte ikastoletakoek"

dira, inguru guztia hareazkoak dira, ez dira batere sendoak. Dena dela, esan bezala, hemen egin diguten harrera oso beroa izan da eta etxearen bezala sentiarazi gaituzte.

Material mordoa eraman dute ikastoletakoek, ezta?

GOIENA SAHARAN

Goienak hainbat erreportaje eskainiko ditu

Goienako bi lankide joan dira Saharara Arizmendi eta Txantxiku ikastoleko eta Nubi elkartekoekin batera: Txomin Madina kazetaria eta Maialen Legorburu kameralaria. Goienako komunikabideendako hainbat errep-ortaje egingo dituzte. GOITBrako, esaterako, lau erreportaje egingo dituzte: ikastoletakoek han bizi izandakoaren gainekoa; agintariei egindako elkarriketek osatutako beste bat; hango egoera soziokulturalaren gainekoa beste bat; eta azkenik, saharar familien eguneroko bizimodu-aren gainekoa. Datorren astetik, astero erreportaje bat eskainiko dute. GOIENKARIA eta Arrasate Irratian ere izango dugu bidaiaaren berri.

kontsumoa



Gabonetako aurrekontuko diru gehien oparietarako da. GOIENKARIA

Batez beste, 858 euro gastatuko ditu bizilagun bakoitzak Gabonetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Gabonak gainean ditugu eta patriak gertu daude urtean gehien kontsumitzen den garaietako bati aurre egiteko. Erkidego guztietan, 2005eko Gabonekin alderatuta, %4 igo-ko dira gastuak, Erabiltzaile eta Kontsumitzaile Independenteen Federazioaren arabera.

Batez beste, 858 euro gastatuko ditu pertsona bakoitzak Gabonetan. Aurrekontu horretatik, diru kopuru handiena opariak eta jostailuak erosteko erabiltzen da, 252 euro, batez beste. Loteria da Gabonetako beste gastuetako bat, eta horretan 134 euro gastatzen ditu bakoitzak batez beste.

Jatekoetan ere asko gastatzen dugu, oro har: 258 euro batez beste. Izan ere, hainbat produkturen prezioek %100 egiten dute gora: langostinoena eta xanpainarenarena, esate-rako. Arkumearena %90 igotzen da eta bisigurena %50.

Horri guztia gehitu behar diogu, Gabonetako oporrak direla-eta, aisiaidetan gastatzen dugun dirua, 240 euro.



Arriskutsuak diren 70.728 jostailu erretiratu dituzte

Umeendako arriskutsuak direlakoan 70.728 jostailu erretiratuko dituzte. Gehienak (%33) pistolak, arkua eta geziak dira; horien ostean daude txilibitudun pampinak (%20); telefonaak (%18,4); panpinak eta osagariak (15%); eta peluxeak (%5,5). Arriskurik ohikoenak dira itomena, jostailuen ertzek eragindako lesioak, toxikatzeak, erredurak eta deskarga elektrikoak. Erretiratutako jostailuen jatorria Asia da (%79,15ean eta jostailuen etiketetan irregularitasunak daude %58an).



Etxebizitzen prezioa gutxiago igoko da datorren urtean

Etxebizitzen prezioa %5,78 igoko da 2007an, Cohispania balorazio eta tasazio elkartaren azterketaren arabera. Aurtengorako espero den igoerarekin alderatuz, %2,43 gutxiago eta 2005etik %6,37 gutxiago. EAEn adituek dia-te datorren urtean igoera %4,8 izango dela; txikiagoa, noski, aurtengoa %6,53 izan dela kontuan hartuz gero. EAE da etxebizitza erosteko familiek esfortzu ekonomiko handien egin behar duten erkidegoa; izan ere, soldaten %29,68 hipoteka ordaintzeko erabiltzen da.

gure artekoak

PSIKOLOGOA > Psikologia kontsulta berezia dauka Eusebio Gonzalezek Antzuolan. Lore esentziak erabiltzen ditu, baita gorputzaren egoera bioelektrikomagnetikoa neurtzeko gailu berezi bat ere.

Eusebio Gonzalez

"Loreen terapiak energia sistemana eragiten du"

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Psikologia kontsulta berezia dauka Eusebio Gonzalez psikologo arrasatearrak Antzuolan. Olaran etxean dauka kontsulta, Debagoieneko Mankomunitatearen Enpresa Ekin-tzaile Berriendako egokitutako bulegoetako baten.

Psikologoa zara, baina badu berezitasunik zure zerbitzuak. Esaterako, lore esentziak erabiltzen dituzu.

Hala da, bai; hiru aukera eskaintzen ditut: batetik, tratamendu psikologikoa, psikologia humanistaren ikuspegitik; bestetik, loreen terapia; eta azkenik, gorputzaren egoera bioelektrikomagnetikoaren azterketa. Gailu berezia daukat azterketa hori egiteko, gailu berritzalea, eta Estatuan berrogei besterik ez dago.

Zer da loreen terapia?

Homeopatiarekin eta akupunturarekin batera, loreen terapiak gorputzaren sistema energetikoan eragiten du.

Arazo psikologikoez gain, gainerako osasun arazoak ere lanzen dituzu, ezta?

Kontua da medikuntza tradizionalarekin alderatuta osasunaren ikuspegi ezberdina dauka-



Eusebio Gonzalez, Olaran etxeko kontsultan.

A.I.

FITXA TEKNIKOA

> PAZIENTEAK

Antzuolarrak badaude, baina gehienak kanpokoak dira, jendeak oraindik ere erreparoa duelako psikologoaren ganea joateko.

> INGENIARI TEKNIKOA

Psikologoa izateaz gain, ingeniaritza teknikoa ere bada Eusebio. Aurrez horretan lan egin zuen.

> POSTA ELEKTRONIKOA

Webgunerik ez dauka, baina bai posta elektronikoa:
eusebiogm@euskalnet.net.

dala. Egoera emozionala, mentala, fisikoa eta energetikoa batera doazela da klabea.

Ze arazo psikologiko dira gaur egun larrienak?

Estresa, antsietatea, depresioa, lotura afektibo larregizkoak edo lotura horien gabezia...

Negozio berriarekin, laguntasunik izan duzu?

Bai; Debagoieneko Mankomunitateko Enpresa Ekimen Berriarako aholkulariek laguntasun handia eskaini zidaten negozioarekin hasi nintzenean.

begi-bistan

Komunak Urkulun (Aretxabaleta)
2006/11/29

Argazkia: Mirari Altube.
Testua: Aintzane Irizar.

Areantzako bidegurutzea eta Goroeta artean komunak jarri dituzte, Urkulun. Jende mordoa ibiltzen da paseoan urtegiaren inguruan, eta beharrezko zerbitzua da, benetan, komunena.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:
goinenkaria@goinena.com

etxeko leihotik

Goiatz Arana > GOITBko albistegietako arduraduna

Hamabosgarrenean ere egingo dugu

Googa dut Korrikaren hamalaugarren edizioa. Mikel Saiz kameralaria eta biok joan ginengatik. Udana gainean igo ginengatik furgonetara, jende multzoa korrika egiten ikusten eta euskararen aldeko aldarrikapenak entzuten genituela, eta, beste behin, ileak tente ipini zitzazkidan. Hanxtxen hasi genuen gure ibilbidea, Debagoieneko herriak zeharkatzeko ondoren. Ibilgailutik igotzen eta jaisten ikasi genuen, horrek ere badu-eta berea. Izerditu ere bai, majo izerditu genuen, bospasei kiloko aparatura bizkar gainean,

"Bukaeran izan ziren komeriaiak: istripua eta Guardia Zibilaren kontrola"

Kontuak kontu, hamabosgarrena martxoaren 23an helduko da gurera, eta, orduan ere, egingo dut korrika!

> Aspaldiko urteetan

behin joan naiz korrika egitera, eta kito ordutik. Korrikan parte hartzea ezberdina da, ordea: bertan sortzen den giroak ematen dio batia aurrera egiteko behar duen hori.

> Bien bitartean,

AEK-k laguntzaileak behar ditu, Korrika 15 antolatzeko. 12 euro ordaintzen dituenak pin bat jasoko du eta, gainera, beherapenak egingo dizkiote hainbat saltokitan.

izen propioak

Javier Valls
MCC

MCCko Sustapen Zentro Korporatiboko zuzendari izendatu berri dute Javier Valls. Horrela, Pablo Mongelosen leku hartuko du, Lagun Aro Ase-guruen Zuzendaritzara igaro da-eta Mongelos. 46 urte ditu Vallsek, bartelonarra da, baina 1992a ezkerro Gernikan bizi da.



Aurelia Garrote
100 URTE

Martitzenean 100 urte bete ditu Aurelia Garrotek. Zamorako da, Argain de Sayago herriko, baina 20 urte darama Arrasaten bizi izaten. Gaur egun, Abaroa egoitzan bizi da. Omenaldia egin zioten martitzenean, eta hantxenak izan zen Ignacio Lakuntza alkatea.



Jone Muxika
TXIRRINDULARIA

Domekan Igorren jokatutako ziklo-kros lasterketan bigarren sailkatu zen Jone Muxika elgetarra. Lehia gogorra izan zuen Rosa Bravorekin, eta hamar segundora heldu zen helmu-gara. Rosa Bravo estatu mailako emakume indartsuena da ziklo-krosean.

Maiatzean 20 urte egingo ditu Arrasateko Udalean PSE alderdirako lanean. Agintaldi gehien

segidan egin dituen zinegotzia da. Hala ere, oraindik politikan jarraitzeko gogoa eta ilusioa du,

eta berriro aurkeztuko da maiatzaren 27an egingo dituzten udal eta foru hauteskundeeta-

ra. PSEko hautagaia da Arrasateko alkate izateko. Bulegoan egon gara berbetan.

Paco Gartzia > PSE-EE

"Prozesuak ez duela atzerapausorik izango uste dut, gorabeherak izan arren"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Udal politika asko gustatzen zaio-la aitortu du Paco Gartzia (Montilla, Kordoba, 1953). Maiatzaren 28tik aurrera Arrasateko alkatea izango dela uste du. Egungo egoerari dagokionez, berriz, ETAK armak utzi eta alderdiek asko hitz egin behar dutela uste du. Oraindik gaitzikusten du hurrengo elkarritzeta euskaz egitea.

Nola ikusten duzu gaur egungo egoera eta ze balorazio egiten diozu orain artekoari?

Bakea lortzeko akordioa egingo dugun esperantza dut oraindik. Bainaz azken albisteak ez dira pozgarriak. Euforia momenta bizi izan dugu, terrorismoaren bukaera ikusten genuen, baina gertakariekin ezetz diote. Nik, hala ere, uste dut egoera honek ez duela atzerapausorik izango; ETAK hiltzeari uztea lortuko dugula, armak entregatuko dituela. Zapaterok esan duen moduan, gorabeherak izango ditu prozesuak, eta orain beherakada baten gaudela uste dut, baina etorriko da gorakada ere.

Zer egin behar du gobernuak blokeo egoera gainditzeke?

Gobernuari galdu beharko diozu hori. Lege barruan egin dezakeen guztia egiten ari dela uste dut. Gobernuak bakea lortzeko ilusioa duela ikusten dut eta ahal duen guztia egingo du hori lortzeko. Beste batzuk dira beste pauso batzuk eman behar dituztenak eta geldi egon dutenak: ETAK tutelatzeari utzi behar dio eta ezker abertzaleak indarkeriaren mundua utzi behar du eta arazoa mahaietan konpondu behar du, Otegik Anoetan esan zuen moduan. Bestalde, alderdiek asko hitz egin behar dute. Eta alderdien mahaiari buruz, egin behar bada, egin dezatela esaten dut; eta egin badute, ondo joan dadila. Mahai buruz hitz egiteak esan nahiko du demokrazia barruan gaudela eta ETAK hiltzeari utzi diola.

ETAK zer egiten duen begira dago PSOE?

Ez. Gobernuak behin eta berriro esan du zein bide jarraitu behar den normalizaziora helitzeko: armak uztea eta elkarritzeta politikoa egitea.

Zergatik ez ditu gobernuak presoak hurbiltzen?

Espetxe politika gobernu zen-tralak darama. Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren



Arrasateko PSEko zinegotzia eta Batzar Nagusietako kide da Paco Gartzia.

Eta PSOEk ez du inorekin harreman txarrik eduki gura.

Guztiekin duzu harreman ona?

Ez dut harreman txarrik inorekin, ezta PPrekin ere. Arrasateko Udalean, denekin dut harreman ona.

Nola gogoratuko duzu laster amaituko den agintaldia?

EAJk, EAk, EBk eta Aralarrek koalizioa egin zuten eta sendoa zela zirudien, baina garbi iku si da interesen araberakoa izan dela. Bakoitzak pastelaren bere zatia banatzen zuen, baina norbaitek pastelaren zati handiagoa nahi izan duenean, eskandalua sortu da. Zehaztasunetan sartu gabe, bakarrik esango dut hiri-gintzako kudeaketa oso txarra izan dela.

Bestalde, gobernu honek ez du ezertarako iniziatariek izan. Agintaldi honetan egin dituzten proiektuak, aurreko agintaldieitan martxan jarritakoak dira, ez EH, EB eta EA zeudenean bakkrik, baita EAJ, EA eta PSE zeudenekoak ere.

Arrasateko alkate izateko aurkeztuko zara maiatzaren 27an.

Bai. Ez naiz aurkeztuko besete 20 urtez oposizioan egoteko. Ilusio handia dut eta uste dut irabazi egin dezakegula, irabazi egingo dugula eta alkate sozialista buru izango duen gobernu berria gidatuko dugula. Esperantza dut hurrengo agintaldian bakea eta normalizazio politikoa errealkatzen direla, eta hori gertatzen denean Udalean egin nahi dut gainerako alderdi politiko guztiekin. Arrasateko alkate izateko desioa dut, bai.

Batasuna legeztatuta egongo da orduan maiatzerako?

Ez dakit, baina badirudi ez dutela nahi. ETAK tutelatuak iza-teari utzi behar diote eta demokrazian sartu behar dira. Udaletan egoteko eta politika egiteko gogoa badute, demokraziaren arauak onartu eta lege barruan ibili baino ez dute.

Koalizioa, norekin?

Koalizioa egotekotan, hauteskundeak egin ostean egongo dela, ez aurretik.

Zerrendak osatu dituzu?

Otsailean hasiko gara horretan, baina banabil izenak batzen, bai. Berdin hauteskunde programarekin.

PROZESA

"Gobernua lege barruan dagoena egiten ari da, beste batzuek eman behar dituzte pausoak"

gobernuek egindako espelte politika ere badago, eta hainbat aztertu behar dute politika hori nola gauzatu. Presoak hurbilago ekarzteak egoera hobetzen lagunduko duen edo ez, ez dakit, baina garbi dago estortsioak, kale borrokak eta zuzenbidezko estatua desafiatzen jarraitzeak ez dutela lagun-

PRESOAK

"Presoak hurbiltzeak ez dakit egoera hobetuko duen; azken gertakariekin ez"

duko presoak hurbiltzen, ezta besete politika batzuk egiten ere. PPk ez badu jarrera aldatzen, harremanek txarrak izaten jarraituko dute? Momentu honetan, harreman txarra dute, bai. PP bake prozesuaren aurkako politika egiten

ARRASATEKO ALKATE

"Alkate sozialista buru izango duen gobernua gidatuko dugula uste dut"

ari da, manipulazioarekin eta gezurra-rekin. PPk eskatzen diodana da gobernuarekin batera lanean hasteko indarkeriaren arazoa konpontzeko. Ni herriko zinegotzia naiz, baina, maila nazionalean, alderdi bakoitzak erabaki behar du norekin eta nolako harremanak nahi dituen.



zabalik

Txipi Ormaetxea

Adinekoen gorazarre

a beti idea faltan, ideietan urri ibiltzen banaiz ere, bizpahiru gai etorri zaizkit bata bestearen atzetik. Eta, aukera eginda, gizarteko zaharrenen aldeko zerbaite idaztea bururatu zait.

Egun gutxi dira lagun batek kontatu zidala behin, Gasteizen ospitaleratua zela, galdu ziotela ea importa zitzaison gelakidezat adineko pertsona bat ekartzea. Lagun horrek, adinekoen berba egin zalea izanik, atseginez eman zuen bere oniritzia. Eta hor non datorkion 97 urteko gizon jatorra.

Hasi dira berba egiten, eta gizona berbaldun bikaina izan. Gazteek besteren artean gerra kontuez galdu dio, eta xaharrak hainbat kontu kontatu, zehaztasun handiz, baita fusilatutako batzuen izen-deiturak eman ere, *en la sierra* haren esanetan. Hemendik gertu, Araban.

Gaztea, lorian artxibo biziari entzuten. Aldi berean, gaztea ohartu da familiako batzuek (ez guztiek, eskerrak!) gizona erdi zorotzat jotzen dutela, eta ez diotela oso tratu ona eskaintzen.

Ospitalearekikoak amaitzean, gazteak agindu dio aurki bisita bat egingo diola etxera. Baino, sarri-sarri gertatzenten dena, handik denboraldi batera bisita egitea pentsatu duenerako, adineko joana da mundu honetatik. Eta berarekin artxibo bat, mundu oso bat. Eta gero, jakina, damua eta pena lehenago ez akordatu izanagatik.

Nago ez ote diegun jaramon gutxiegi egiten gizarteko zaharrenei. Badira kulturak komunitateko zaharrenak begirunez hartzen eta tratatzen dituztenak, haien esanak aintzat hartzen dituztenak, baina ez dut uste gurea horrelakoa denik.

Eta esango nuke kontua gero eta okerragora doala (ederra datorkiguna!). Haiengandik ikas dezakegungatik besterik ez bada ere, uste dut merezi duela haienganako interesa, arreta eta maitasuna adieraztea. Ala ez?

"Adineko joana da mundu honetatik eta berarekin artxibo bat, mundu oso bat"

"Nago ez ote diegun jaramon gutxiegi egiten gizarteko zaharrenei"

Goienkaria

Argiratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herrrialdeko), Edu Mendibil (Gza), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altxe, Xabi Urtzeta, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirrezailegi Oinarritzko diseinua Goi Araia Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mirela Larrañaga, Amaia Mundiniano, Zortza Martin, Imanol Elortza, Itxaso Bereizbar Testuaren zuzenketak Sergi Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaiztaran, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZAIKALEK



Eusko
Jaurlaritz



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatioko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

GOIENKARIK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarra galdezka

MEDIKU ZITA INTERNET BIDEZ
Familia medikuarekin eta pediatrarekin zita Internet bidez eska daitekeela entzun duen irakurle batek galdu nahi du nola egin behar den eskaria.

Osanet-en orrialde nagusian (www.osanet.euskadi.net) hizkuntza hautatu ondoren, *Zita medikoa* lehoan klikatu behar da. Hitzordua Osasun Txartel Elektronikoaren edo normalaren bidez egin daiteke. Txartel elektronikoa izanez gero, datu pertsonalak ez dira eman behar; txartel normala erabiliz gero, zenbakia, iraungipen data eta jaiotza data sartu behar dira. Behin datuak sartuta, *Onartu* botoia klikatu eta ondoren, hitzordu eguna zehazteko bi aukera izango dira: libre dagoen lehen tarteak aukeratzea edo eguna hautatzea (gehienez, astebeteko epean), eta, nahi badugu, hitzordua zein ordutatik aurrera hartu nahi dugun. Berri *Onartu* botoia klikatu eta emandako hitzordua agertuko da. Ados egonez gero, *Berretsi* klikatuko dugu, eta, ezezko kasuan, berriz egingo dugu eskabidea eta aplikazioak beste

hitzordu bat erakutsiko digu. Egoki deritzogun hitzordua lortutakoan *Berretsi* botoia klikatu eta aplikazioak ahalbidetzen du hitzorduaren egiaztagiria lortzea, deuseztatzea edo jardunaldia amaitzea.

Sistema horren bidez, 300etik gora osasun etxe eta kontsultategiren eta 1.457 medikuren agentak gestionatuko dira. Hala, hitzorduen gestioan erabiltzen den denbora murriztea da asmoa.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

ABANDONATUTAKO AUTOAK
Herritar batek galdu digu abandonatuta eta aparkalekuak betetzen dauden autoekin ea zer egin duten.

Bergarako udaltzain-buruak esan digunez, "egoera txarrean eta abandonatuta dauden autoak ikusiz gero, jabeari jakinazten diogu lehenengo. Erretiratzeko asmorik azaldu ezean jakinazpena bidaltzen diogu etxera esanez, ordenantzen arabera autoa kendu egingo dugula dagoen lekutik. Ordenantzek diote gurpilak zulatuta, beirak apurtuta... abandonatutako zantuekin dauden autoak hondakin solidotzat hartu behar direla; beraz, edozein uinetan udaltzainok kendu egin dezakegula". Hala ere, auto guztiak ez dituztela erretiratzen. "Autoen biltegia ez dago behar bezala egoikituta; beraz, oso gaizki daudenak baino ez ditugu jasotzen. Umeendako arriskutsuak direnak, esaterako. Biltegian kontrolik egon ezean, autoak bertara eraman eta zerbaite gertatuko balitz erantzukizuna gurea izango litzateke. eta hori saihesteko batzuk baino ez ditugu erretiratzen".

marrakiz

Unai Busturia



blog-top

Ollarraren itzala

Imanol Murua Uria

www.berria.info/blogak/imanol

Nafarroa abertzaleen mende eror ez dadin UPNri sakrifikatzeko eta, behar izanez gero, PSNri gobernu lehendaritzat emateko eskatuko omen dioten presio taldeez ari zenean, izen bakarra aipatu zuen Juan Cruz Allik atzoko elkarrizketan: "Uranga jauna". Urralburu, lapurra izanagatik, Nafarroaren defentsan lehendakari onena izan zela esana delako nabarmendu zuen Allik Jose Javier

Uranga, *Diario de Navarra*-ko zuzendari ohia. Bere liburuan ere askotan aipatzen du Allik Uranga -edo Ollarra, goitizentz horrekin sinatu baitzituen urtetan bere artikuluak, Cordovillako egunkariaren izenezan: "Si el PSOE se alía con ese barullo de siglas que componen Nafarroa Bai: (...), e incluso Batasuna si se presenta, sería un desastre".

Ita, hara!, gaur *El Mundo*-k elkarritzeta egin eta lehenengo orrialdera ekarri du *Ollarra*, 81 urteko kazetari erretiratua, duela 28 urte ETAren atentatu batean larri zauritutako bera. Alliren tesi konfirmatzen datorrela ematen du. Batetik, Urralbururena berriro esaten du, lapurrena aipatu gabe bada ere: "Urralburu fue uno de

los mejores presidentes que ha tenido Navarra para defender su personalidad". Eta bestetik, UPNren eta PSNren arteko hitzarmena eskatzen ari da, hondamendia eragoztearen izenezan: "Si el PSOE se alía con ese barullo de siglas que componen Nafarroa Bai: (...), e incluso Batasuna si se presenta, sería un desastre".

Bitxia, bestalde, lurralte batasuna nahiko genukeenon arrazoiez Urangaren ikuspegia: "(...) Porque no pueden vivir sin Navarra. No tienen sitio. (...) Aquí hay huerta, Pirineo, frontera con Francia... y ellos no tienen nada".

Zubiaurre-Martoko

Iker Gantxegi Ramirez
Bergara

Bergarako Zubiaurre eta Martokoko bizilagunen desadostasuna eman nahi dut aditzera. Arazoak ugoriak dira, esango nuke betidanik. Baina, azkenaldian, bida gure artean beste sentsazio bat: impotentzia edo guganako mesprezua.

Arazoak arazo, bi dira eskutitz hau idazteria bultzatu nauten gaiak: lehena, Martoko kalean dugun haurrentzako jolas parkea. Orain dela urte batzuk jarria eta bai Espaloiko, bai Poligonoko eta beste toki batzuetakoaren egoera berdinian dagoena, baina hego haizeak horrela jo duelako gure Udaleko paretetan aldatuko ez dena. Zergatik ez? Nire ustetan, egoera berdinean egonda zer gutxiago Udalaren partetik aldatza baino. Gutxienez, bertako auzo-lagunek ahamtuak izan direla pentsa ez dezaten. Baina zertarako disimulatu! Proposatzen diot Bergarako Udalari, bereziki gai honetako buru denari, aditzera emateko jolastoki berriak ez jartzearen arrazoiak argi eta garbi.

Jakinaren gainean jarri nahi dut toki hura Udaleko langileek garbitzen dutela, publikoa izango den seinale. Gai honen gainean ere, ez dut uste asko eskatzea izango litzatekeenik jolastokia bera argiztatzea.

Nire bigarren ardura zera da: kalea ederki asko margotu dutela Udaleko langileek. Barkatu, gezurra, horretan dihardute oraindik! Egun batzuen buruan, kalea horiz (aparkatu ezin den seinale) eta zuriz (zebrabideak, aparkatu ezin den seinale baita ere) margotuta topatu dugu. Eskerrik asko Udalari gutaz oroitzearen. Baina, oroitu ez bazine te hobe, ezta?

Guretako, bertako bizilagunendako, arazo larri bat da autoak aparkatzearena, eta uste dut bertan bizi eta arazoak bizi zeak baduela bertatik autoan pasatzen denarekiko eskubide bat. Zergatik? Bertatik pasatzea norberak hartzen duen erantzukizun bat da. Ez al daude Arrasatera edo Antzuola aldera joateko bide hobeak?

Gaiaren harira bueltatz, kalea margotu eta gero, lehengo arazoak ez da konpondu bertako bizilagunendako, arazoak gorritu egiten da, aparkatzeko tokia gutxiagotu egin delarik nabarmen. Kalea txukunago, noski! Baina, bizitzako arazo desberdinaren bezala, ez al da oreka bat egokiena? Kalea txukundu

Euskararen izenean, milesker

Itxaro Artola (Arrasateko Euskalgintzaren izenean) > Arrasate

Arrasateko Euskalgintzaren izenean milesker aldez edo moldez Euskararen Eguna antolatzen lagundu diguzuen guztiei; herria esnarazi zuen Txispasi; herriko gaztetxoak dantzari zituen Oihani; ekitaldi nagusia aurkezten zuten Jose Ramon eta Naroari; bertsoz jantzi zuten Xanti eta Aneri; kantuz amaitu zuten Goikobaluko ahots ederrei; pintxoetarako osagaiak eman zizkigutuen Bolintxoko Pili, Maala Berriko familia, Gorbea banaketak eta Eroski Hipermerkatuari; zozketatzeko materiala oparitu zigin Elkar megadendari; Zahar Berrikoentzako oroigarria egin zuen Felix Iturbe tailaginari; izozkien gurditxoa laga zigin SUDC batzordeari; Pako furgoneta gidariari; txistorra prestatu zuten Sonia, Naiara, Ainhoa, Olaia eta Mikeli; zerbitzari aritu ziren Oihana, Olatz, Iker eta Enrikeri; laguntzaile izan zituzten Maite, Saioa, Aitor eta Anderri; marrazkiak eta pankartak egin zituzten ehunka ikasleei eta beren irakasleei; antzerkirako etxea utzi ziguten AGAKOko gazteei; eta, jakina, eguraldi petralari aurre eginez Seber Altubera hurbildu zineten euskaltzale guztiei; milesker eta datorren urtera arte!

daiteke, eta nire ustez bazuen premia kale honek, baina zein da aparkatzeko beste alternatiba? Hemendik aurrera non?

Erantzuna nik emango dizuet: orain arte bezala jarraituko dugu marra horiaren gainean aparkatzen, ez baitaukagu beste irtenbiderik. Ez pentsa gure burugogorkeria denik. Nahiago nuke nire aitaren autoa toki txukun baten aparkatu, hurrengo goizean kolperik edo urradurarik eduki ez dezan.

Nire ustez argi geratu da zeintzuk diren arazoak, gehiago luzatzeak ez du merezi. Idatzi honen bitartez bere burua arazo honen errudun ikusten duenak erantzun dezala bi tokitan. Lehena eta azkarrena hurrengo ostiraleko GOIENKARIAN, eta bigarrenez kalean, arazo bizi eta jasaten dugun kalea.

Txuspi oriomenean

Markel Madinabeitia
Arrasate

Eskerrak eman nahi dizkiegu gugana eterri eta funtsean animalia bat zenaren aldeko maitasuna eta laguntasuna erakutsi dugutenei.

Konturatu gara gure txakur Txuspi oso maitatuta eta, batez ere, oso ezaguna zela herrian.

Hamaika zapatilla apurtu zenituen / Kalistroko San Txuspinetan / Handitzean zure larrudun bixeraz / Harroputz zinen benetan / Azken

urteetan txikiteroen maskota / Azeitunak eskatzen barrapetan / "Mala hierba nunca muere" diotenez / Beti biziko zara gure bihotzeten.

Gaur jai?

Mikel Irizar
Elorrio

Nire enpresak errespetatu egiten ditu egutegi ofizialeko jaiak eta nik ez daukat hori aldatzerik. Beraz, Espainiak bere konstituzioaren eguna ospatzan duen honetan, neuk ere jai daukat.

Berez, lege baten urteurrena ospatza bezain inoz iruditzen zait lauzpabost egun jai hartzea duela bi mila urte judu bat gurutzean iltzatu zutelako; edo uso batek eragindako ernalketa susmagarria jai egiteko aitzakia hartza, biogenetika laborategian ikertu ordez. Baita igandeari halako tratu berezia ematea ere, besterik barik gauza guztien egileak aurreko sei egunak behar izan omen zituelako nekatzeko, ahalguztudun eta nekaezina izan arren...

Aukeran, nahiago nituzke ospakizun naturalak: urtaro hasiera-amaierak; lorraldiak eta uzta egunak, edo konjuru gauak; edota, nola ez, kosmosaren adierazpen txundigarriak.

Baina, egungo egoera politikoak bereziki arbuiagarri egiten dit konstituzio espainiarren ospakizuna. Zinez uste dut gure gatazka konpontzeko giltza ezinbestekoa dela independentziarako aukera irekitzea; eta, hain juxtu, konstituzioa da aukera horren kontrakoek zirrikitu guztiek ixteko jartzen duten harresi igaro ezina. Nola ospatu trabaren eguna?

Alde ederrean bazkalduko dugu Gaintzabalen, Igartubeiti goialdean, Sarah eta Iñakirekin; ardo onarekin ospatuz lotzen gaituen adiskidantza gozoa, ez besterik.

Zorionak Aranzadiri

Joxemmanuel Larrañaga
Bergara

Bergarako Aranzadi Ikastolak hasiera bikaina eman dio Kilometroak 07ri. Izen ere, joan zen egubakoitzean Jam aretoan egindako hasiera ekitaldian 1.000 lagun elkartu ginen, Kilometroetako irudia, leloa, helburuak eta arropak erakusteko. Ibiltokian ikusi genituen guztiek jardun zuten ondo: aurkezleek, dantzariek, trikitilariek, bertsolariek, desfilean parte hartu zuten herriko famatuek eta baita ikastolako ikasle, irakasle eta familiartekoek ere. Eta, zer esanik ez, atzealdean dena ondo atera zedin lanean ibili zirenek ere. Kilometroetako arropa politak erakutsi zituzten eta entzun dudanez, desfilean ikusitakoak erostera jende piloa hurbildu da egun tan Kilometroetako dendara.

Dena beharko dute Aranzadikoek Kilometroak bezalako jaiak antolatzeko, baina gogoa eta kemenet ez zaiela faltako argi daukagu. Animuak, baina, hau hasi besterik ez da egin-eta.

Ilan egiteko asmoa duela, lelo berri bat asmatuta: *Berdintasunaren alde bazaude, tratu onen aldeko apustua egin*; eta azaroaren 25eko kontzentrazioan esku hartzera gonbidatu zituzten herriarrok. Gure hitzak hainbat hedabidean jaso zituzten eta horietako bakoitzak egokitzat hartu zuen espazioa eskaini zitun. Bitxia da azaroaren 24ko egubakoitzeko GOIENKARIAn (eskualde osoan doan banatzen dena eta jende askok irakurtzen dugu) plataformak egindako prentsurrekoan esandakoaren gaineko ezer ez aipatzea. Zuen egunkariak gaiari eman dion trataera ez da urria izan, hutsaren hurrena baizik, eta hori da zuen informazio estalduratik eta zuen konpromisotik salatu gura duguna.

Ez dugu uste *Asteleheneko Goienkaria-n* hilaren 25eko kontzentrazioaren gainean argitaratu zenuten argazkia eta testu laburra nahikoa ezta bidezkoa denik halako gai garrantzitsu baten aurrean: emakumeenganako indarkeria matxista.

ERANTZUNA

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako plataformaren izenean Rosa Urzelai idatzi duen gutunaren gainean, zera adierazi nahi du GOIENKARIK: gure arteko txarto ulertu batengatik ez zen aipamenik egin Arrasaten aipatu plataformak egin zuen prentsurrekoaren inguruan. Onartzen dugu gure hutsa izan zela. Baina, era berean, esan beharra daukagu gai horren gaineko albisteak argitaratu zela, nahiz eta Rosa Urzelairen gutunak horren gaineko aipamenik ez egin. Azaroaren 24ko GOIENKARIen 6. orrian, *Debagoiena* sailaren lehenengo orrian, tratu txarren aurkako nazioarteko egunaren harira, albistea egin zen, batik bat kontatuaz Debagoineko udalek biktamei laguntzeko dituzten zerbitzuak-eta. Onartzen dugu Arrasateko emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako plataformak gura beste ez geniola gaiari eskaini. Onartzen dugu, era berean, gaiak tratamendu sakonagoa eska zezakeela, baina gaiaren gaineko berria agertu zen GOIENKARIAn.

ZUZENKETA

Aurreko GOIENKARIAn, abenduaren 1ean argitaratukoan, Mikel Zubimendi Batasuneko kideari egingenielkarritzeta. Egindako galdera bat zen ea PPk kontra jarraitzen badu bakea lortzea posible ote den. Haren erantzunaren ostean, soberan zegoen okeurreko esaldi hau sartu genuen: "Era-kundeetan, eragiteko egon behar da, eta hori falta zen". Esaldi hori ez da Mikel Zubimendirena, eta egindako akatsa zuzentzeko dira lerro hauet.





Baster-Alde

Galartzauzoa / ARETXABAleta
943 79 24 58 www.baster-alde.com

Eskaintza

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkaleku

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobeak
- Janaria etxera eramatzen dizugu

Eguneko menua eta karta



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABAleta
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Tartufo

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

Eskaintza

- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneo menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobeak
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

Berezitasunak

- Arrainen aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

Egunero zabalik 5:30etatik aurrera



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneo menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zozt jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneo menua
- Ogitarrekoak
- Hamarretakoak


Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Herriak

Arrasate > 16-19 Bergara > 20-23 Aretxabaleta > 24-25 Eskoriatza > 26-27
Antzuola > 28 Elgeta > 29 Aramaio > 30 Leintz Gatzaga > 31



> ARRASATE
Iristear dauden Santamas jaien egitaraua aurkeztu du Udalak > 17



> BERGARA
Kristaleko auditorioa eraiki behar dute Seminarioan > 20



> ARETXABAleta
Ilargi plazako edukiontziaik lurperatzen hasiko dira asteon > 24



> ESKORIATZA
Indarrean jarri dute 31 etxebizitza tasatuen prozedura > 26

ARETXABAleta > BEINKE EUSKARA ELKARTEAREN XX. URTEURRENA

Beinke: 20 urte Aretxabaletan euskara biziberritzten eta indartzen

BAZKIDE UGARI

Elkartearren bigarren bazarrean, 85 lagun egin ziren bazkide

APARKALEKUAK

Loramendi ikastola eta Beinke elkartea 1994an elkartu ziren

UBANE MADERA > ARETXABAleta

Hogeitareta atzera egin behar dugu Aretxabaletako euskara elkartearren jatorria aurkitzeko: Beinke –orain Loramendi da–. Dabid Agirre –Beinkeko lehenengo presidente– eta Jasone Gorroñok –hasiera-hasieratik dabil euskara elkartean– lagundu digute ibilbide horretan: "AEDren inguruan biltzen ginen batzuk; proposatu ziguten ea Aretxabaletan ez litzatekeen elkartea bat sortuko". Esan eta egin. 1986ko azaroan elkartu ziren 15 bat lagun, gaur egun Euskal Herriko Kulturaren bulegoa dagoen lekuaren. Euren artean hasierakoak pentsatu eta deialdi zabala egin zuten gero: "Sustoa hartu genuen, 85 lagun agertu ziren-eta. Batzar hartatik atera ziren 85 bazkide!".

Han finkatu zuten, baita ere, zelako elkartea gura zuten, euskara bultzatzeko: "Ibarrean zeuden bi eredu: bata AEDkoa, kultura elkartea modura; eta bestea Bergarako Euskal Herriko Euskaraz-en modukoa, salaketa taldea. Erabaki genuen kultura elkartea moduan eratzea, nahiz eta barruan bagneukan salaketa taldea. Egoera hartan deitu genuen batzar hura, 85 lagun agertu zirenko. Abenduan". Beinke izena Patxi Lazkanok proposatuta aukeratu zuten, jende askok ez zuelako berba hori ezagutzen Aretxabaletan.

BESTELAKO EGOERA

Gogoan dute sortzaileek Aretxabaletako orduko egoera bestelakoa zela: "Herrian ez zen euskara horrenbeste egiten. Argi geneukan kultura elkartea ginela, baina ginen presio talde bat, baita ere. Adibidez, ez zen ikusten udaletan



ELKARTU Beinke eta Loramendi elkartu zirenko; batzar eragileko kideak dira, udaletxe aurrean.

LORAMENDI E.E.

euskara batzordeen beharrik. Guk bultzatu egin genuen hori".

Desberdina zen, baita ere, euskara elkarteen egoera: "Ez zegoen ez diru, ez azpiegitutarik, borondantzko zen; baina orain baino askoz jende gehiago genbiltzan...". Eta lanerako gogoari esker, Beinkek aurrera egin zuen.

1987an egin zuen lehen agerraldia: Euskararen Eguna. Handik aurreera, ez zuten geldiunetik izan: Oskorri eta Pantxo eta Peio ekarri zituzten, ehunka ume mobilizatu, afariak, bazkariak, lehiaketak...

1993a iritsi ziren horrela. "Momentu hartan, Euskal Herriko herri eskolak eta ikastolak elkar-

tza proposatu zuten. Aretxabaletan esperientzia pilotua egin zuten lehenago. Eta oso ondo irten zen; 12 urtetik beherako ume guztiak euskaraz egiten zuten. Dena den, batzarra egin zuten aurrera zela egin erabakitzeko. Eta erabaki zuten Aretxabaletan eskola publikoa izatea. Batzar hartan bertan

Elkartearren izen bera duen dantza: Beinke-Loramendi

Beinke eta Loramendi elkartu zirenko beste ondorioetako bat da Beinke-Loramendi dantza. Bi elkarteen batzea irudikatzen du. Asmatu zuen Loramendi dantza taldeak eta Jose Ramon Vitoria arrasatearrak musika ipini zion. Lehenengo dantzaldia 1994ko San Migeletan egin zuten.

Harrezkero, urtero dantzatu dute. Bainazken bi urteotan hoztu egin da partaideen gogoa eta ez dute dantza hori egin. Aurten ikusi ahal izango da berriro, urturreneko ospakizunen barruan. Eta aurrerantzean, batek daki.



Loramendi izeneko dantza egiten, Herriko Plazan.

LORAMENDI E.E.

proposatu zuten Ikastolak bazkidekin zuen indarra (euskararen aldeko) bideratu egin behar zela nolabait. Euskara elkartearren alde egin, eta proposatu zuten Ikastolaren bazkideak euskara elkartera pasatzea".

Harrezkero, Loramendi Euskara Elkartea Beinkeran lekuoa hartzeta eta lanean dihardu: hortik eratorri dira Tril Emakume Elkartea, ludoteka eta beste ehunka ekimen. Pozik daude elkartea 20 urte bete dituelako eta euren lana oso baliotsua dela ikusi dutelako. Bainaz hautsarketa ere egin gura dute: "Euskararen egoera asko hobetu da, baina dabil atzera egiten. Lasaitu egin gara larregi eta oso normala da plazan espainiola entzutea. Oraindik badugu zeregina, duda barik". Eta horretan jardungo dutela ziurtatu digute. Etxean, kalean... Aretxabaletan.

ELKARTU ZIRENEKOA

Bukatzeko, ezkerreko argazkiak erakusten du Beinke eta Loramendi elkartu zirenko. Hauetan azaltzen dira, ezkerretik eskumara, atzean: Patxi Lazkano, Karmele Igartua, Juanjo Arabaolaza, Jon Iñaki Isazelaia, Mila Zubizarreta eta Jasone Gorroño. Aurrean, berriz: Jose Maria Sarasua, Maia Etxabarria, Alberto Trojaola, Jon Antxita eta Julen Zuazabeitia.

Abenduaren 15ean da jaia

Antzerkia

17:30 Ludotekakoek Kutsidazu bidea Ixabel antzeztuko dute Kurtzebarri eskolako aretoan: 18:00etan, berriz, buruhandiak aterako dira. Eta 18:30ean, txokolate-jana egingo dute

Historia

19:00etan, plazan Beinke-Loramendiren historia kontatzeko performance-a; eta gero, Beinke-Loramendi dantza.

Pala txapelketa eta afaria

19:30ean, Jotzko prest! txapelketaren finala, Iturrigorri; 20:30ean, potea eta 21:30ean, afaria, Taberna Berri. Txartelak Loramendin salgai (30 euro).

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

| | | | |
|-------------------|-----------|-----------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Corcueria | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Domeka, 10 | Irizar | Erguín 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehenetik, 11 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 12 | Español | Araba 14 | 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 13 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 14 | Zabola | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Egubakoitz, 15 | Azkoaga | Ferreras 1 | 943 79 15 15 |

BERGARA

| | | | |
|-------------------|---------|----------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 10 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehenetik, 11 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 12 | Camacho | Oixorondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 13 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 14 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitz, 15 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

ONATI

| | | | |
|-------------------|-------------|----------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 10 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehenetik, 11 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 12 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitz, 15 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

ARETXABAleta

| | | | |
|-------------------|------------|--------------------|--------------|
| Zapatua, 9 | Iturrealde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 10 | Iturrealde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehenetik, 11 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 12 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 13 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 14 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitz, 15 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

| | |
|--------------------------------|--------------|
| Osakidetza (Larraldia)..... | 943 46 11 11 |
| DYA (Antzuola)..... | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria (Elorregi)..... | 943 76 55 76 |
| Suhiltzaileak..... | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza..... | 943 53 47 20 |
| Oasun Etxeak | |
| Arrasteko ospitala..... | 943 03 53 00 |
| Antzuola..... | 943 76 62 23 |
| Aramaio..... | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 19 59 |
| Bergara..... | 943 03 54 00 |
| Elgeta..... | 943 03 54 00 |
| Eskoriatza..... | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Onati..... | 943 03 54 30 |
| Udalzainoak | |
| Antzuola..... | 943 76 62 46 |
| Arrasate..... | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 18 63 |
| Bergara..... | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza..... | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Onati..... | 943 78 04 11 |

GARRAIOAK

| | |
|-------------------|--------------|
| PESA..... | 902 10 12 10 |
| Taxiak..... | |
| Arrasate..... | 943 79 12 22 |
| Aramaio..... | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta..... | 943 77 12 64 |
| Bergara..... | 943 77 91 22 |
| Eskoriatza..... | 943 71 40 59 |
| Onati..... | 943 78 03 65 |

DEBAGOIENA

| | |
|-----------------------------|--------------|
| Mankomunitatea..... | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga)..... | 943 78 15 12 |
| Nekazaritza ganbera..... | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa..... | 943 76 58 63 |
| Hondakindegia alternatiboak | |
| Arrasate..... | 943 77 11 43 |
| Bergara..... | 943 76 44 42 |
| Onati..... | 943 78 36 67 |
| Kirodegiaik | |
| Aramaio..... | 945 44 53 35 |
| Arrasate..... | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 26 28 |
| Bergara..... | 943 76 56 41 |
| Elgeta..... | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza..... | 943 71 53 28 |
| Onati..... | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola..... | 943 76 60 65 |
| Aramaio..... | 945 44 53 74 |
| Arrasate..... | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 10 27 |
| Bergara..... | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza..... | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Onati..... | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola..... | 943 76 62 46 |
| Aramaio..... | 945 44 50 16 |
| Arrasate..... | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 18 62 |
| Bergara..... | 943 77 91 00 |
| Elgeta..... | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza..... | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Onati..... | 943 78 04 11 |

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uriarrbi, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregón, Obenurreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenurreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uriarrbi, Erguín A eta Gorostiza.

DEBAGOIENA

ZUBEROAKO BI IKASTOLA-RI IAGUNTZEKO OTZARAK

Zuberoako Basaburu eta Eperra ikastolek Gabonetako otarreak saltzen dituzte hango hainbat produkturakin. Erosteko, deitu 943-79 20 24 telefonora edo bidali mezua mendibitzu@euskalnet.net helbidera.

BERGARA

San Lorentzo/San Juan dink irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torre), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluze), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonoma-toan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolio (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietza, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz | Arrasate |
|----------|---------|---------|----------|
| 07:00 | 07:15 | 07:50 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | | |
| 11:00 | 11:15 | | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 | |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 | |
| 17:20 | 17:35 | | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 | |
| 19:00 | 19:15 | | |
| 21:10 | 21: | | |

kale inuesta

Zein plan daukazu asteburu luze honetarako?



Javier Lillo
Langilea
Madril



Karmele Uribesalgo
Ikaslea
Bergara



Eloy Crespo
Ikaslea
Bergara



Selena Lizarzaburu
Langilea
Bergara



Lourdes Larramendi
Langilea
Elorrio

Madrildik etorri gara eta Oñatin gaude lo egiten; familia dugu Oñatin eta Bergaran. Orain, Bergara bisitatzen eta egora gara eta gero kostaldera joango gara. Interneten begiratu dugu zer bisitatu.


Jai daukat, baina oraindik ez dut planik. Lagun batzuk kanpora joango dira, baina beste batzuk ez. Batuetan eskiatzera joateko aprobetxatu izan dut. Aurten hemen gustura ibiliko naiz.

Zapatuan kinto afaria dugu; beraz, hemen geratuko naiz. Akaso Durangora joango gara, azoka ikustera, baina ez parranda egitera. Libururrik ez dut erosiko, CDren bat akaso.

Ile-apaindegira joango naiz, kirola egingo dut eta marratztu ere bai. Bergaran geratuko naiz. Eguraldi ona egiten badu, bueltatxoa bat emango dut amarekin; akaso Durangora joango gara.

Lan egin behar dut, Tximeleta dendakoa naizeta. 06:00etan hasi naiz, 23:00etan amaituko dut, bihar jarraitu... Halakoak okerragoak dira, lana berdin egin behar eta jende gutxiago dabil.

txaloak eta txistuak



ALEX AZKARATE

Ibilgailuak abiada handiegian



Bergarako Urteaga kalearen gaineko kexu bat bidali digute. Gure irakurleak dio ibilgailuak abiada handiegian pasatzen direla handik eta oinezkoendako arriskutsua dela. Uste du egoia izango litzatekeela abiadura murrizteko bandak ipintzea edo beste neurriren bat hartzea.

asteko datua

200

Egunotan, Amaia antzokian 200 neska-mutiko baino gehiago dabilta, Arrasateko akordeoi lehiaketetan. Horiez gain, nazioarteko punta-puntako 19 musikari ere lehiatuko dira. Hauspoz elkarreak antolatuta.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

5 galdera...

Susana Aiastui

Jakion
Leintz Gatzaga

1. Gabonetan otarreak operatzeko ohitura oso hedatuta dago gure ibarrean?

Dago hedatuta, gehienbat enpresetan, bezeroei begira. Herritarrok azken urteotan hasi dira otarreak operatzen. Norbaitenkin detaile txiki bat izan nahi duzunean, askotan da zaila asmatzea. Aldiz, bertako jakiek beti asmatzen da. Beste edozer eraman beharrean, ardo botila, kontserba batzuk... operitza ondo geratzen da. Edo turismoko produktu moduan, kanpotik datozenei operatza... Gu hasi ginen orain bederatzi urte, Fagorren. Inguruaren genituren produktuekin lotetxo batzuk prestatu genituren eta urtekin eskaintza osatzen joan gara; orain handiagoa dugu.

2. Bereziki, nora banatzen dituzue otarreak? Euskal Herritik kanko bai?

Euskal Herritik kanko zerbaiz banatzen dugu, baina bereziki inguruaren: enpresak, komertzio txikiak, MUrekin urtero egiten dugu lan, Jaurlaritzarekin ere egin izan dugu...

3. Baserriko produktuak sartzen dituzue; zela aukeratzen dituzue?

Gura izaten dugu bezeroak eskaintzatxa izatea. Aukeran ematen dizkiogu produktuak: marmelada, irasagarra, ardo botila edo txakolin botila, Idiazabalgo gazta, kontserbak, Gorrotxategiko turroiak, euskal txerrikiak, patea, Ibarra piperrak... Nahi dituen aldaketak egin ditzake bezeroak.

4. Zelako prezioa du detailetxo bat egiteko otarre horietako batek?

Otar simpleenak honako du: erreserbako ardoa, marmelada potea, barazki kontserba, eta hori guztia estutxe baten sartuta. Balio du 26 euro gehi BEZA.

5. Zuk zeuk zer estimatuko zenuke halako otarretoxo batean?

Halako gauzak asko gustatzen zaizkit. Aukeran, kanpoko produktuek osatutako otarre bat baino nahiko dud hemengoekin osatutakoak.



OBRAK > ERDIGUNEA ETA GOIKO AUZOAK LOTZEKO IGOGAILUAK

Ferixalekuko eta Altamirako igogailuen trazatuak onartu dituzte

Abenduko osoko bilkurak onespena emanet gero, lehiaketa deituko dute

UBANE MADERA > ARRASATE
Laster, Altamira, Makatzena, Santa Marina eta Obenerreka auzo ingurueta joatea dezentro erosoagoa izango da Arrasateko biziagunendako, Udalak ipiniko dituen hiru igogailuei esker.

Joan den martxoan ezkerro dabilta proiektua lantzen Udalean. Hain justu ere, egitasmoa jendaurrean aurkeztu zuten, eta bi alegazio edo iradokizun izan zituzten.

ZERBITZUA HOBETZEKO
Batetik, kanposantura bidean bizi diren auzotarrek eskatu zuten Ferixalekuko igogailuak irteera izatea euren etxeetatik gertuago; hau da, Mesedeetako ikastetxearen ezkerreko aldera iristea; eta ez hasierako proiektuan proposatutako moduan: eskolaren eskumako aldera.

Bestetik, bigarren alegazioa Aralarrek aurkeztu zuen. Proposamenen bi geraleku izango dituen igogailua ipini beharrean, bi igogailu ipintzea, Altamirako bizilaginei zerbitzu hobeak emate aldera.

Bi alegazioak onartu egin ditu Udalak; eta haien arabera egoki zu du hiru igogailuen proiektua.



MOTAK Ferixalekuko igogailua izango da bertzika, ezkerreko argazkikoaren modukoa; Makatzenakoa, inklinatutakoa. GOIENKARIA

FERIXALEKUKO IGOGAILUA

Hori horrela, Ferixalekuko igogailua aterako da Amaia antzokian ondotik eta 23,85 metroko desnibela gaindituko du, Gernika pasealekuraino. 13 metroko zubi bat eraiki beharko dute igogailua eta pasealeku lotzeko. Eta pasealeku apurtxo bat gorago beste igogailu bat aterako da. Kasu horretan, 24,36 metroko kota gaindituko du, Jose Luis Iñarra kalearen 32. zenbakiraino. Puntu horretan, 62,50 metroko zubi bat

eraikiko dute, igogailutik Jose Luis Iñarra kalera iristeko.

Zortzi lagunendako lekuak izango du. Bertzika izango da.

MAKATZENAKOA

Hirugarren igogailua, berriz, Makatzena ingururaino iritsiko da. Kasu horretan aterako da Obenerreka eta Hondarribia kaleen artean. Bi geraleku izango ditu: bata pilotalekuraino eta bestea Makatzena kalera berraino. 15 metroko desnibela

gaindituko du igogailuak. Edo, bestela esanda, Makatzena ingurura iristeko dauden eskailerak eta aldatapak.

Igogailu hori ez da bertzika izango, inklinatutakoa baizik.

Esandako moduan, hiru igogailuen behin betiko proiektuari onespena eman beharko dio osokoak. Hala egingo gero, lehiaketa deituko du Udalak proiektua idatzia, igogailuak eraiki eta hamar urterako mantentze-lanak adjudikatzeko.

Ines Aldai eta Ander Rodriguez lekuko moduan doaz deklaratzaera; Lakuntza eta Loiti inputatu legez

U.M. > ARRASATE
Gelmaren auzia aztertuko dute Bergarako epaitegian. Izen ere, Inazio Lakuntza, Jose Mari Loiti eta Jabier Gibert inputatu egin

GELMA > EPAIKETA BAT ETA AUDITORIA

Alkatea astelehenean epaitegira

dituzte eta aurreneko biek deklaratu egingo dute, Ezker Batuaren erre kuntsoa dela-eta. Alkateak zera esan du: "Aurrekoan moduan, trahite kontua dela uste dut. Artxibatu zuteneko argudio berak era-mango ditut". 10:00etan hasiko dira deklarazioak hartzen.

KONTUEN AIZTEGIA

Gelmarekin jarraituz, EBk jakinarazi du Kontu Publikoen Auzitegiak Udalari auditoria egingo diola bi gairen gainean: legegintzaldian egindako hitzarmen gainean, eta aprobatxamendu urbanistikoan %10a dela-eta..

Horren harira, alkateak esan du Kontu Auzitegiak halako auditoria egitea "normala" dela; Gipuzkoako beste Udalei ere egingo dietela. Bestalde, gezurtatu egin du, EBk dioena: "Gelmako eraikuntzan, zergak barkatzeko borondatea duenik".

> EPAITEGIA
Epaitegiaren erantzuna herritarren kexuei

Joan den astean argitaratu genuen kexu bat esanez Arrasateko bake epaitegian ez dute la fotokopiarik egiten.

Bake epaitegikoek hori argitu gura izan dute honako oharrarekin: "Epaitegi honean beti dokumentu orijinalak eskatzen ditugu, eta, beharrezko balitz, haien fotokopiak egiten ditugu tramiteetarako. Herritarrek ez dituzte fotokopiak aurkeztu behar inolaz ere. Dena den, norbaitek bere kontu partikularrendako fotokopiak egin behar baditu, hau ez da lekurik egokiena"

> ZERBITZUAK
Alkatetzako telefonoa txarto argitaratu dute

Biztanleen Arreta Zerbitzutik abisatu dute esanez aurtengo Páginas Blancas delakoetan txarto argitaratu dutela Alkatetzako telefonoa: "Izatez, Alkatetzako zenbakia 943-25 20 01 da eta jarri duten zenbakia, berriz, 943-79 20 01 da. Arrasateko San Isidro elkarreta gastronomikoarena da, eta ez Alkatetzarena.

> POLITIKA
Hiru urteko kartzela zigorra bi gazterendako

Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrieta arrasatearrei hiru urteko kartzela zigorra ezarri die epaileak. Dena den, albiste hau idaztean oraindik eurei ez zieten ofizialki jakinarazi epai hori. Gauzak horrela, iragarri dute datorren astean prentsurreko egingo dutela, egoera argitzeko. Besteak beste, aurreratu dute seguru aski errektsoa ipiniko dutela bi gazteek.

Orain dela bi aste epaitu zituzten, Madrilen. Fiskalak sei urteko kartzela zigorra eskatu zuen, ustez ETARI lagundu diotelakoan; defentsako abokatuak, berriz, absolutioa.



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



TAPIZATU LANAK:

- SOFAK
- BESAUMLIAK
- AULKIAK
- ETA ABAR

Nafarroa etorbidea 23-MI-11

Tel.: 943 79 19 43/ 680 826 555



ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua

Espezialitateak:

legatz kokotxak eta txuletaak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

JAIAK > SANTAMASETAKO EGITARAUA ETA HORMA-IRUDIA

Santamasetarako guztia prest dute

Asteon jakin dugu Haritz Larrinagak irabazi duela horma-irudien lehiaketa eta Udalak dagoeneko prest daukala egitaraua

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Aurki datoaz Santamasak eta Udaleko Kultura Sailak guztia prest dauka. Are gehiago, astelehenean jakinarazi zuten zein izango den aurtengo Santamasak jantzi ko dituen horma-irudia.

Azkeneko urteotan bezalaxe, Udalak hartu du jai horiek antolatzeko ardura guztia. Aurretik Santamas Batzordiek egiten zuen lan hori, baina Udalaren eta batzordearen artean tirabirak izan zituzten. Hala, orain dela bi urte, Batzordien eta Udalaren artean hainbat batzar egin zituzten eta adostasunera

heltzeko puntuak egon ziren. Azkenean, baina, ez zuten halakorik lortu. Hala, azkeneko bi urteotan Santamas Batzordiek ez du Santamasetan ezer antolatzeko saiakerarik egin.

HARITZ LARRINAGAREN IRUDIA

Batzordiek jaiak antolatzen zituenean Olariaga marrazkilari ezagunak egiten zituen horma-irudiak. Azkeneko urteotan, berriz, lehiaketa deitu dute. Aurtengoan zazpi lan aurkezta dituzte eta Haritz Larrinaga aretxabaletarra izan da irabazlea; bada, irudi hori esku-orriean eta horma-irudietan erabili dute. Eta horren truke, Larrinagak 400 euroko saria eskuratuko du.

HILAREN 16TIK 31RA ARTEKOA

Santamasekin lotutako egitaraua hilaren 16an hasiko dute. Hain zuzen ere, Gabonetako egitaraua ere bada.

Hilaren 16an boulder txapelketa eta *Actto para la Noche Buena* ikuskizuna egingo dituzte.

Lehena Uarkapen, eta bestea Amaia Udal Antzokian. Azken hori Doke taldearen antzezlan berria da.

21 ETA 22, EGUN HANDIAK

Arrasate da munduko herri bakarra Santamasak 22an ospatzen dituena. Baino bezperan, hilaren 21ean, ere izango da zer ikusi. Potxin eta Patxin pailazoak, erakusleho lehiaketaren sari banaketa, erraldoi eta kilikien konpartsia, dantzaldia eta txerriaren aurkezpena egingo dituzte, besteak beste.

Hilaren 22an, egun handian, Arrasateko erdigunea baserritar giroko azoka erraldoi bihurtuko da. Seber Altube plazan fruta eta barazki erakusketa eta lehiaketak egingo dituzte; Laubildetako plazan, Debagoieneko gana duaren feria; Jokin Zaitegi plazan, artisauen erakusketa; Herriko Plazan, III. pintxo lehiaketa; eta osoko bilkuren aretoan, barazki, fruta eta pintxo lehiaketen sari banaketa. Horrez gain, Zaldibarren aizkolaria eta



SANTAMASETAKO IRUDIA Haritz Larrinaga da egilea.

HARITZ LARRINAGA

harri-jasotzaileak izango dira goizez eta eguerdiz.

20:00etan, AEDk bertso saioa egingo du Amaia Udal Antzo-

kian. Jon Maia, Maialen Lujambio, Freddi Paia, Manex Agirre eta Enaitz Alustiza arituko dira jaialdian.

ERAKUSKETA > MARGOLANAK

Teresa Iraola margolariak akuarelen erakusketa jarri du Harresi aretoan

Iraolak 50 bat akuarela jarri ditu zintzilik Harresi aretoan; hilaren 17ra arte egongo da ikusgai erakusketa

I.B. > ARRASATE
Teresa Iraola frantziarra da, baina urte asko darama Euskal Herrian bizi izaten. Txikitatik margotu du, eta 80ko hamarkadan ekin zion akuarelak egitea.

ri: "Jende askok akuarelak kolorre leunekin lotzen ditu, baina indar handia izan dezakete. Olio-ekin emaitza lortzeko buelta gehiago eman behar zaio; hau zuzenagoa da", azaldu zigun.

Iraolak erakusketa ugari egin ditu eta ehunka lan egin izan ditu. Harresi aretoan 50 bat lan jarri ditu ikusgai. Gehienak kostaldeko paisaiak dira, baina badira baserrietako ateak, oiloak, natura hilak, belar metak eta beste.

Naturak erakartzen du gehien; hori dela eta, mendia, zelaiak eta itsasoak margotzen ditu batez ere.



Teresa Iraola.

> JAIAK

Bedoña eta San Andres baserri auzoetakoek jaiak ospatuko dituzte oraingo aste bukaeran

Bedoñan jaiak ospatuko dituzte egubakoitzetik domekara bitartean. Egubakoitzean etxafuegoak, tortilla lehiaketa, eta mus eta briska txapelketak egingo dituzte. Zapatuan umeendako ekitaldi ugari, txokolate eta gaztaina janak eta auzo afaria egingo dituzte.

San Andresen, berriz, domekan izango dira ospakizunak: meza, mus txapelketa, nagusiei omenaldia eta bazkaria izango dira.

> URTEURRENA

Udal Euskaltegiaren 15. urteurrena ospatzeko afaria egingo dute ikasleek hilaren 15ean

Arrasateko Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu. Eta urteurrena ospatzeko, afaria egingo dute abenduaren 15ean. Aspaldiko lagun, irakasle eta ikasleak mahaiaren bueltan elkartuko dira Uarkapeko jatetxeen. Interesatuek euskaltegiko arduradunekin harremetan jarri beharko dute abenduaren 11 baino lehen, eta 23 euro ordaindu. Horretarako bi bide dituzte: telefonoaz deitu (943 79 70 77) edo e-posta mezua bidali (euskaltegi@arrasate-mondragon.net).

OGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KONTRATAK IRYOK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Bigarren zatian erakutsi zuen Ford Mugarrik gehiago zela

Arrasateko eskubaloitako taldeak 40-22 irabazi zion atzo azken sailkatuari, Zarautzi

Etxeko taldeak bigarren zatian hobeto defendatuta lortu zuen 18 goleko aldea

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Ford Mugarri Arrasatek atzo jokatu zuen aurreratutako norgehiagokan bi aurpegi erakutsi zituen. Eta, defentsa lana bakarrak hartuko dugu kontuan. Lehenengo zatia ikusita, nekez asma zitekeen bi taldeetako zein dagoen sailkapeneko azken postuan. Hala, azkeneko bi norgehiagoketan -Elgoibarren eta Lea Corazonistasesen kontra- taldeak erakutsi duen sendotasuna erreferentzia hartuta, atzoko lehenengo ordu erdia ahazteko modukoa izan zen.

Zarautz behin bakarrak aurreratu zen markagailuan, lehenengo minutuetan izan zen hori, eta poliki-poliki Balerdiren eta Fertxuren mutilek aurrera egin zuten (9-7, 12-9). Hala ere, defendatzerakoan Arrasatek ohi baino erraztasun handiagoak eman zizkion kontrarioari, eta horri esker eutsizion Zarautzak lehenengo zatiari. Hala, markagailuak 19-14 erakusten zuenean erretiratu ziren jokalariak aldagelara.

BIGARRENEAN, ZUZENDUTA

Bistan da Arrasateko entrenatzaleek atsedenaldiiko minutuak defentsa zuzentzeko aprobetxatu zutela. Aldagelatik irteterakoan Arrasateko Igor atezainak egindako keinuak erakusten zuen ez zegoela taldekideek defentsan egindako lanarekin konforme. Ordura arte Zarautzak errazegi jaurti zuen 6-7 metrotik, eta hori zen geratu beharrekoa.



GAKOA, DEFENTSAN Arrasatek erasoan antzera jokatu zuen, baina defendatzerakoan alde galanta egon zen. XABIER URTZELAI

Horretan bakarrak hobetuta, bigarren zatiak ez zuen lehenengo goarekin zerikusirik izan. Zarautz gogor kantxaratu zen, erasora. Eta, lehenengo minutuetan Ford Mugarrik ondo jakin zuen itxoiten. Ordura arte izan ez zuten intentsitatearekin defendatuz, Zarautzak Arrasateko jokalariz osatutako harresiarekin egin zuen topo. Eta orduan bai, orduan antzeman zuten Iturrieko zaleek aurrean zegoen taldea Ford Mugarri zela.

Zarautzak hamabost minuto behar izan zituen gol bat egiteko, hamabost; eta bitartean, etxekek baloia lapurtu, kontraera soa antolatu eta gola, bata bestearren jarraian (22-15, 22-16, 32-16,

39-21). Ordurako Zarauzko hainbat jokalari pazientzia galtzen hasita zeuden, eta, hain zuzen, epaileak euretako bat aldagelara bidali zuenean bidea gehiago erraztu zuten (40-22).

DOMEKAN BASAURIRA

Atzoko garaipenarekin Ford Mugarrik dagoeneko 14 puntu ditu. Eta, lehenengo itzulia amaitzeko oraindik beste bi puntu daude jokoan, domekan Basaurin (12:15). Arrasateko bi entrenatzaleek badakite Basaurin taldeak hasieratik hasi beharko duela ondo, aurrealdean dauden taldeek ez dute-eta okerrak zuentzoko astirik ematen: "Berdin kantxaratuta sekulako jipoia

jasoko dugu", esan digu Balerdik. Fertxuk ondo ezagutzen ditu Basaurik dituen jokalari garantzitsuenak: "Bi jokalari daude Asobalen jokatu dutenak. Lehen astezaina da, Alberto. Arraten ibili zen jokatzen, eta Gorka Pecina, berriz, Barakaldon izan zen. Bi jokalari horiek asko baldintza dezakete norgehiagoka".

Domekako norgehiagokarekin amaituko du Ford Mugarrik lehenengo itzulia, eta liga hasieran pentsatu baino hobeto iritsiko dira erdibidera. Horrenbestez, bigarren itzulirako Arrasateko jokalariek ikasi dute zerbait: Euskadiko Txapelketa euren neurriko kategoria izanda, aurrean egon daitezkeela.

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

LEHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUA
AGR
Garcia Ripsa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 beheha (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoa eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoa
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiaiak

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK

K21

Arotz lanak orokorrean
• Horma armairuak
• Altzariak • Leihoa • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerlek zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

> ATLETISMOA
Anoetan eta Lazkaon izango dira hurrengo hitzorduak

Bolunburuko krosoan emaitza onak erdietsita, Arrasateko atletek Anoetan eta Lazkaoko krosoan izango dituzte oraingo asteburuko hitzorduak. Zapataua parte-hartze irekiko saioak egingo dituzte Anoetan, eta domekan egingo dute Lazkaoko krosa.

Joan den asteko krosari dagokionez, azpimarratzeko modukoak dira Jon Aranburuk (hirugarrena alebinetan) eta Martin Berrizbeitia (hirugarrena kadetan) eindako lasterketak. Bosgarren sailkatu ziren bai Markel Blanco juniorra eta baita Maria Jose Gil beteranoa ere.

Bestalde, Iñaki Etxagibelek martxoan Zaragozan egingo duten Espainiako Txapelketarako txartela lortu zuen Anoetan, 60 metroko lasterketan 7,29 segundoko marka eginda. Bere marka pertsonala hobetu zuen.

> ZALDIBAR
Atseden hartu aurretik hiru jokalari zigortu dituzte

Oraingo asteburuan Zaldibarko txapelketan ez da jardunaldirik egongo.

Dena dela, badago zer kontaktu, joan den asteburuak eman zuen-eta zeresana. Antolatzaleek hiru jokalari zigortu dituzte, baina jakin, abisua jaso duten taldeak askoz ere gehiago direla. Hala, Dublineko, Iluntzeko eta Billy & The Cowboys taldeek Kopako kanporaketa jokatuko dute Zaldibarren.

> XAKEA
Iñaki Etxagibel izanda, kadetan, Gipuzkoako onena

Domekan irabazi zuen Iñaki Etxagibelek Gipuzkoako xake txapelketa. Azken jardunaldian Diego Olmo eibartarraen kontra neurtu zituen indarrak, eta pieza zuriekin jokatuta, Etxagibelek hasieratik izan zuen partida kontrolpean. Partida luzea izan zen, eta azkenean bi xakelariek berdinaketa adostu zuten; Arrasatekoak ez zuen gehiago behar.

Gipuzkoako txapela eskuan, San Andres taldeko xakelariak erakutsi du infantil mailatik kadetara ondo egin duela jauzi. Joan den denboraldian Euskadiko txapelketa izan zen, eta Caceres-en jokatutako Espainiako Txapelketan lehiatu zen.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

hemen □ bada
giro!

EZKUTU
TABERNA

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABAleta Tel: 943 79 92 01

TRLUTZ
TABERNA

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABAleta Tel.: 943 79 32 34

IOSU
taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.. 943 77 03 08

EXPRESS TABERNA

Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43

Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE
Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABAleta 943 77 07 94

Dorleta
DORLETA TABERNA

Loteria primitiboak eta kinielak

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABAleta

HIRUSTA JATETXEA

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

Orly
aretxabaleta

Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

Gurea
TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel: 943 79 20 64

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABAleta
Tel.: 943 79 88 95

Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68

ZERBITZUAK > 2007AN HASIKO DITUZTE LANAK

Kristalezko izango da auditorioa

Aldundiak 1.750.000 euro emango dizkio Udalari lanak egiteko; kostu osoaren %27,82

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Errege Seminarioan auditorioa egiten hasteko hitzarmena sinatu dute asteon Gipuzkoako Aldundiak eta Bergarako Udalak. Joxe Juan Gonzalez Txabarri ahaldun nagusiak eta Victoriano Gallastegi alkateak sinatu dute hitzarmena. Akordio horrekin, 1.750.000 euro emango dizkio Aldundiak Udalari proiektu hori egiteko, kostu osoaren %27,82. Gainerakoan, udalak jarriko du.

KUTXA BARRUAN

Seminarioko elizan egingo dute auditorioa. Plazatik izango du sarrera eta barruan kristalezko kutxa handi bat egingo dute, eta hantxe egingo da auditorioa: eszenatokia eta ikusleak egingo dira kristalezko kutxaren barruan. "Elizak akustika ona du, baina kristalezko kutxa barruan soinua hobea izango da. Horixe da diseinu horren arrazoia, soinu ona egotea", azaldu du Gonzalez Txabarri ahaldun nagusiak. "Gainera, ikuskizunaz disfrutatzera datorrenak eliza ere ikus dezake bide batez. XVII. mendeko eliza da, erretaula ikusgarria du eta hori jendearen agerian geldituko da gero ere", jarraitu du.

Hala ere, kutxaren alboetan ere ibiltzeko adina toki egongo da, nahi duenak erretaula gertuagotik ikusteko, adibidez. Besteak, ikusleen aretoa aldapan egingo da, oholtza ondo ikusteko eta irisgarritasunagatik.

ERRETAULA ERABERRITU

Proiektua bera abendua bukatu baino lehen entregatuko dute arkitektoek udaletxean, eta detaile asko zehazteke daude oraindik, baina erretaula mantendu egingo dute. "Erretaula, Loiolako San

Inazioren irudiarekin, oso ederra da eta berriztatu eta konpondu egingo dugu. Lan hori egiten ere Aldundiak lagunduko digu, erre-taulak berriztatzeko duen programan sartu dugu-eta. Eraberri-tu ostean, sarreratik barrura begiratuta ezkerretara dagoen paretan jarriko dugu. Justuan sartzen ei da, baina ezin dugu ezkutuan utzi. Bi hilabete inguru barru hasiko dira dagoen tokitik kentzen eraberritzera erama-teko", azaldu du alkateak.

Eta orain erretaula dagoen tokian egingo da gero eszenatokia. Baina erretaula atzelko pareta bota egingo dute, eszenatokia handitzeko. Aranzadi ikastolako pasilloa eta egun biltegia den gela ere auditorioaren parte izango dira gero. "Orain dagoen tokia txikia da oso ganorazko eszenatoki batendako, eta horregatik botako dugu pareta hori. Atzean, ikuskizuna egingo duten artisteek erabiltsako gelak egingo dira, janztekod edo makilatzeko, adibidez", argitu du alkateak. "Ikusleak aurrean, alboan eta goiko aldean eseriko dira. 416 guztira, horietatik 100 bat goian, egun organoa dagoen inguruan. Ez dakit arkitektoek zer egireko asmoa duten organoarekin, baina ez dut uste dagoen tokitik kenduko dute-nik", aurreratu du Gallastegik.

ZINEMA ETA TABERNA ERE BAI

"Kultura programazioa Gipuzkoako osoan zabaldu gura dugu. Seizazpi kultura ekipamendu ditugu orain eta Bergarakoa errefrentzia nagusia izango da ikusleendako. Hori da, behintzat, asmoa", azaldu du Gonzalez Txabarrik.

Bestalde, auditorioa "lokal polibalentea" izango dela azpima-



BISITA Gonzalez Txabarrik eta Gallastegik seminarioko elizan bertan azaldu zituzten proiektuaren datu batzuk.

O.E.

rratu zuen berriro alkateak: "Antzerkia eta musika kontzertuak bakarrik ez, zinema ere iku-si eta entzun ahal izango da. Horretarako ere prestatuta egingo da. Gainera, UNED ikastetxea eta Aranzadi ikastola ere seminarioan bertan daude, eta haien erabili ahal izango dute auditorioa hitzaldi, urteko batzar edo antzerako ekitaldieta rako".

Auditorioak beste erabilera-rik izango duen galdetuta, Vic-

toriano Gallastegi alkateak aurreratu du litekeena dela taberna edo jatetxea ere izatea: "Horretan ere pentsatu dugu, baina oraindik ez dut proiektua bera ikusi eta ez dakit arkitektoek nola jaso duten aukera hori. Baina posible da taberna ere iza-tea, bai", aurreratu du.

15 HILABETEKO LANAK

Dirua bi zatitan egingo dio aldundiak udalari: 600.000 euro

aurten eta 1.150.000 euro 2007an. Txabarriren esanetan, "uste dut 2007 hasieran adjudikatuko dituztelako eraberritzeko lanak eta 15 hilabete inguru beharko dituzte lehen faseko lana horiek egiteko". Hurrengo faseak izango dira barrua hornitzeko eta dena segida-ten egingo dute, "garbi dago hasiko duten proiektua bukatu egingo dugula", esan du alkateak. Lur azpiko aparkalekuak beranduago egingo dituzte.



ASPACE

Otxirondo 3 Bergara • Tel.: 943 31 28 33

Aukera zabala saskietan
Salmenta zuzena
Enkarguak ere hartzen dira

Gabonetan opari berezia egizu!

Ordutegia
Abenduaren 11tik 22ra
Astelehenetik ostiralerako 09:30-19:45
(urtean zehar 08:45-16:45)



> EUSKARA
Euskarazko produktuak dauden katalogoa, kalean

Euskarazko produktuen katalogoa argitaratu du Udalak beste hainbat udalekin batera. Euskaraz diren jostailuak, jokoak, liburuak, aldiak, bideoak, musika, informatika produktuak eta filmak jasotzen ditu, besteak beste. Herriko ikastetxeetan banatuko dituzte. Helburua da gazteei euskarazko produktuen eskaintza ezagutaraztea eta gurasoei esatea umeen aisia dia garrantzitsua dela euskarra bereganatzeko. Udaletxean eta kultura etxeen ere har daitezke katalogoak.

> ELKARTASUNA
Elkartasun bazkaria antolatu du Saiatuz elkarreka 16rako

Elkartasun bazkaria antolatu du Saiatuz elkarreka abenduaren 16rako. Bazkaria Sierbetan egingo dute, 14:00etan. Ordu erdi lehenago, ordea, Saiatuz elkarreka esku artean duen proiektuan aurkezpena egingo dute: Afrika Benin herrialdeko eskola bat altzariekin eta beharrezko materialarekin hornitzea. Bazkarira joateko txartelak parrokietako sakristietan daude salgai bost eurotan gasteendako eta 10 eurotan helduendako.

> HITZALDIA
Berrikuntzei buruzko hitzaldia enpresaburuendako

Enpresa txiki eta ertainetan berrikuntzak nola bultzatu. Horixe izango da hilaren 14an Miguel Altuna Institutuan egingo duten hitzaldiaren gaia. Ibermatika berrikuntza institutuko Juan Jose Goñik emango du hitzaldia. Enpresa txikien iraupen eta garapenerako berrikuntzak duen garrantzia eta eragina zabaltzea eta eztabadatzea izango da puntuatko bat. Areto nagusian da hitzordua, 16:30ean.

TRANBIA > ALEGAZIOEN ERANTZUNA HELDU DA UDALETXERA

Tranbiaren trazatua aldatu du Jaurlaritzak, Udalak eskatuta

Ibargaraitik pasa beharrean Ortuibar pasealeku parekiko pasako da tranbia, orain bidegorria dagoen tokitik, eta ibilbide bera izango du bi noranzkoetan

OIHANA ELORTZA > BERGARA Jaurlaritzak onartu egin ditu Udalak hasierako proiektuari egindako alegazioak eta tranbiaren planoak aldatu egin ditu. Aldaketa handiena da tranbia toki beretik pasako dela bi noranzkoetan eta ez dela Ibargarai kaletik pasatuko, hasierako proiektuak jasotzen zuen moduan. "Matxiategi kaletik merkaturaino iritsiko da tranbia, Santa Marina elizaren atzeraino. Han geltoki bat izango du. Handik Elorregirako bidea hartuko du erreka aldetik, orain pasealeku dagoen tokitik. Ibargaraitik pasatu beharrean, Ortuibar pasealeku parekiko pasako da", azaldu du Victoriano Gallastegi alkateak. "Bi noranzkoetan pasako da handik tranbia eta bide hori zabaldu egin beharko dute. Erreka aldetik eta beste aldetik zabalduko dute bidea, ziurrenik, eta horma bat ere egingo dute", jarraitu du Gallastegik.

GABIRIAN ARAZORIK EZ Gabiriako estugunea konpontzeko proiektua ere aurkeztu zuen Udalak alegazioetan. Jaurlaritzak ere ikusi du Sestra enpresak Udalaren dako egindako proiektua bete daitekeela, eta horixe jaso du plano berrieta. "Bergarakit Arrasaterako noranzkoan, lurra kenduko diote semaforoak pasa eta eskumara dagoen mendiari. Algodonera zegoen lurzoruari ere zati bat kenduko diote. Bi tunel egingo dituzte hor, bat errepidean ibilgailuendako, eta beste bat eskumarago tranbia azpitik pasatzeko. Tranbiak Labegaraietarako bidea hartuko du hortik eta



TRAZATUA Trazatu berriak bidegorria ere jasotzen duela azaldu du alkateak udaletxeko bulegoan.

O.E.

DATUA

6

GELTOKI IZANGO DITU

San Lorentzon, marmoldegian; kanposantu parean, merkatuan, Ibargarai kalean (erreka begira), Algodonerako etxeetan eta Candyko biribilgunean.

ORAINDIK ARGITZEKE

Erdiko trazatu berria erabakita dute, baina argitzeke dute, adibidez, Labegaraietatik nondik pasatuko den edo Zubietako kaleko pasabidea izango duten Matxiategira, tranbia hartzeko. Azaroaren 22an onartu zituen Jaurlaritzak orain arteko aldaketak eta hilaren 22a arte dago epea alegazio berriak egiteko. Alkateak esan du Udalak ez duela alegazio tekniko gehiagorik aurkeztuko.

TELEIXA BILTEGIAK Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93


SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena


Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13


**JAUJA
KIROLAK**
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

**Radio
Bergara**

Etxetresna elektrikoak
Sakelako telefonoak
Lanparak
Opariak
San pedro 25
BERGARA
943 76 19 89

TAILA > IKASTURTE BERRIA MARTXAN

Bergarako Taila Eskola Elkartea, egurra lantzen ibilbide luzea daraman taldea

Hogei lagun inguru dabilta taldean eta gazteak animatu nahi dituzte tailan hasteko

Elkartea urteko batzarra egingo du martitzenean, hilaren 12an, Zabalotegín

EDU MENDIBIL > BERGARA
Hogei lagun inguru dabilta Bergarako Taila Eskola Elkartearen. Mazoaren eta gubiaren laguntzarekin egurra lantzen ibiltzen dira astero. Asensio Esnaola debarra da guztien maisua. Urte asko darama Esnaolak Bergaran tailaren sekretuak erakusten. Eta ikasle finak dauzka: taldeko hainbat lagun egunero joaten dira elkartek Zabalotegín duen lokalera. Asensio Esnaolarekin astean behin egoten dira, eguztenetan, 18:30etik aurrera.

Emilio Uzin da elkarteko presidente. Orain dela 12 bat urte hasi zen taldean: "Semea eta biok hasi ginen etortzen, baina gero hark laga egin zuen. Ni oso gustura ibiltzen naiz. Giro bikaina daukagu taldean. Baino jende gaztea etortzea nahiko genuke. Ateak zabalik daude edonorendako... Gauza ederra da egurra lantzea eta hasiz gero *engantxatu* egiten du". Celestino Vicente



IKASLE FINAK Asensio Esnaola maisua (bigarrena ezkerretik hasita), taila elkarteko bere ikasleekin.

E.M.

da taldean urte gehien daramana, Uzinen aurretik hain justu.

BATZARRA, HILAREN 12AN
Elkartea urteko batzarra egingo du martitzenean, hilaren 12an, Zabalotegiko lokalean, 18:30ean. Taldean parte hartzen interesatzen dena.

dutenek eguztenetan, eskolak dituzten egunetan agertzea baino ez daukate.

ERAKUSKETA GABONETAN
Bestalde, Simon Arrieta Zeramika Taldearekin batera, erakusketan egingo dute abenduaren 29tik

urtarrilaren 7ra, Aroztegiko aretoan. Urtean zehar egindako lanak jarriko dituzte ikusgai herriko tailugileek: argizaiolak, kutxak, koadroak, armariak, mimo handiz egindako lanak. Taldeko kideek hiruna bat pieza aurkeztuko dituzte.

> ERAKUSKETAK
Zigiluak Aroztegin eta Garmendiaren margoak Nahikarin

Bergarako Filatelia eta Numismatika Elkarteak antolatuta, San Frantzisko Xabier, V. mendurrenaren era-kusketa ikusgai izango da Aroztegiko aretoan, domekara arte, abenduaren 10era arte. Ordutegia honako hau izango da: aste barruan, egubakoitzera arte 18:00etatik 20:30era; zapatauan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan goizez bakarrik izango da zabalik, 12:00etatik 14:00etara.

Bestalde, Nahikari tabernan Itsasondoko Mila Garmendiaren margoak daude ikusgai.

> JARDUN
Amodiozko gutunen lehiaketa eta sabel dantza ikastaroa

Jardun elkarteak amodiozko gutunen XV. ekitaldia deitu du. Irabazleak 450 euroko saria jasoko du eta beste 580 euro banatuko dituzte sartan. Era berean, SMS bidezko lehiaketa izango da aurten ere. Lanak urtarriaren 7ra arte jasoko dira. Argibideak Jardunen, 943-76 08 19 telefono zenbakian.

Bestalde, sabel dantza ikastaroa antolatu du Jardunek. Eskolak abenduaren 13an, 15ean, 20an eta 22an izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Izenematea astelehenera arte, abenduaren 11ra arte, dago zabalik.

AZPEITXI
Jatetxea

Aranerreka 13 behe. Bergara
943 76 55 00

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ARRI
Industri horridura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Fax: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Egunero janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

EDEL
TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kordinak, kordinoiak,
koltxak, edredoia, etab.**


Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Mujika
gozategia


Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34


IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztiak lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatura

Paper pintatua
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefona: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Fax: 943 76 09 32

FUTBOLA > DERBIA

BTLSk lider dagoen Antzuolaren zelaian jauzi egin gura du hirugarren postura

Bi talde horiek zapatu arratsaldean jokatuko dute derbia (15:45, Estalan). Gazteak mendean hartuta, BTLS indarberrituta dago, baina talde indartsuena izango dute aurrean

x.u. > BERGARA
Esan barik doa Andoni Azkargotaren taldeak ezin hobeto hartu diola neurria liga txapelketari. Jokatutako hamabi norgehiagoketatik Antzuolak bakarra galdu du, hain zuzen ere BTLSk mendean hartu berri duen Gazteak taldearen kontra. Aspaldi izan zen hori, orain dela sei aste, eta ordutik hona antzuolarrek bost partidu irabazi eta berdinketa bat erdietsi dituzte.

Hala, aurrekari horiek dituen taldearen kontra jokatuko dute bergararrek zapatu arratsaldean. BTLSk dagokionez, joan den astean Gazteak mendean hartuta



BTLS TALDEA Zapatuan irabazita, Bergarako taldeak atzean utz dezake sailkapenean parean dagoen Soraluze. J.L.B.

indarberrituta egongo dira mahoneroak. Gainera, joaneko partiduan Eibarren izandako istiluak eta gero, talde horren kontra kontuak argitu behar ziren, futbol zelai barruan, baina. Hori ondo beteta (5-2), BTLSko jokalariaik hirugarren postura jauzi egiteko

itxaropenarekin joango dira Antzuolara. BTLS taldeko ordezkarri Jose Luis Beitiak badaki erronka gogorra dutela: "Inoiz baino hobeto dago Antzuola, *tiroa* bezala. Azkargortak talde sendoa egin du atzean, eta azkarrak dira aurrean. Badakit ondo entrena-

tzen dabilzala, eta kontrario oso gogorra izango da".

BERGARAK ATSEDENA DU
Lehenengo erregionaleko taldeak ez du asteburuan partidurik jokatuko, eguztenera aurreratu zuten-eta norgehiagoka.

> ARETO FUTBOLA
Labegaraietako txapelketan talde bat kanporatu dute

Azkenak taldeak amaitu du aurtengo txapelketa. Joan den asteburuan, talde horrek jokatu aurretik norgehiagoka bat epaitu behar zuen. Bi jokalari azaldu ziren lan hori egitera, baina ondoren jokatu behar zuten partidura taldeek kale egin behar zute lajakinda, zegokien partidua ez epaitzea erabaki zuten.

Horrekin batera, jakin, oraingo asteburuan Labegaraietako taldeek deskantsua izango dutela.

> DENETARIK
Saskibaloi eta eskubaloi taldeek atsedena izango dute

Sailkapenean agintzen ibilita, gusturago hartzen dira horrelako atsedenak. Hala, Candy BKE saskibaloi taldeak eta Bergarako eskubaloi taldeak atsedena izango dute hilaren 16ra arte.

Saskibaloian, Irun Basket 69-46 irabazita Candyk lehenengo postuan estreinatu du fase berria. Eskubaloian, berriz, zortzi jardunaldi jokatuta 16 punturekin dago Bergara, lider.

UGARTE AROZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrear
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoa
- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAOKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 / Faxa: 943 76 08 04

EDUKIONTZIAK > LURPERATZEN HASIKO DIRA

Ilargi plazan dauden edukiontziak lurperatzen hasiko dira asteotan

Herrian lurperatuko dituzten lehenengo zazpi edukiontziak izango dira, eta, probarekin gustura geratuz gero, gehiago izan daitezke aurrerago

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Asteotan hasiko ditu Udalak Ilargi plaza parean dauden edukiontziak lurperatzeko lanak. Zazpi daude bertan eta guztiak sartuko dituzte lur azpian.

12 MILA EURO BAKOITZAK
Lan asko hasi dituzte herrian udazken honetan: Otalora kalea, bidegorria, eta orain Ilargi plazako edukiontziak lurperatzen hasiko dira. Hilabete inguru iraungo dute lanek, eta tarte horretan, zazpi edukiontzi sartuko dituzte lur azpian: lau etxeetako zabor organikoarenak izango dira, bat kartoi eta paperarenak, beste bat beirarenak eta beste bat plastiko eta latendako. Eta orain dauden leku berean geratuko dira aipatutako zazpi edukiontziok, metroren bat aurrerago edo atzerago.



EDUKIONTZIAK Ilargi plaza parean dauden zazpi edukiontzieta zabor asko pilatzen da.

ere. Inguruan hainbat taberna daude, gainera, eta guztien artean zabor asko pilatzen dute. Inguru bizilagunek usain txarrak jasan behar izaten dituzte, eta hai-zea dabilen egunetan kartoi eta paperak hara eta hona ibiltzen dira. Lurperatzeokin hori guztsia saihestea da helburua, eta erantzun ona jasoz gero beste toki batzuetan ere antzekoa egitea aztertzen hasiko da Udala.

ZABOR BILKETA MOTELAGOA

Lurperatuko dituzten lau edukiontzi oraingo berberak izango dira; zabor organikoarenak, alegia. Gainerakoak aldatu egingo dituzte, zaku itxura izango dute eta edukiera zertxobait handiagoa. Zaborra jasotzen den kamioia, orain bezalaxe martitzen, eguen eta domeketan etorriko da, eta sistema bera erabiliko du jasotzeko. Hori bai, orain baino denbora luzeagoa beharko du. Izan ere, sistema hidrauliko baten bitartez jasogailu batek lurpetik aterako ditu eta ondoren edukiontzia jasoko du kamioiak.

Ilargi plazako ondoren beste batzuk etor daitezke, baina asko ez dira izango: alde batetik, dirutza handia delako; eta bestetik, asko moteltzen duelako zabor bilketa.

KONTZERTUA > LA AURORA ABESBATZA

Alacanteko abesbatzaren kontzertua bihar, hilak 8

Aretxabaleta
Abesbatzak Faure-ren
requiema abestuko
du hilaren 29an

taldea, eta 15 abesti dituen egitaraua gertatu dute gurean abesteko, tartean Mozarten *Adoramus te* eta *Dona Nobis Pacem*, eta Joan Manuel Serratren *Paraules d'amor* eta *Cantares*.

ARETXABAleta ABESBATZA

Ez da izango abesbatzak eskainiko duten kontzertuk bakarra abenduan. Aretxabaleta Abesbatzak hilaren 29an egingo du, egubakoitza, 19:00etan, parrokiaren Angel Barandiaranen zuzendaritzapean eta Jose Luis Francesena organo-jolearen laguntzarekin Faure-ren requiema eskainiko dute. Mariatxen Urkiak egingo ditu soprano lanak, Entzi Zubiri tenorra izango da eta Jose Jabier Etxeberria baritonoa. Gabriel Faure frantsesak 1886 eta 1888 urte bitartean idatzitako meza abestuko dute, eta, aditu esanetan, idatzitzen diren dotorenetakoak. Latinetan da eta zazpi zati ditu.

15 ABESTI DITUEN EGITARAU

Bide luzea egin duen abesbatza da La Aurora; 1960an sortu zuten, eta ordutik hona hainbat lehiaketa eta ekitalditan jardundakoa da, baita zarzuelak abestutakoa ere. Diego Baenas Pontes zuzendariaren gidari-zapean 40 lagunek osatzen dute

ZABOR ASKOREN PILAKETA

Herrian lurperatuko dituzten lehenengo edukiontziak dira, eta oraingoz bakarrak izango dira. "Proba gisa lurperatuko ditugu Ilargi plaza parekoak; baina aurrera begira badago asmoa beste batzuekin ere gauza bera

egiteko", argitu digute Hirigintza Saileko arduradunek. "Hala ere, oraindik erabaki barik dago zeintzuk izango diren".

Aipatutako zazpi edukiontziok Eroski dendatik oso gertu daude, baita Mitarte kalean dauden arrandegi eta harategitik



Erakusleihoa
dotoreenaren bila
hilaren 31 artean

Bihar, hilak 8, jarriko du abian Udalak Gabonetako erakusleihoa lehiaketa, eta 31ra bitartean izango dituzte ikusgai parte-hartzaleek. Dendako ohiko produktuak erabili beharko dituzte apaintzeko, eta imajinazioari, orijinaltasunari eta Gabon mezua zabaltzeko moduari erreparatuko diete epaimahaiko kideek hiru onenak hautatzeko orduan: lehenengoak 250 euro jasoko ditu, bigarrenak 150 eta hirugarrenak 100. Lehiaketak iraun bitartean erakusleihoa argitura izatea gomendatu izatea antolatzaleek.

HIRUATX > MITEMELETEKO PROIEKTUA

Ugalketarako hazitako 700 hegaztik otsailean errungo dituzte arrautzak

10.000 arrautzarendako inkubagailua eta lau milarendako jaiotzeko lekua jartzen dabilta, eta laster bukatuko dute lau oilategi eraikitzen

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Hiruatz elkarteak Ekuatore Gineako Mitemetele herrian oilaskoak hazteko kooperatibaren proiektua jarri zuen abian orain urtebete pasatxo. Alberto Trojola aretxabaletarra izan da oraintsu bertan, eta berri pozgarriak ekarri ditu.

JARRAIPEN ZUZENA

Oilategiak eraikita dauzkate dagoeneko eta ugalketarako era-

biliko dituzten 700 hegazti hazten dabilta; otsaileko txitatzeko lehenengo arrautzak geru izango dituzte. Txitatzeko behar duten lau gelako eraikina bukatuta dago, eta 10.000 arrautzarendako inkubagailua eta lau milarendako jaiotzeko lekua jartzen dabilta. Horrez gainera, aroztegi batean dabilta egurrezko egiturak egiten eta pentsuak egiteko eraikina bukatuta daukate. Lau oilategi eraikitzent buka-



MITEMELETE Argazkiak erakusten du Mitemeteen eraikitzen dabilzan oilategietako bat.

MUNDUKIDE

tuko dute laster eta hastear daude beste lau egiten. Urte hasierarekin batera bi ur-andela eraikitzent hasiko dira, bata edateko urarenak eta bestea garbiketa lanendako.

Hori guztia aurrera eroateko dirua behar dute, eta hitz eman-dako 100 mila eurotik 59 mila batu dituzte dagoeneko. Ekarpenak Gipuzkoako Kutxan zein Euskadiko Kutxan egin daitezke.

Hemendik aurrera ere egitasmoari jarraipen zuzena egingo diote Mundukideren bitartez; izan ere, arlo askotako arduradunet trebatu behar dituzte lanok behar bezala zuzentzeko.

PARROKIA > GABONETARAKO EGITARAUA

Otoitzaldiak eta adiskidetze sakramentua antolatu dituzte Gabonen etorrera gertatzeko

Urtarrilaren 1ean Bakearen Aldeko Nazioarteko Eguna dela-eta Eskoriatzan egingo duten kale agerraldirako gonbita egin diete herritarrei

M.A. > ARETXABAleta

Gabon garaia garrantzitsua da kristau elkartarendako, eta aurrez gertatzen dituzte, abenduan hain zuzen, hilaren 3tik 23ra bitartean. Horretarako egitarau berezia antolatu du Leintz Pastoral Barrutiak. Bihar, gainera, Seminario Eguna ospatzen dute elizbarrutian, eta otoitzak zein diru eskaerak horren alde izango dira.

ABENDUKO OTOITZAK

Abenduko domeka guztietan bezperak otoitz egiten dituzte Agus-

tindarren komentuan, 18:30ean, eta edonor hurrera daiteke mojei arratsaldeko otoitzean lagun egitera. Beste otoitzaldi bat ere gertatu dute Agustindarren komentuan hilaren 12rako, martitzena. Meza ostean, 19:30ean, izango da agerraldia, herriko plazan.

Hilaren 19an, martitzena, Elkarteko Adiskidetze Sakramentua emango dute parrokian, 19:00etan. Hala ere, bakarka aitor-tzea gurago dutenek izango dute horretarako aukera. Hilaren 23an, zapatua, abadea egongo da parrokian, 12:00etan. Eta behin

gertatuta Gabonak ospatzeko geru daude kristauak.

GABONETAKO EKITALDIAK

Abenduaren 25ean, Natibilitate Eguna, bi meza esango dituzte herrian: 09:00etan Agustindarren komentuan euskaraz, eta elkar-teko meza, 11:30ean, parrokian, bi hizkuntzatan.

Urtarrilaren 1ean, Urteberri Eguna, ere bi meza egongo dira: 09:00etan komentuan eta 11:30ean parrokian. Gainera, Bakearen Aldeko Nazioarteko Eguna ospatzent, eta *Giza eskubide guztiak denontzat* leloarekin Eskoriatzan egingo duten kale agerraldirako gonbita egin gura diete Leintz Pastoral Barrutiko kideek herri-tar guztie. 13:30ean izango da age-rraldia, herriko plazan.

Urtarrilaren 6an, Epifania Eguna, ere bi meza esango dituzte: 09:00etan komentuan eta 11:30ean parrokian. Eta Gabonak bukatzeko Jaunaren bataioa ospatuko dute urtarrilaren 7an, domeka. Bataioak egongo dira egun horretan meza garaian, hau da, 11:30ean, parrokian.

> GARRAIOA

Abenduaren 4an hasita hilabeteko epea dute herritarrek tranbiari alegazioak aurkezteko

Tranbiaren gaineko proiektua udaletxeen dago ikusgai orain dela hiru astetik. Hala ere, alegazioak aurkeztekoe epea zabaldu barik zegoen, eta astelehenean, hilak 4, zabaldu zuten, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zutenean proiektua. 30 egun dituzte orain Udalak zein herritarrek alegazioak aurkezteko.

Aretxabaletako ibilbideari hainbat aldaketa egin dizkiote, eta proiektua jendeak ikusteko moduan dago, udaletxeen, Garraio eta Herri Lan Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan, Gasteizen, eta www.euskadi.net webgunean, Garraio eta Herri Lan Sailaren atalean. Udaletxeen osoko bilkuren aretoan daukate planoa, eta txostena irakurtzeko hitzordua eskatu beharra dago.

> KZGUNEA

Hilaren 12an hasi eta 28ra bitartean bederatzi azterketa egingo dituzte IT txartela eskuratzeko

Aretxabaletako KZgunea 09:00etik 13:00etara dago zabalik abenduan, eta hainbat ikastaro antolatu dituzte 16 urtetik gorakoendako: Interneten gaineko ezagutzak erakutsiko dituzte hilaren 11tik 22ra; postalak zela bidali eta liburuak zela aurkitu azalduko dute hilaren 21ean, eta irudi digitalen gaineko ikastaroa egingo dute hilaren 26tik 29ra bitartean.

Bestalde, IT txartela eskuratzeko egin behar den azterketarako bederatzi aukera dituzte interesatuek hilaren 12an hasi eta 28ra bitartean. Guztiak arratsaldeetan izango dira.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

SANER

ITURGINTZA

Selaikua baseria
Apotzaga auzoa
ESKORIATZA

605 71 66 92 / 943 71 52 51

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea ARETXABAleta

Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448



ETXEBIZITZEN FOTOMUNTAIA Argazkietan, Santa Marinako etxebizitza tasatuen gaineke hainbat alderdi.

VISESA

ETXEBIZITZAK > SANTA MARINAKO ETXEBIZITZA TASATUAK

Indarrean jarri berri dute 31 etxebizitza tasatuen prozedura

Izenematea zabalik dago eta horretarako bulegoa zabaldu dute Santa Ana kaleko 19. zenbakian

Promozioko esku hartzeko gutxienezko eta gehienezko irabazien kopuruak jaitsi dituzte

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Dagoeneko martxan dago etxebizitza tasatuen prozedura. Joan den asteko Udaleko osoko bilkuraren udalbatzarrak onartu zuen etxebizitza horien promozioa Lurzoruaren Legera egokitzea. Hala, etxebizitza horiek betiko izango dute tasatutako kategoria, eta babestutakoak izango dira. Hortaz, jabeak etorkizunean etxebizitza saldu gura izanez gero, Jaurlaritzak izango du lehentasuna. Eta Jaurlaritzak eskuratu gurako ez balu, KPIren igoeraren tamainako salneurrian saldu ahal izango lituzkete.

HIRU ALDAKETA EGIN DITUZTE

Udalbatzarrak hiru aldaketa egin zituen: batetik, promozioan esku hartu behar dutenen irabazi gehiengo eta gutxiengo kopuruak aldatu dituzte. Intresatuek urtean 12.000 eta 43.000 euro arteko irabaziak izan beharko dituzte; bestetik, ezinbestekoa izango da azken bi urteotan Eskoriatzan erroldatuta egotea; eta, azkenik, etxebizitza horien eskaintza orain arte halako jabetzak ez dutenendako bazeen ere,

salbuespeneko klausula sartu dute: minusbaliotasunen bat dutenek eta etxea egokituta ez daukatenek ere aukera izango dute izena emateko; baita etxea oso egoera kaskarrean dutenek ere, besteak beste.

31 ETXEBIZITZA IZANGO DIRA

Hasieran 20 izango zirela esan zuten arren, 31 izango dira Udalak bultzatuko dituen etxebizitza

tasatuan. Jaurlaritzaren Visesa agentzia arduratuko da kudeaketaz, eta urte bukaerarako emanago dute lanak egiteko lizenzia.

ESKAERAK BERRIRO AZTERTZEA

Astelehenetik hilaren 28ra arte egongo da aukera promozioan izena emateko. Behin horiek guztia jasota, Visesa arduratuko da eskaerak berriro aztertzearaz. Horren ostean, onartuen eta ez onartuen zerrenda aterako dute.

ETXEBIDETIK KANPOKO ZERRENDA

Bide batez, Udalak azpimarratu du aurretik Etxebiden izena eman duten eskoriatzarrak ez daudela promozio horren zerrendan sartuta. Hala, tasatuetan interesa dutenek egunotan San-

ta Ana kaleko 19. zenbakian jarri duten bulegora joan beharko dute halabeharrez. Aldiz, egunotan Eskoriatzako tasatuen promoziorako izena ematen badute, hemendik aurrera Etxebideko datu-basean sartuko dituzte beste promozio batzuetarako.

BI ETA HIRU LOGELAKOAK

Etxebizitzen salneurria, garajea eta trastelekua barne (BEZ barik) 195.000 eta 224.000 euro bitartekoia izango da. Bederatzi etxebizitzak bina logela izango dituzte, eta horietako bi minusbaliotasuna dutenendako egokituta egongo dira. Gainontzeko 22 etxebizitzek hiru logela izango dituzte. Etxebizitzak 70 eta 90 metro koadro bitartekoak izango dira.

Hilaren 28ra arte izena emateko aukera izango da

Udalak eta Visesak bulegoa zabaldu dute Santa Ana kaleko 19. zenbakian. Lanegunetan zabalik dago 10:00etik 14:00etara eta 17:00etik 20:00etara bitartean.

Han dagoen langileak herritrei arreta egiten dihardu, informazioa eman eta eskaerak jasotzea. Lehenengo egunean 40 lagun joan ziren etxebizitza tasatuen gaineke informazio bila.



Visesa eta Etxebide arduratzen dira Santa Anan jarritako bulegoaz. IKER BARANDIARAN

AZPIEGITURAK

Bidegiri azalpena eskatu dio Aralarrek

Zarimuzko errekan baimen bako lanak egitea salatu du alderdi politikoak

I.B. > ESKORIATZA

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Aralar taldeak prentsaurreko egin du autobideko lanetan egindako "irregularitasun bat salatzeko".

Aralar taldearen esanetan, Arlaban-Eskoriatza iparraldeko zatian irregularitasunak egin dituzte. Hain zuzen ere, alderdi politiko horrek salatu du "lan batzuk egiteko eskaera eta alegazio epea zabaldu dituztela lan horiek egin ondoren".

BABESTUTAKO GUNEAK

Horrez gain, Aralar taldeak salatu du lan horiek Zarimuzko errekan egin dituztela eta 2004an Gipuzkoako Foru Arauak Debako goi-ibarra eta Zarimutze erreka interes bereziko gune izendatu zituela. Izendapen hori egiteko Aldundiak aipatu zuen, besteak beste, desagertzeko arriskuan dagoen Europako bisoia han bizi dela.

Horregatik, gertatutakoa "onartezina" iruditu zaie, eta Bidegiri eta Ingurumen Sailari erantzukizunak eskatu gura dizkie.

ARDURADUNEN AGERRALDIAK

Hala, Batzar Nagusietan Bidegiko zuzendariaren agerraldia eskatuko dute, eta Eusko Legebiltzarrean Ingurumen Saileko Uren zuzendariarena, hurrenez hurren.

> BERBALDIA

Mendeko pertsonen zaintzaren gaineke berbaldia egindo dute

Martitzenean, hilaren 12an, Amuska emakumeen elkartea berbaldi bat antolatu du kultura etxearen. Mendeko pertsonen zaintzaren gainekeoa izango da eta honako bi lagunek emango dute: Itziar Gabikagogeaskoak eta Isabel Castrok, hain zuzen ere.

Amuska elkarrean lan handia egiten dihardu emakumei, batez ere, eta baita gainontzeko herriarrei alternatibak eskaintzen. Elkartea jakin badaki emakumezko asko pertsona nagusiak zaintzen ibiltzen direla, eta haiei laguntza emateko asmoarekin berbaldia egin du.



ERABILERA HANDIEGIA Ibilgailu asko ibiltzen dira industrialdean. I.B.

ZIRKULAZIOA > ZIRKULAZIOA TORREBASON

Torrebason zirkulazio handiegia

Torrebason erabiltzaileak arduratuta daude industrialdean dagoen zirkulazioagatik, eta arazoari konponbidea bilatzea gura dute

I.B.> ESKORIATZA

Torrebason industrialdean lan egiten duten hainbat lagunek jakinarazi digute Torrebason dagoen zirkulazio handiarekin oso arduratuta daudela.

Haien esanetan, arazoaren muinetako bat da Almenera igo eta jaisteko sarbide eta irteera industrialdetik egin behar dela: "Goizean, eguerdian eta arratsaldean izugarrizko zirkulazio handia pilatzen da. Auto asko eta autobus ugari ibiltzen dira, hain zuzen ere".

Bestalde, azaldu digute industrialdeak ez duela espaloia-

rik, eta, alboan bidegorria egon arren, jende asko oinez igarotzen dela hortik: "Autobusek ibiltzen duten abiadura kontuan hartuta, ezbeharren bat gerta daiteke".

ALMENEK SARBIDE PROPIA
Juan Carlos Bengoa alkateak jakinarazi digu abiadura murrizteko plastikozko goraguneak jarzeko asmoa dutel.

Industrialdeko erabiltzaileek, berriz, uste dute aproposena dela Almenek sarbide propioa izatea: "Zerbitzuak ematen dituzten enpresak asko daude eta berez zirkulazio handia daukagu".

AZPIEGITURAK > AHT-REN GAINeko BERBALDIA

Abiadura Handiko Trena berbagai izango dute

Eguaztenean, AHTren gaineko berbaldia egingo dute kultura etxeen, 19:00etan

I.B. > ARRASATE

Aitzorrotz kultura elkarteak AHT: aurka egoteko arrazoia eta tren sozialaren aldeko argudioak leloa daukan berbaldia antolatu du. Eguaztenean, hilaren 13an, egingo dute kultura etxeen. 19:00etan egingo dute eta Onbide.org elkarteko lagunek eta AHT Gelditu plataformako kide Mila Elortzak esku hartuko dute.

Onbide.org elkarteko kideek AHTk udalerrian izango duen eragina azalduko dute. Azpiegitura berri horrek Maringo, Zarimuzko eta Mazmelako elizateak ukituko ditu,

batez ere. Abiadura Handiko Trenaren ibilbidea autobidea-renaren paraleloa izango da. Are gehiago, Onbide.org elkarteko esanetan, zenbait puntutan bien artean ehun bat metroko distantzia egongo da.

INFORMAZIO FALTA
Onbide.org elkarteko ordezkariek azaldu dute AHTk udalerrrian, batez ere, etxebizitza eta baserriei kalte egingo diela, horietako askotatik oso gertu igaroko delako.

Horrez gain, zelai ederrak eta interes handiko erreka babestuak zeharkatuko ditu tren horrek. Hala ere, informazio gutxi daukatela azaldu digute Onbide.org elkartekoek.

Udalerrian trenak izango duen eraginaz gain, AHT Gelditu Plataformako Mila Elortzak trenaren proiektu orokorraren gainean berba egingo du.

Ainitze Lucero > Aitzorrotz kultura elkarteko kidea

"Saiatzen gara erakusten, lan apur bat eginez eta gogoarekin, gauza asko egin daitezkeela"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Inkeru tabernak hiru urte bete ditu. Taberna izateaz gain, ekitaldi ugari egiten dituzte, arduradunak Aitzorrotz kultura elkarteko kide ere badira-eta. Geroago eta ekintza gehiago antolatzen dituzte; izan ere, astero dute zerbait.

Inkeru tabernak hiru urte bete ditu. Taberna baino gehiago izatea erabaki zenuten?

Bai, topagune izatea gura dugu eta horretarako garrantzitsua da gauzak egitea. Are gehiago, ohitura daukagu kexatzeko, gauzak egiten ez direlako. Saiatzen gara erakusten lan apur bat eginez eta gogoarekin gauza asko egin daitezkeela.

Aitzorrotzek lan handia egin du azken urteotan...

Bai, tabernako arduradunok beti izan dugu gauzak egiteko gogoa. Gaur egun Iñaki eta biok gara tabernaren arduradunak eta biok Aitzorrotzeko kide gara. Elkartekok hillean behin batzen gara, ze ekintza egin erabakitzeko. Horrez gain, herritarrek eskarerak egiten dizkigute ekintza bat edo beste antolatzeko. Hori oso garrantzitsua da, jendeak herrian zer ikusten duen faltan esatea.

Zer-nolako harrera dute antolatzen dituzuen ekimenek?

Bideo emanaldietan ez da jende askorik egoten, baina bestelakoek oso erantzun ona dute. Konzertuetara eta antzerkietara jende dezente etortzen da; eta erakusketak ikustera, jende ugari. Oso pozik gaude.

Formatu txikiko kontzertuak egiten dituzue...

Bai, taberna txikia da eta ez gara ausartzen edozein musika talde sartzen. Bizilagunei ez diegu kalte handirik egin gura. Horregatik, batez ere, talde akustikoak ekarri izan ditugu. Hala ere, aztertzen gabiltza taberna kanpoan-edo beste musika emanaldi mota batzuk egitea. Horretarako, probaren batzuk egingo ditugu laster.

Hala, bakarlari ugari pasa dira tabernatik, ezta?

Bai, kontzertua egiteko batez ere bakarlari bila ibiltzen gara, eta konturatua gara uste baino gehiago daudela. Hala, Bergarako Aitor Pedrejon, Garate, Azkaiter Pelox eta Mahaster River aritu izan dira; baita Arrasateko Jim TNT ere, besteak beste. Datorren astean Johnny Cashen bertsioak jotzen dituen talde bat ekarriko dugu. Arrasateko Des-Kontrol taldeko musikari ezagunek osatzen dute bertsioen talde hori.



Lucero, tabernaria izateaz gain, Aitzorrotzeko dinamizatzailea ere bada. I.B.

"Herritarrek eskaerak egiten dizkigute eta esaten digute herrian zer falta den"

"Herrian dagoen kultura eskaintza ondo dago; Udalak ere gauza asko egiten ditu"

"Udalarekin harreman ona daukagu, eta elkarlana ere lantzen dugu"

Kontzertuez gain, bestelako ekintzak ere egiten dituzue...

Bai, kontzertua akustikoak, antzezlanak, argazki eta margolanen gaineko erakusketak, bideo emanaldiak, berbaldiak eta beste egiten ditugu.

Inkeru tabernan egiten dituzue gain, noizbehinka ekitaldi batzuk kultura etxeen egiten dituzue...

Bai, ekitaldi motaren eta egun edo orduaren arabera kultura etxeen egiten ditugu batzuk. Adibidez, orain dela gutxi Movimien-

to Sin Tierra taldearen gaineko berbaldia kultura etxeen egin genuen. Txikiteo orduan zen, eta gurago izan genuen leku egokiago baten egin. Horrez gain, datoren astean AHTren gaineko berbaldia kultura etxeen egingo dugu. Han tabernan baino leku handiagoa dago, eta merezi du jendea batzea.

Aitzorrotzek, kultura eskaintzeaz gain, azpiegituren gaineko eztabaida edo hausnarketa piztu gura du, ezta?

Bai. Askotan egoten dira gaiak jendeak berbagai dituenak, baina azkenean hor gelditzen dira. Halakoetan saiatzen gara erakusketak edo bideo emanaldiak antolatzen.

Zer iritzi daukazue herrian dagoen kultura eskaintzaren gainean?

Guk uste dugu herrian dagoen kultura eskaintza ondo dagoela. Udalak ere gauza asko egiten dituela uste dugu. Hala ere, egia da gu saiatzen garela Udala heltzen ez den gauzak egitera. Gainera, Udalarekin harreman ona daukagu eta hainbat gauza elkarlanean egiten ditugu. Adibidez, Euskararen Egunean ere esku hartu dugu.

> ERRETIRATUAK

Karta txapelketako kanporaketak datorren egunenak

Datorren asteko egunenak, abenduak 14, erretiratuen karta txapelketako kanporaketak jokatuko dituzte, 16:00etan. Erretiratuen egoitzan bertan dago izena emateko aukera.

Finalak abenduaren 19an jokatuko dituzte. Ondoren, afaria egingo dute.

> PAUSOKA

Urteko batzarra egin zuen aurreko astean gurasoen elkarrean

Pausoka gurasoen elkarrean urteko batzarra egin du. Hantxe, besteak beste, batzordekide berriak aukeratu zituzten: Ander Lezeta, Patxi Legorburu, Angel Gardoki, Francisco Cabrera eta Edurne Gabilondo. Seguruena, Nerea Irizar izango da lehen-dakari berria.

> ARROLA

Federatu txartela egiteko aukera datorren astean

Mendizaleek, eskiatzaileek, mendiko bizikletan ibiltzen direnek eta snowa egiten dutenek mendiko kiroletan federatzeko aukera dute Arrola mendizale elkartearren esku-tik. Abenduaren 12an eta 14an dute horretarako aukera, Arrolaren lokalean, 18:00etan eta 19:00etara.

> KALE AGERRALDIA

Talleres Anzuolako langileek deitura, lanuztea egin zuten

Enpresa handi zein txikiak egin zuten lanuztea martitzean, Talleres Anzuolako lankideei elkartasuna adierazteko. Komertzioek ere, gehienek egin zuten lanuztea. Talleres Anzuola aurreko kale agerraldian, berriz, ehun bat lagunek parte hartu zuten.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.Tel. eta faxa:
943 76 60 89**ZAHAR BERRITZEAK:**

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

ANEKAR > ABENDUAN BATUKO DUTE SAHARARA BIDALTZEKO MATERIALA

Sahararen gaineko berbaldia egingo du Peñagarikanok

Sahararen aldeko astea izango dugu abenduaren 12tik 22ra; materiala batuko dute eta berbaldia ere antolatu dute

AINZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Urtero bezala, Sahararako materiala batuko dute aurten ere Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeko kideek. Aurten, baina, abendu aurreratu dute kanpaina hori; urtarrilean egin izan dute aurreko urteetan. Aldaketa horren arrazoia da urtarrilean material gutxi batzen dutela.

Horrela, kanpaina hori abenduan egingo dute aurten.

Abenduaren 12tik, martitzena, hilaren 22ra arte, egubakotza, jasoko dute materiala honako toki hauetan: Herri Ikastetxea, Eroskin eta Kalebarren dendar. Aurten batuko dutena izango da atuna latan, konpresak, arroza eta dilistak.

Debagoieneko gainerako herrietan ere egiten dute kanpaina hori. Horrela, behin material guztia batutakoan, guztia batera bidaliko dute saharar errefuxiatuen kanpamenduetara.

Herri Ikastetxearen laguntasuna izan dute Anelkarkoek, ohi-ko den moduan. Ikasle guztiem ematen diete kanpainaren gaine-ko informazioa.

DOKUMENTALA ETA BERBALDIA

Sahararen aldeko kanpaina horren barruan, dokumental baten emanaldia eta berbaldi bat ere antolatu ditu Anelkarrek.

Abenduaren 14an, eguna, izango da hori, 19:00etan, Olaran etxeko aretoan.

Hasteko, Sahararen egoeraren gaineko dokumentala ikus-teko aukera izango dugu. Beste-tik, Oier Peñagarikano gazte antzuolarraren berbaldia entzun ahal izango dugu. Arizmendi eta Txantxiku ikastolek antolatuta, *Ikastolatik Saharara* proiektua-ren barruan, Tindoufeko errefuxiatuen kanpalekutara joan ziren astelehenean eta hantxe dago Oier. Han bizi izandakoaz jardungo du Oierrek.

bere ustez



Iraia Gabilondo

Nork
bere
kontzientzia

Ze zaila izaten den batzuetan bakarrik, isilik, ezer egin gabe norbera bere buruarekin egotea. Honek ez du esan nahi buruan biraka dituzun milaka arazo, ideia, pentsamenduri buruz gogoe-tetan egotea. Are gehiago, kontrajarria dagoela esango nuke, buruan bueltaka dau-den gauza guztiak ahaztu eta norberak bere izanaren kontzientzia hartza litzateke, nire ustez, norbere buruarekin egotea.


Hori egitea erraza balitz, ez dut uste gabonak (beste

HIRIGINTZA > HASI DITUZTE ZORTZI ETXEBIZITZA ERAKITZEKO LANAK

Iruetxeta-Sallabente izena izango du Uzarraga auzoan sortuko den kale berriak

Aurreko astean eraitsi zuten Sallabente baseria eta hantxe familia bakarreko zortzi etxebizitza eraikiko dituzte Sallabente baseria zegoen tokian. 2007an bertan amaituko dituze eraikitze lan horiek eta 2008 hasieran egongo dira etxe-jabeak hara bizi izatera joateko moduan.

Estilo modernoa izango dute orain eraikitzeten hasi diren eraikin berriei.



SALLABENTE Aurreko astean eraitsi zuten Sallabente baseria. AINTZANE IRIZAR

IRUETXETA-SALLABENTE KALEA
Lehen Iruetxeta baseria eraitsi eta bi eraikin egin zituzten hantxe, lau etxebizitzarekin. Orain- go etxebizitzekin, kale berria sortuko da. Kale berri horri izena

ere jarri diote dagoeneko; horretarako, bi baserriion izenak har-tu dituzte eta kalearen izena izango da Iruetxeta-Sallabente. Aurreko egubakotzeo osoko bilkuraren erabaki zuten izena.

"Zergatik zoriondu Gabon zahar gauean inoiz agurtu ez duzun pertsona? Gabonak direlako?"

horrenbeste gauzarekin geratzen den bezala) kontsumismoaren eta hipokrisiaren gailurra izango liratekeenik. Kanpoan dugunaren kontzientzia badugu soilik oso erabilerrazak garela uste dut.

Honekin zera esan nahi dut: Zergatik egin izugarrizko bazkari edo afari bat eta ondoren ez dakit zenbat egunetan beste ezertarako dirurik gabe gelditu? Konpentsatzen nauelako ala gabonak direlako? Zergatik zoriondu Gabon zahar gauean inoiz agurtzen ez duzun pertsona? Berarekin gertutasuna nahi dudalako ala Gabonak direlako? Zergatik horrenbeste argi jarri kaleetan? Beharra dago-elako ala gabonak direlako? Momentu honetan duda gutxi ditut. Gabonak direlako.

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

BASOAK > TRATAMENDUA BEHARREZKO DA

Pinukokoa ugaritzen ari da

Gipuzkoako Foru
Aldundiari neurriak
hartzeko eskatuko
dio Udalak

L.Z.> ELGETA

Pinukokoa ugaritu egin da azken urteotan Elgetako pinudietan. Hegazkin bidez egiten da gaitz horren aurkako tratamendua, eta 2001. urtean egin zuen azkenekoz Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Asteon egindako Baserritarren batzarrean erabaki dute tratamendua berriz eskatzea. Elgetatik Eibarrerako bidean dauden pinudietan nabaritu da

batez ere gaitz horren ugaritza. Hori horrela izanda, lursail horiek fumigatzeko eskatuko diote Aldundiari. Tratamendu hori uztaila eta iraila bitartean egiten da. Udalak jakinaren gainean jarriko ditu herriko baserritarra, ganadua erretiratzen dezan.

FORU ARAU BERRIA

Indarrean da Gipuzkoako Mendien Foru Arau berria. Baso landaketak egiteko baimenak, errespetatu beharreko distantziak eta abar finkatzen ditu arau horrek. Informazio gehiago nahi izanez gero udaletxera jo behar da. Besteala, Mikel Mendizabal basozaina Bergarako nekazari bulegoan egoten da martitzen goizetan.



PINUKOKOA Gaitza ugaritzen ari da Elgetako pinudietan.

L.Z.

NEGUA > ELURRAREN ETORRERARA AURRERATZEN

Elurra kentzeko bi makina egongo dira aurten ere

Gatz erreserba
eskasa da, eta
gehiago erostekotan
da Udalak

L.Z. > ELGETA

Atzeratu egin zaigu aurten negua, baina badirudi laster izango ditugula hemen tenperatura hotza zein lehenengo elurteak.

"Iazko protokoloari jarraituz elurra kentzeko bi makina izango ditugu aurten ere Elgetan", esan dio GOIENKARI Elgetako alkate Patxi Basaurik. "Bata Diputazioarena izango da eta bestea Udalarena. Beste makina bat Kanzpanzarren egongo da, Arrasate-Elorrio bidea zabalik egoteko".

Udalaren makina baserriako bideak zabalik edukitzete-

az arduratuko da aurten ere. Diputazioaren makina, aldi, Elgetatik Bergarainoko bidea zabalik edukitzearaz arduratuko da.

GATZA EROSI BEHARREAN

Udalak egun duen gatz erreserba eskasa da. "Momentu honetan 300 bat kilo izango ditugu bilgunean gordeta", esan du alkateak. "Erosi beharrean gaude", onartu du Basaurik.

"Iazko negua oso gogorra izan zen eta Diputazioa bera nahi-korri ibili zen".

Udalak gatz era erosi behar izan zuen joan den urtean, eta orduan sobratutakoak dira gaur egun Udalak gordeta dituenak.

Aurten ere gatz era erosteak aurreikusten du Patxi Basauri alkateak: "Neguaren arabera 2.000-3.000 kilo gatz behar izaten ditugu Elgetan. Erosi egin beharko dugu".

Udalaren makina baserriako bideak zabalik edukitzete-



URIBURU Hondeatze makina aparkalekuak egiteko lursaila prestatzen ari da.

L.Z.

ETXEBIZITZA TASATUAK > BI HILABETEKO ATZERAPENA DUTE LANOK

Pare bat astean hasiko dira etxe tasatuak egiten

Etxebizitza tasatuuen
azpian doan
transformadoreak
ezinegona eragin du

LARRAITZ ZEBERIO> ELGETA
Asteon hasi dira Uriburun egingo den aparkalekuak egiteko lanak egiten. Bertan egitekoak diren 18

etxebizitza tasatuak eraikitzeko lanak aste pare batean hasiko direla esan dio GOIENKARI Elgetako ardoak arduradunak.

"18 etxebizitza tasatuak eraikina egun langileon aldagelak dauden lekuaren egin behar ditugu. Orain, aparkalekuak hartuko duen lursaila prestatzen ari gara. Hori egindakoan aldagelak leku aldatu ditugu eta ondoren etxebizitza tasatuak lanekin hasiko

gara. Pare bat aste beharko ditugula kalkulatzen dut".

TRANSFORMADORE POLEMIKOA

Obrako arkitektoak ikus-onetsi duen proiektuak lehenengo proiektuan agertzen ez zen transformadore bat aurreikusten du eraikin honen azpian. Aldaketa honek kezka sortu du etxebizitzen onuradunen artean. Gaiari nola heldu aztertzen dabilta.

> BOLETA TXAPELKETA
Antonio Ibarluzea
markinarra nagusitu
zen lehenengo saioan

Bihar, zapatua, jokatuko da Gabonetako boleta txapelketako bigarren saioa.

Joan den astean jokatutako saioan Antonio Ibarluzea nagusitu zen. Bigarren Bolatokiko Josetxo izan zen eta hirugarrena beste markinar bat, Antolin Arizmendiarietta. Hirurek bina txirlo bota zituzten.

> OZKARBI PILOTA ELKARTEA
Mikel Errartek ezin
izan du finalerako
txartela eskuratu

Ez du lan makala egin Gipuzkoako Inter Clubs txapelketan Mikel Errarte pilotariak.

Txapelketako finalerdiaraino iritsi da aurten Ozkarbiko pilotaria. Ezin izan du ordea finalerako txartela eskuratu. Oinatz Gonzalez andoaindarra kalera zuen txapelketatik 22-08 irabazita.

> GABONETAKO SASKIA
Futbol taldearen
Gabonetako saskia 536.
zenbakia egokitza zaio

Domekan egin zuen Elgetako futbol taldeak Gabonetako saskiaren zozketa. Saria 536. zenbakia egokitza zaio eta onuradunak Iraman jaso dezake futbol taldearen saskia abenduaren 31ra bitartean. Saridunik agertzen ez bada ordezko zenbakia 283 da baina urtarrilera arte itxaron beharko du honek.

Aperribay, s.l.
Marmoldegia
eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



PARETA Urbanizazioan eraikitako pareta egonkortzen dabilta; urte bukaera edo amaierarako bukatuko dituzte lanak.

U.M.

OBRAK > HAINBAT OBRA EGITEN DABILTZA HERRIAN

Babes ofizialeko etxeen orubea konpontzen

Babes ofizialeko etxeak eraikitzeko orubea konpontzen dabilta; udaletxeko teilitua berritu egingo dute; eta hilerran ere lanean dabilta

UBANE MADERA > ARAMAIO
Hasi dira obrak egiten Pedro Inazio Barrutian, babes ofizialendaiko orubea konpontzen. Kontua zera da: urbanizazio lanetan eraiki zuten pareta bat. Baino babes ofizialeko etxeak eraiki behar dituen enpresak, Olabarrik, ez zuen seguru ikusten pareta hura. Eta esan zuten pareta konpondu arte ez zirela hasiko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen.

Hori horrela, Jaurlaritzaren aginduz, Amenabar enpresa lane-

an hasi da. Hain justu, paretaren egonkortasuna ziurtatzeko lanak egiten dabilta. Urte amaiera edo urte hasierarako bukatuko dute. 61.165,40 euroko aurrekontua dute.

Beraz, lanak bukatu eta gero, Olabarri enpresa etxeak eraikitzten has daiteke. Udalaren lizenzia badu, behintzat.

UDALETXEKO TEILATUA
Bestalde, oraingo astean hasi dira udaletxeko teilitu berria ipintzeko lanak egiten. Gasteiz-

ko Iñigo Construcciones y Rehabilitaciones enpresa arduratu da. Proiektuaren arabera, abendu amaierarako bukatu beharko dute, baina eguraldiak zerikusi handia izango du epean. Udalak dirulaguntza du lanok egiteko. Guztira, 70.000 euro inguruko aurrekontua dute.

KANPOSANTUKO PARETA
Bukatzeko, joan den barikuan hasi zituzten kanposantuko pareta zati bat (25 metro) konpontzeko lanak. Aretxabaletako Construlan enpresa dabil horretan, 5.127 euroko aurrekontuarekin. Arrakala bi dituen pareta zatia bota eta berria eraikiko dute. Asko jota, bi asteko epea dute bukatzeko.

NEKAZARITZA > NEKAZARI PRODUKZIOAK

Muztioa produzitzearen gaineko batzarra egingo dute

Abenduaren 15ean da hitzordua, 18:30ean, kultura etxean; edozein azal daiteke

U.M. > ARAMAIO

Muztioa produzitzeko eta komertzializatzeko asmoarekin dabilta herriko hainbat sagarzale eta sagardoazole. Orain arte egiten zuten sagardoa egiteari utzi eta haren ordez muztioa egitea pentsatzen dabilta, alegia.

Hala, asmo hori nork bere kontura landu beharrean, bideragarriagoa zaie elkartea bat sortu eta guztiean artean egitea aurrera. Besteak beste, muz-

tioa produzitzeko beharrezkoa duten tresneria denon arteen erosteko, Ezkio-Itsason egun duten modura. Izan ere, Ezkio-Itsason dagoen elkartea bisitzen izan ziren Aramaiokoak, egitasmoaren berri Aramaiora ekartzen.

ELKARTEA ERATU

Beraz, datorren abenduaren 15eko batzarrean azalduko dituzte eskuan darabilten egitasmo horren nondik norakoak eta batzen ibili diren informazio guztia. Eta elkarre horretako kide egiteko aukera interesa duten aramaioar guztiei helaraziko diete. Batzarrean bertan eman ahal izango dute izena.

AHT > KONTRAKO EKIMENAK

AHTren kontra, afaria, mahai-ingurua eta beste

Abenduaren 13an izango da mahai-ingurua; 15ean, beriz, afaria

U.M. > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenaren kontrako taldeak mahai-ingurua antolatu du abenduaren 13rako. Besteak beste, parte hartuko dute Lurra plataformako Alberto Friasek, EHNE sindikatuko kide batek eta Iñaki Antiguedad hidrologoak. Hitzordua da 19:00etan, kultura etxean.

Horrez gain, afaria ere antolatu dute; abenduaren 15ean egindo dute, bertsolariet eta tri-

kitilariek lagunduta. Eskolako jangelan izango da, 21:00etan. Aurrez, baina, poteoa egingo dute, 19:30ean hasita.

Bukatzeko, abenduko udal osoko bilkurarako dei egin dute bilkuren areto joateko, 18:00etan, herri galdeketaren alde egiteko.

KONTRAKO ARRAZOIAK

Horrekin guztiarekin batera, aramaioarren etxeetara bidaliko dituzte esku-orriak azaltzen zergatik dauden Abiadura Handiko Trenaren kontra: "Konponzineko kaltea egingo dio amarruri; gastu sozialaren murriketa eragingo du eta ez ditu konponduko zirkulazio eta garraio arazoak", besteak beste.

Debarri Aramaio

Mertxe Mondragon
Aramaioko alkatearekin berbetan

Emisio eguna:
Asteazkena 13, 21:15ean

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea

Aurrez galderak egiteko:
www.goiena.net webgunean edo 943 71 23 95
telefono zenbakian



goitb
Goiena Telebista
Ikusteko!

DEBARRI / Babeslea
GRUPO ARETXABAleta 1950 • 2006 ARRASATE

ZERBITZUAK > OSTATUA EGITEN

Urte eta erdian bukatu gura dituzte Soran etxeko berritze lan guztiak

Itxura berbera izango du, baina barrualdea guztiz aldatuko diote; eskailera, leihoa eta atea eta lurzoruaren zatiak mantendu egingo dituzte

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Hasi dituzte ostattua izango den Soran etxeko lanak. Garabi galantajarri dute etxe aurrean, eta guztiz eraberrituko dute.

HAMAR GELA ETA JANGELA HANDIA

Monse Valerio eta Loren Larrañagak, Gaztainuzketa mendi etxeen ardura daukatenak, apirilean erosia zioten Udalari Soran etxea edo Indianokoa. Oniritzi guztiak

jaso dituzte, eta orain dela aste batzuk hasi ziren eraberritze lanetan. Kanpoko itxura berbera izango du konpondu ostein, herriko ondare izendatuta dagoelako: "Barruko eskailera, habeak, leihoa eta atea mantendu egingo ditugu. Zoruanen zati batzuk ere gordeko ditugu: sarreran dauden harlauzak eta egur zatiak", dio Valerio jabeak. "Ahal den guztia berritu eta gorde gura izan dugu".

Barrualdeko antolamendua, ostera, guztiz aldatuko dute: hamar gela izango ditu, taberna, jatetxea 60 edo 70 lagunendako, laneko batzarretarako egongela 20 bat



BERRITZE LANAK Garabia jarri dute Soran etxearen atzeko aldean, eta kanpotik zein barrutik eraberritzen hasi dira.

M.A.

lagunendako eta jangela pribatu txiki bat. Jabeendako bizilekuera bertan egingo dute.

Lanok urte eta erdian bukatzeara aurreikusi dute, hau da,

2008ko udaberrian. Bien bitartean, Udalarenak diren Gaztainuzketako etxeetan jarraituko dute lanean, eta ordua iritsitakoan erabakiko dute zer egin.

GURASOAK > BATZORDE ALDAKETA

Gurutze Orobengoa izendatu dute Gurel-eko presidente

M.A. > GATZAGA

Gurel guraso elkarreka urteko batzar orokorra egin zuen orain dela astebete, eta batzordekideak aldatu zituzten. Eguzkiñe Alberdi eta Ainara Zubillaga dira sartu berri diren kideak.

BATZORDEKIDEAK

Lau lagunek osatzen dute Gurel elkarteko batzordea, eta bi urteko hautatzen dituzte. Azaroan elkarteko ardura lanak utzi zituz-

tenak Itsaso Egino eta Edorta Arana izan ziren. Haiekin ordez sartu dira Alberdi eta Zubillaga, eta batzordean beste urtebetetze egongo direnak Gurutze Orobengoa eta Ana Millan dira. Hain zuzen, Orobengoa da orain presidente, eta Millanek idazkari eta diruzain lanak egingo ditu.

EGIN BEHARREKO LANAK

Behin ludoteka eta liburutegia zabalik izanda, gazteek aisia-

diari dagokionez daukaten hutsunea betetzea zen Gurel-en hurrengo ardura. KZgunea izan daitekeela aukera bat aipatu izan dute, baina erabakia Udalarekin batera hartu behar dute. Gainera, begirale lanak egingo dituen norbaitek egon beharko luke KZgunean, eta oraindik ez dakite zela bideratu kontua. Bien bitartean, Gabonetako ekintzak antolatzeari hasi beharko du aldatu berri den guraso elkarreka.

> IRTEERA

Ahotsak taldearen ekitaldian izan ziren hainbat gatzagar

Joan zen zapatuan, abendua 2, Bilboko Euskalduna jauregian Ahotsak Emakume Taldeak egin zuen ekitaldian izan ziren Gatzagako hainbat emakume. Autobusa antolatu gura zuten joateko, baina, hainbat arrazoirengatik, gutxi batzuk joan ahal izan zuten azkenean.

Bakearen alde egindako adierazpenaren lekuko izan ziren beste 2.000 emakumerekin batera, tartean politikari zein enpresaburuak. Ekitaldi polita iruditu zitzaien, eta gustura itzuli ziren.

> GARRAIOA

Hainbat herritar kezkatuta daude autobus zerbitzuarekin

Autobus zerbitzua asko hobetu da azken urtean Leintz Gatzagan, baina oraindik kezkatuta jarraitzen dute hainbat herritarrek. Taxi-busak behin baino gehiagotan egin duela kale diote, eta gau-txoriaren ordutegiarekin ez daude erabat gustura. Badakite herritarrek asko ez dutela erabiltzen autobusa, baina hankamotz geratu delako zerbitzua ere badela diote.

Hori horrela, alkatearekin batzarra egiteko asmoa daukate, zein aukera dauden jakin eta zela hobetu aztertzeko.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ITOITZ ARMENDARIZ > MUSHERRA

"Pirenan bost lehenengo artean egon gura dugu"

Pirenako txakur txapelketarekin batera, Itoitz Munduko Txapelketan izango da aurten

Ahal duten moduan entrenatzen dira, temperatura hotza behar dute-eta horretarako

XABIER URTZELAI > ESKORIATZA

Itoitz Armendariz eskoriatzarrak hitzorduz beteta dauka neguko denboraldia. Espainiako Lurreko Txapelketan bosgarren sailkatu da, eta, pozteko moduko marka bada ere, badaki horrek ez duela erreferentzia moduan balio: "Urteko lehenengo hitzordua izanda, jendea entrenatu barik egoten delako".

Eskoriatzakoa Araba aldean ibiliko da egunotan, txakurrekin entrenatzen: "Goizean goiz joan behar izaten dugu txakurrekin entrenatzera, goizeko freskotasuna aprobetxatzeko. Alde horretatik, orain arte gura baino dezentetxago entrenatu gara. Baqueiraraino edo Soriaraino joan gara hotz bila, baina...".

ALPEETARA ENTRENATZERA

Neguko denboraldian bi hitzordu ditu Armendarizek gorriaz markatuta, Pirena lasterketa eta Munduko Txapelketa ere: "Gabo-

netan Alpeetan egingo ditugu hiru aste, entrenatzen. Eta, han gaudea aprobetxatuta, urtarilaren 2tik 6ra egiten duten Alpinerush proban hartuko dugu esku".

Urtarrilaren 14an itzuliko dira Frantziatik, eta hilaren 20an hasiko dute Pirena: "Pirenan, baina, 14 txakur beharko ditugu, eta horrek esan gura du nik laguntzaile lanetan jardungo dudala". Eskoriatzako musherrak Iker Ozkoidin lagun nafarrarekin batera osatuko du taldea. Hala, Armendarizek dioen moduan garrantzitsuena txakurrak gidatzea bada ere, 15 eguneko lasterketa horretan laguntzaileak ez dira gora begira egongo.

Pirenan ze helburu duten galdu diogu: "Bost lehenengo artean sailkatzen ez bagara ez gara gustura geratuko. Badakigu proba horretan bigarren, hirugarren edo laugarren sailkatzea den, eta aurten ere hor egon gura dugu". Dena dela, zuzenean esan gura ez badu ere, Armenda-



GIDARI Pirenan laguntzaile lanetan ibiliko da Armendariz. Munduko Txapelketan, erretreatuan bezala, gidatzen ibiliko da.

I.A.

rizi erraz antzematen zaio lehenengo postua daukatela buruan.

MUNDUKO TXAPELKETA

Pirena amaituta ere oraindik denboraldi luzea geratuko zaie bioi: "Otsailoko bigarren astean Suediara joango gara txakurrekin, Munduko Txapelketa presztatzena". Hantxe egongo da denboraldiko hitzordu garrantzitsuenetakoakoa: "Martxoko

lehenengo astean izango da txapelketa hori, Norvegian, eta lau etapako proba izango da".

Armendarizek onartu dueñezez, beste musher batzuek Munduko Txapelketarako plaza bertran behera utzi dutelako sailkatu da: "Diru asko behar da proba horretara joateko, eta aurrean zeuden lehiakide batzuek ez joatea erabaki dute. Hala, probara joateko babesleak bilatzeko lane-

tan gabiltza". Armendarizek eta Ozkoidinek Kataluniako beste musher batzuekin egingo dute bidaia. Hark, baina, ez du horren besteko zaitasunik, diruz ondo dabil-eta: "Guk kamisetak ateratzen jarri ditugu salgai".

Hotza etorri bitartean, Armendarizek, Ozkoidinek eta txakurrek entrenatzen jarraituko dute, goizean goiz bida ere.

FUTBOLA > PREFERENTEA

Aloñak etxean jokatuko du domekan; Mondrak eta UDAk bihar, kanpoan

Egubakoitzean jokatuko dute Mondrak eta UDAk, aurreratutako jardunaldian

Ondarroara joango da Mondrak, eta Zumarragara UDA; Aloñak liderra hartuko du, Zarautz

XABIER URTZELAI > BERGARA

Oñatiarrak dira Zubian etxean geratuko diren bakarrak. Bainaz dakigu zer gurako duten gehiago, etxean jokatu arren preferenteen sasoi onena duen taldearen bisita izango dute-eta (domeka, 15:30). Zarautz da liderra, ondo erakutsi du zergatik dagoen kategorian agintzen, eta bigarren sail-

katua sei puntu gutxiagorekin dago. Hala ere, talde horrek orain arte sekulako sendotasuna erakutsi badu ere -etxean batez ere joan den astean Zestoak ezusteko eman zien (0-1).

Mondrak, berriz, Aurrerako Ondarroa taldea izango du bihar, egubakoitza, kontrario (Zaldupe, 16:30). Ondarroarrek zeingehia-



GOLA OSPATZEN UDAkoak, derbian, Igor Arriagaren gola ospatzen.

goka bakarra irabazi dute etxean, eta Mondrak, orain arte, etxetik kanpora erakutsi du aurpegi onena. Gainera, zarata handirik atera barik, dagoeneko hirugarren lekuaren dago Mondra (24 puntu), eta puntu bakarrera du Anaitasuna.

ARETXABAleta, ERDIAN

Joan den asteko derbian eskuraturako hiru puntuak (2-1), sailkapenaren erdi-erdian dago Aretxabaleta, 16 puntu batuta. Garaiaren horrekin indarberrituta, aretxabaletarrek atzerago dagoen Urolaren zelaia bisitatuko dute bihar, egubakoitza (Argi-xao, 16:00).



KEZKA Azken sei urteak onak izan dira eskiatzaileendako, baina askok diote auren ez duela elur askorik botako.

x.u.

ESKIA > 2006-2007 DENBORALDIA

Egun batetik bestera zuritu dira eski estazioak

Astelehenean, eski estazioetako webcamedek elurrik gabeko zelaiak erakusten zituzten; atzo, eguztena, zuri esnatu ziren Pirinioetako mendiak

XABIER URTZELAI: BERGARA
Dakitenek diote aurtengo neguan ez duela elur askorik botako. Sei urtean behin, gutxi gorabehera, urte makala izaten da, eta badi- rudi oraingoari tokatzen zaiola.

Martitzenean Frantzia aldeko eski estazioetako webcamedek elurrik gabeko zelaiak erakusten zituzten. Aragoiko estazioak, bes-talde, hori erakustera ere ez ziren ausartzen. Aurreikuspenak, baina, uste baino lehenago bete dira, eta atzo goizean elurtuta esnatu ziren Pirinioetako mendiak.

Horrela esan digu Baqueira Beret

estaziooko komunikazioko ardu- radun Jose Albosek: "Atzo, 1.500 metrora, behiak zeuden zelaietan, eta gauean elurra bota du: 15 zen- timetroko lodiera dago". Albosek, baina, datozen egunoi begira ez du ezer aurreratu gura: "Eguba- koitzeko iragarpenerak dio ez due- la elurrik botako, eta diotenez zapatuian itzuliko da elurra berri- ro ere. Ezin dugu gauza handirik esan, gu ere zain gaude-eta. Elu- rra bota du, baina ez da nahikoa".

Egoera berean daude Fran- tziako eta Aragoi aldeko eski estazioak. Webguneetan ez dute

ezer aurreratu gura, elurra botan- ten hasi dela bai, baina inork ez du esaten ateak noiz irekiko dituz- ten. Hain zuzen, baikorrenek dio- te domekan eskiatu egingo dute- la. Badaezpada, eskiak alde bate- ra utzita egin daitezkeen ekintzen berri ematen dute Interneten.

ARAGOIKOAK, BATERA

Eski estazioek urtero egiten dituz- te berrikuntzak. Adibidez, Ara- goiko zazpi estazioak batera ate- ra dute *forfait-a*. Hala, 670 euro ordainduta, Astun, Candanchu, Cerler, Formigal, Javalambre, Panticosa eta Valdelinares esta- zioetan eskiatu ahal izango da.

Pol-Polen (943 76 48 51) edo Alo- ña Mendi (943 71 60 57) eski den- boraldirako federatu txartela ate- ratzeko aukera dago.

> PILOTA

Bergarako frontoiak alokatzeko izenematea abenduaren 17ra arte izango da zabalik

Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, 2007an herriko frontoiak alokatzeko interesa dutenek abenduaren 17ra arte izango dute izena emateko aukera. Izena eman dutenen artean zozketa egingo da jarraian.

Izenematea Agorrosin kirolgunean egin daiteke. Edozein zalantzarako 943 77 70 95 telefono zenbakira edo agorrosin@ber-gara.net helbidera jo dezakete interesatuek.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehenengo maila
Bartzelona-Realta
Zapatua: 22:00. Camp Nou.

Prefereente maila
Urola-Aretxabaleta
Egubakoitza. 16:00. Argia.
Ondarroako Aur.-Mondra
Egubakoitza. 16:30. Zaldupe.
Aloña Mendi-Zarautz
Domeka. 15:30. Azkoagain.

Bigarren erregionala
Mondra-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Atxabale.
Elgeta-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Unbe.
Antzuola-BTLS
Zapatua. 15:45. Estala.

Lehen mailako kadeteak
Eibartarrak-Bergara
Domeka. 10:30. Unbe.
Arizmendi Aretx.-Anaitasuna
Zapatua. 11:30. Ibarra.

*Gainontzeko jardunaldiak abenduaren 16ko eta 17ko asteburuan jokatuko dituzte.

ARETO FUTBOLA
Asteburuan ibarreko taldeek atsedena izango dute.

SASKIBALOA

ACB
Bruesa GBC-Real Madrid
Domeka. 19:00. Illumbe.

*Gainontzeko jardunaldiak abenduaren 16ko eta 17ko asteburuan jokatuko dituzte.

ESKUBALOA

Euskadi Txapelketa
Basauri-Ford Mugarrirri Arras.
Domeka. 12:15. Basauri.

Goreneko maila,
emakumezkoak
Leizaran-Verkol Aloña
Atzeratuta.

*Gainontzeko jardunaldiak abenduaren 16ko eta 17ko asteburuan jokatuko dituzte.

ERRUGBIA

Asteburuan ibarreko taldeek atsedena izango dute.

ATLETISMOA

Parte hartzte irekiko txapelketak, Anoetan
Zapatu goizean. Donostia.

Lazkaoko krosa
Domeka goizean, Lazkaon



Elgetako futbol taldeak Aretxabaleta hartuko du Unben

Elgeta (irudian) eta Aretxabaleta aurrez aurre izango dira zapatuan Eibarko Unbe futbol zelaian, 15:30ean. Ez da, baina, bigarren erregionaleko derbi bakarra izango, BTLsek Antzuola liderraren zelaira joan beharko du-eta. Antzuolaren eta bergararen arteko partidua zapatuan jokatuko da baita, Estalan, 15:45ean.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

Aloña Mendi 06-07
astelehen honetan,
Asteleheneko Goienkaria-rekin.

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihar- du astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.


Oraingo astelehenean, hilak 11, Aloña Mendi elkartearen futbol sailarena argitaratuko dugu.

Talde nagusia handiz, jokalarien izen eta abizenekin, eta baita beste talde guztien argazkiak ere, erdian koloreetan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria*.



Debagoieneko GREMIOAK



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoa, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak
- K-21
- Telleria 19 B02-B03
- T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
- www.goiena.net/blogak/azkarate

BIDABURU AROZTEGIA

Oñati

- Era guztietako berrikuntza lanak, leihoa, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.
- Zubillaga 20
- T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13
- bidaburu.h@euskalnet.net

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
 - Salmenta eta konponketa
 - Instalazio elektrikoak
 - Atezain automatikoak
 - Antena kolektiboak
- Otalora 14
- T: 943 79 16 10
- F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
 - Antena kolektiboak
- Zerkaosteta 15
- T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
- F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta

- Instalazio elektrikoak
- Belorrieta 15 behea
- T: 943 532 628 / 645 734 032
- F: 943 532 629
- aretxargi@euskalnet.net

RELE

Eskoriatza

- Instalazio elektrikoak
- Santa Ana 12 eta 17
- T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
- F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
 - Kontratak
 - Enpresen mantentze-lanak
- Intxartxueta 5
- T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
- F: 943 71 55 15

ZUTARRI SL

Arrasate

Zerkaosteta 17, behea

T: 943 79 67 78 / Faxa.: 943 77 10 09

zutarri@infonegocio.com

ESKAIOLISTAK

EMILIO ESKAIOLAK

Aretxabaleta

- Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa, sabai desmuntagarriak
- Bedarretako San Miguel auzunea 14, behea D
- T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza

- Barruko lanetan espezialitatea
 - Berrikuntza-cobra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
- Intxartxueta 7, 2D
- T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

Dela-torre@euskalnet.net

G. IZCUE IRURZUN

Arrasate

- Igeltserotza orokorra
 - Etxeen berrikuntza
 - Sukaldeak, komunak...
- Munar 6
- T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Sukalderako eta bainugelarako altzariak
- Santa Kurtz 24, behea
- T: 943 79 17 53
- F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
 - Berogailua eta gasa
 - Bainugelak
- Kale Txiki 9 behea
- Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Ura
 - Gasa
 - Kalefakzioa
- Mitarte 15
- T: 943 793 187
- F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
 - Berogailuak eta petrolio-produktuak
 - Klimatizazioa
- Aranburuzabala 15
- T: 943 71 47 14 / 606 007 369
- f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate

- Berogailua eta gasa
 - Galdrak aldatzea
 - Obra integralak
 - Zaharberriizeak
- Bolibar doktorea 5, behea C
- Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
- F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztia
 - Berokuntza eta gasa
 - Aire girotua eta haizeztatzea
- Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
 - Bainugelako altzariak
 - Berogailuak
 - Erretenak ipini eta garbitzea
- Santa Kurtz 7, 3. ezk.
- Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate

- PVC leihoa
 - Aluminio termikoko leihoa
 - Poliuretanozko leihoa
- Zigarrola 1-8 pab.
- Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
- F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
- Debagoina Industrialdea 11. pabilioia
- T: 943 79 11 35
- F: 943 77 31 20

LEIHATEK

Arrasate

- Leihoa eta ate isolatzialeak
 - Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
 - Kontraleihoa errustikoak eta mallorkinak
 - Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
- Okendo 1 - behea
- T: 943 79 69 91
- ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
- Basabe poligonoa D-2-1
- T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
- F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errrotulazioa
- Maitena 3-1.
- T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

L. GONZALEZ PINTURAK

Aretxabaleta

- Pintura orokorra, pintura papereztaua
- Basabe poligonoa F-6
- T: 686 113 581


Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **EGOITZ UNAMUNO**
Saltza askotan
dabil Egoitz
Unamuno
Whiskas
arrasatearra.
Eskalatzaile
taldeak boulder
txapelketa
antolatuko du
hilaren 16an,
Arrasaten > **42**



> PUNKA

Oñatiako
gaztetxearen
aldeko jaialdia
zapatuan > **37**

> KOMUNIKAZIOA

Badiharduguren
azken lana:
*Dialektologia eta
tokiko batua* > **43**



ARGAZKIA: IMANOL SORIANO

DURANGOKO AZOKA

Ezinbesteko hitzordua

DURANGOKO AZOKA > 41. EKITALDIA

Durangoko azoka: diskoen eta liburuuen erakusleihoa, nobedadez beteta

Hamaika nobedade izango dira aurten ere: 317 stand prestatu dituzte Landako erakustazokan

Domekara bitartean ekitaldi ugari antolatu dituzte

EDU MENDIBIL > BERGARA
Etxeetara ongietorria ematen duen zerri horietako bat azaltzen da aurtengo ekitaldiko kartelean. Bada, liburu eta diskoen etxeak bisitari ugari izango ditu domekara bitartean. Izan ere, urterik urtera marka guztiek hausten ditu Durangoko azokak, eta aurten ere beste horrenbeste gertatuko dela aurreikusten dute antolatzaleek.

Argitaletxe eta diskotxeetako arduradunen joan-etorria izan da nagusi aurreko egunotan Landako erakustazokan; guztira, 317 stand prestatu dituzte, eta, betiko moduan, hamaika nobedade izango dira liburu, disko, DVD, fanzine eta beste hainbat produkutu dagokienez. Inprimategienan ere majo egin dute lan azken hilabeteotan. Euskal produkzio gehiena Durangora begira kaleratzen da (400 nobedade inguru izango dira aurten), liburu eta disko aurkezpenak ugaldu egiten dira udazken partean, eta argitaletxeak baikor dira salmentei begira. Plaza ezin hobea bilakatu da Durango.



LANDAKO Bisitari ugari espero dituzte aurten ere Landako erakustazokan. Atzo goizean jende mordoa zebilen. IMANOL SORIANO

EGILEAK, BERTATIK BERTARA
Esan bezala, Durangoko azoka bost egunez izango da zabalik, domekara arte. Ordutegiari dagozkionez, 10:30ean zabalduko ditu ateak Landakok eta 20:30ak zabalik izango da azoka. Eguraldiari dagokionez, euria eta hotza iragarri dute datozen egunotarako; hala ere, liburu eta diskoen berotasunean Durangoko giroa ez da makala izango.

Egitaraua ekitaldiz josita dator: mahai inguruak, bertso saioak, erakusketak, film emanaldiak (*Gora Vasco. Milonga del temple y carretilla* dokumental argentinarraren estreinaldia, besteak beste), gaztetxoei zuendutako haur literatura aretoa, txat saioak eta, nola ez, egileen presentzia. Egileekin izaten den gertuko harreman hori da Durangoko ezaugarrietako bat.

BIDAIAK
Aurtengo azokan izango diren ekitaldi gehienak *Bidaiaik* gaian inguruan izango da. Durango salgai izango diren produktuekin ere beste lurralte batzuetara bidaiatzeko aukera izaten da. Bestalde, Durangorainoko joan-etorria egiteko, garraio publikoa erabiltzea gomendatu dute antolatzaleek.
<http://www.durangokoazoka.com>



NOBEDADEAK Koldo Zuazoren azken lana da nobedadeetako bat.

IMANOL SORIANO

DEBAGOIENTIK DURANGORA

> OSKAR ARANA
Brooklyngo erokeriek. Paul Auster. Alberdania. Oskar Aranak euskara itzulita.

> ARANTZAZU EDIZIO FRANTZISKOTARRAK
Hainbat lan.

> JOXE FELIX DIAZ DE TUESTA
Euskal Herria atzerritarren ahotan. Arrasate Argitan KE.

> DES-KONTROL
Duintasunez eutsi! Oihuka.

> JUAN MARTIN ELEXPURU
Harapjolea. Ibaizabal Edelvives Bergarako aditz taulak. Badihar-dugu elkartea.

> JUAN CARLOS IRIZAR
Itsaso. Pianorako musika. JK Irizar.

> MAHASTER RIVER
Irtenbiderik gabeko autobideak. Gaztelupeko Hotsak.

> POTEMKIN
Potemkin. Oihuka.

> RUPER ORDORIKA
Memoriaren mapan. Elkar.

> UNE
Une nare eza. Oihuka.

> PELLO ZABALA
Zeruan zer berri. Alberdania.

> KOLDO ZUAZO
Deba ibarreko euskara. Badihar-dugu Deba ibarreko euskara elkartea.

ARGIZAIOLA SARIA

Argizaiola saria, mende erdia egin duen 'Jakin' aldizkariari

Gerediaga Elkartea Argizaiola saria ematen dihardu 1992a ezkerro. Aurtengo saritua *Jakin* aldizkaria izango da, euskara eta kultura uztartzen 50 urte bete dituelako aurten. *Jakin* aldizkariko lantaldeak euskara edozein gairen gainean hausnarketa egiteko tresna izatea bilatu dute. *Gauean Argi* sari emate ekitaldia gaur, eguna, izango da, Durangoko San Agustin Kultura Gunean, 20:30ean.

50 URTEKO IBILBIDEA

Arantzazun sortu zen *Jakin* aldizkaria 1956. urtean, frankismoa indarrean zegoenean, *Esprit* aldizkari frantsesa isplu zuela. 1967an Arantzazu utzi eta hiri giroan kokatu zen aldizkaria, gaur egun egoitza Donostian duelarik. Bi aldiz jaso du debeku administratiboa eta 10 urteko isilaldia izan du urte hauetan guztietan; 1977tik etenik gabe kaleratu da. Pentsamendu eta kulturako aldizkaria da *Jakin*: eztabaidea intelektualen panoramika eskaini nahi du, euskal kulturako nahiz munduko gorabeherak argitzeko asmoz. Joan Mari Torrealda da aldizkariaren zuzendaria gaur eta bi hilabetetan behin kaleratzen da *Jakin*: 157 zenbakira iritsi da dagoeneko. Ale gehienak gai baten jiran antolatzen dira normalean.

50
URTE

Jakin 155
uztala-abuztua
2006

Autodeterminazio eskubidea:
teoriak eta auziak
INAKI SOTO / JULEN ZABALO

Olentzero, non zaude?
Gogoeta bat Irune-Veleiare buruz
PRUDEN GARTZIA

Pertsonaia femenina euskal
eleberrigintza garakidean
GEMA LASARTE

'JAKIN' Pentsamendu eta kulturako aldizkaria da *Jakin*.

MUSIKA > 'OÑATI BIZIRIK' KONTZERTUA ARRASATEN

Oñatiko gaztetxearen aldeko kontzertua izango da Arrasaten

Oñatiko lau punk-rock taldek euren herriko gaztetxearen aldeko kontzertua egingo dute Arrasaten; Oñatiko eta Arrasateko gazte batzarrek antolatu dute elkarlanean

IKER BARANDIARAN > DEBAGOIENA
Etzi, zapatua, *Oñati bizirik* punk-rock jaialdia egingo dute Arrasateko gaztetxeen. Antolatzaleak OGA (Oñatiko Gazte Asanblada) eta AGAKO (Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua) dira, eta Oñatiko Portu tabernak babestu egin du.

Emanaldia 19:00etan izango da eta honako lau taldeek esku hartuko dute: Drakes, Kontralei, Triskantza eta Sospechos.o.s.

GAZTE BATZAREN SOLIDARITATEA
Jakinekoa da gaur egun Oñatin ez dagoela gaztetxerik. Hori gogo-



PUNKA Oñatiko punk-rock taldeak arituko dira. Argazkian, Drakes.

GOIENKARIA

ratzeko, gazte batzarrak uda ostean *Oñati bizirik* izeneko disko bil-duma kaleratu zuen herriko punk talde batzuekin. Diskoan, aipa-

tutako lau taldeez gain, Krimen eta Los Vagueza Cronicak ere esku hartu zuten. Antolatzaleen asmoa zen beste bi talde horiek

ere zuzenean aritzea, baina ezin izan dute asmoa bete.

Arrasateko gazteek gaztetxea eskaini zieten horretarako.

ANTZERKIA > OIHULARI KLOWN

Eguenean, Virginia Imazek 'La modelo clown contrapublicitaria' eskainiko du

Hedabideek erakusten dituzten emakumeen gaineko eredu sinesgaitzak parodiaturako ditu Imazek Arrasateko Emakume Txokoan

I.B.> ARRASATE
Eguenean, hilaren 14an, Virginia Imazek *'La modelo clown contrapublicitaria'* ikuskizuna egingo du Arrasateko Emakume Txokoan. Imazek gaztelaniaz egingo du ikuskizuna, eta 19:00etan izan-

go da. Emakume Txokoak antolatzen dituen ekitaldieta ohi turari jarraituta, ez da sarrerarik ordaindu behar izango.

Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko sortzaileetako bat da eta *curriculum* handia dauka.

Ipuin kontalaria, clowns eta pailazoak da, besteak beste. Egueneko ikuskizunean, clown parodian, *Pauxa* antzeztuko du. Protagonista hori publizitate modelo izateko aurkeztu da eta horretarako probak egin beharko ditu.

IKUSLEAK HAUTAGAITZAT

Hautaketa proba egiteko zain dagoen bitartean, ikusleak hautagaitzat hartuko ditu. Are gehiago, ikuskizunera gerturaturakoei protagoni-

nistak dituen beldurrrak eta orain arte bizi izandako esperientziak kontatuko dizkie, besteak beste.

EMAKUMEEN EREDU SINESGAITZAK

Bide batez, telebistak eta bestelako hedabideek erakusten dituzten emakumeen eredu sinesgaitzak erakutsiko dizkigu Virginia Imazek, parodia erabilita. Umorea eta poesia erabiliko ditu emakumeen eredu eskuraezinei eta bestelako ei kritika egiteko.

DANBAKA

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: danbaka.com webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ. Eta Espaloian jarritako kutxetan.

| | | | |
|----|----------------------------|--------------------|---------------|
| 1 | DRAKES | OÑATI | Botoen %18,70 |
| 2 | LITTLE LITTLE MUCH | ARRASATE | Botoen %16,53 |
| 3 | KLAKSON | ANTZUOLA-ZUMARRAGA | Botoen %10,65 |
| 4 | ABY-KEM | BERGARA | Botoen %9,61 |
| 5 | ANAL BAG | ARRASATE | Botoen %8,09 |
| 6 | RAUL LASA | ARRASATE | Botoen %7,09 |
| 7 | UNNEA | OÑATI | Botoen %5,82 |
| 8 | SCAM | ARETXABAleta | Botoen %5,64 |
| 9 | THE 5 TWISTERS | ARRASATE | Botoen %4,93 |
| 10 | BELCEBLUES | BERGARA | Botoen %2,14 |
| 11 | IGOR | ARETXABAleta | Botoen %1,97 |
| 12 | OZEN | ARRASATE | Botoen %1,63 |
| 13 | MALENKONIA | OÑATI | Botoen %1,63 |
| 14 | LOS CRETINOS | ARRASATE | Botoen %1,40 |
| 15 | MATX | ELGETA | Botoen %1,25 |
| 16 | YOTOX | BERGARA | Botoen %1,06 |
| 17 | MAHASTER RIVER | BERGARA | Botoen %0,81 |
| 18 | JIM TNT & AMAIA | ARRASATE | Botoen %0,35 |
| 19 | INALECTRIK | ARETXABAleta | Botoen %0,35 |
| 20 | AZKAITER PELOX | BERGARA | Botoen %0,35 |

DANBAKA))))

ASTELEHENKO GOIENKARIan!

Danbaka-ko kontzertuen gaineko informazio guztia ASTELEHENKO GOIENKARIan:

kronikak, kritikak, iritzia, inkestak, taldeen impresioak, argazkiak...

Eta baita ikuslearen sariaren gaineko sailkapen eguneratua.

Hori guztia eta gehiago... ASTELEHENKO GOIENKARIan.

Erosi ASTELEHENKO GOIENKARIA edo egin zaitez harpidedun!

INFORMAZIO + www.danbaka.com

gazte kutxa

Goienechea

Elgetako Udalarena

Gipuzkoako Foru Aldundia

COPERA TATTOO PIERCING

Carrión Estilo

Z

IRUDI SPORT

ACTORES

MUNDARAKUN UNIVERSITARIO

IMOKOROSTIA
Ibargari 3 • BERGARA
Tel. / Fax: 943 76 97 97
www.inmokorostia.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• S. Antonio 50 m². Berriuta.
• Duplex Ortibar. Oso ondo.
• Masterreka 92 m². Ondo.
• Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
• Angiozar Bi solairu. Berrietzko.
• Ibargari 118 m². Oso ondo.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• Pedro 65 m². Prezio ona.
• Martoko 80 m². Prezio ona.
• Simon 80 m². Oso ondo.
• Ibargari 80 m². Oso ondo.
• Ortuña 97 m². Oso ondo.
• Osintxu 95 m². Prezio ona.
• Zubiaurre 65 m². Oso ondo.

Etxebizitza berrien erakundak San Lorenzen 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobeak.

Elgeta:
• Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela, Duplex-ak, garajeak, terraza. Bista politik.

DEBA GARAIA
IMMOBILIARIA
Telefónos Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA:
• Ibargari 118 m². Oso ondo.
• Bidekuruteta 60 m². Oso ondo.
• Bolu 100 m². Ondo.
• Duplex 72 m² + 34 m².
• Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
• Artekale 70 m². Ondo.
• Masterreka duplexa 170 m².
• Juan XIII plaza 80 m². Berriuta.
• Masterreka 79 m². Ondo.
• Artekale 74 m². Ondo.
• Angiozar bi solairu etxeak. Berrietzko.
• Masterreka 87 m². Oso ondo.
• Ibargari 80 m². Ondo.
• Fraiskozuri 102. Ondo.
• Arrizuri 97 m². Oso ondo.
• Zubiaurre 62 m². Ondo.
• Mugurta. Duplex berria.
• Martoko 50 m². Berriuta.
• San Lorenzen 18 etxebizitza berri. Garajeak eta trastelekuarekin.
• ANTZUOLA:
• Duplex berria erdiyaldean.
• Sagasti 71 m². Ondo.

Alfa
INMOBILIARIA
HIPOTECAS
Parroquia ondoan
Tel: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

ARRASATE:
• S. Josepe 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, 25 m²-ko garbia.
• Ergun 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
• Ile-apaindegia. Saldu edo alotatzan da. 16 urteko esperientzia.
• Makatena. 3 logela, egongela, jangela, komuna, garbia.
• S. Teresa. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, sotoa, berogailua, lehoia.
• Belar denda erdiyaldean eskuadulak da.
ARETXABALETA:
• Etxebizitza zoragarria lursalarekin.
• Marloie. Duplex paregabea, garajeak, sotoa, trastelekuak.
• Portasol. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela.
ESKORIATZA:
• Baserrizorrak. 7000 m²-ko lursala. 450.760 ?
LEKEITIO:
• 2 baserrizorrak eraiki berriak.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU
Berriola. Beheko auzoa, 4. solairua. Egongela, bi logela, sukaldea, bainugela eta ganbara. Berriuta. 639 58 13.

Antzuola. Etxebizitza salgai. Berogailua, 3 logela, jangela, egongela eta balkoia ditu. Eguzkitua eta berriuta. Berehalaz joateko gertu. 685 70 41 10.

Antzuola. Etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, bainugela, sukaldea eta balkoia. Denakan poaldera. Eguzkitua. Jantzia. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 679 52 65 95.

Aretxabaleta. Duplexa salgai. 620 17 05 32.

Aretxabaleta. Luxuzko txaleta salgai. Duran, Ordaintzeko erraztasunak. Deitu telefono honetara: 657 79 81 78.

Arrasate. Apartamentu berria salgai herri erdi-erdian. Egon-gela, sukaldea, logela bat, bainugela, trasteleku, igogailua, berogailua. Oso polita. Deitu 16:00etatik aurrera. Deitu telefono honetara: 670 55 87 41.

Arrasate. Etxebizitza salgai Izarra dorrean. Hiru logela, sukaldea eta egongela. Berehalaz bizi-zera joateko gertu. Deitu telefono honetara: 630 07 07 27.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Andres auzoan. Berriuta. 200.000 euro. Deitu telefono honetara: 635 75 50 36.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zerrajera kalean. Hirugarren solairua. 97,5 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea jantzia eta hiru balkoi. Garaje itxiarekin. Prezio berria: 605 77 58 64.

Arrasate. Garaje plaza salgai (14 m²) Usatxe plazan. Deitu telefono honetara: 665 71 40 34.

Bergara. Zubiaurre kalean. Guztiz berriuta. Hiru logela, balkoia eta ganbara. Berogailua dauka. 943 28 76 36.

Bergara. Etxebizitza salgai erdi-erdian. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena kanpoaldera, ikuspegia onekin. Solairu altau, igogailua-rekin. 620 18 59 06.

Bergara. Simon Arrietaen. 80. metro koadro. Berogailua, igogailua, bi logela eta balkoi handia. Berriuta. Garajea aukeran. Dei-

102. EROSI
Bergara. Zubiaurre kalean. Guztiz berriuta. Hiru logela, balkoia eta ganbara. Berogailua dauka. 943 28 76 36.

103. ERRENTAN EMAN
Apartmentua errentan. Cau-teret erdiyaldean, Frantziko Pirinioetan. 4-6 lagunendako aproposa. 625 70 61 91.

Aretxabaleta etxea alokatzen dut. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Deitu telefono honetara: 652 76 79 57.

Gasteizen apartamentua hiri erdian. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Guztik jantzia. Trasteleku eta ganbara. Hiru urte dela berriuta. Solairu alta, igogailurekin. Berogailu indibiduala. 629 75 54 22.

Legutiano. Etxebizitza salgai. Egongela, jangela, komuna, lau logela eta ganbara handia. 945 45 52 68 edo 690 10 21 30.

Oñati. 86 m². Bidebarrieta, hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela, trasteleku eta garaje. Deitu telefono honetara: 635 73 08 67.

Oñati. Arantzazuko Ama kalean. 70 m². Bi logela, bi bainugela, egongela, eta sukaldea, bainugela eta ganbara ere. Gauez deitu. 943 71 62 58.

Oñati. Etxea salgai dago, leku eta egoira oso onean. Sukaldea, egongela, hiru gela, bainugela, ganbara. Garajea ere aukeran. Deitu telefono honetara: 655 74 80 47.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi. 80 metro koadro. 19 metro koadroko edo 35 metro koadroko garaje itxia aukeran. Deitu telefono honetara: 656 74 80 47.

Oñati. San Lorentzen apartamentua. Bi logela, salo-sukaldea, komuna eta terraza handia. Garajea aukeran. Dei-

goa. 80. Simon Arrietaen. 80. metro koadro. Berogailua, igogailua, bi logela eta balkoi handia. Berriuta. Garajea aukeran. Dei-

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

- 101. SALDU
- 102. EROSI
- 103. ERRENTAN EMAN
- 104. ERRENTAN HARTU
- 105. ETXEAK OSATU

2. GARAJEAK

- 201. SALDU
- 202. EROSI
- 203. ERRENTAN EMAN
- 204. ERRENTAN HARTU
- 205. ETXEAK OSATU

3. LOKALAK

- 301. SALDU
- 302. EROSI
- 303. ERRENTAN EMAN
- 304. ERRENTAN HARTU
- 305. BESTELAKOAK

4. LANA

- 401. ESKAINITZAK
- 402. ESKAERAK
- 403. ERRENTAN EMAN
- 404. ERRENTAN HARTU
- 405. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

- 501. JASO
- 502. EMAN
- 503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

- 601. SALDU
- 602. EROSI
- 603. ALOKATU
- 604. KONPONDU
- 605. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

- 701. SALDU
- 702. EROSI
- 703. EMAN
- 704. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

- 901. AGURRAK
- 902. HARREMANAK
- 903. DEIAK
- 904. BESTELAKOAK

10. RELAX

- 801. SALDU
- 802. EROSI
- 803. EMAN
- 804. HARTU
- 805. TRUKATU
- 806. GALDU
- 807. AURKITU
- 808. BESTELAKOAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.



**PIPIEN, TERMITEN,
ETA ABARREN
AURKAKO TRATAMENDU
ANTIXILOFAGOAK EGURREAN,
ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)**

ARRASATE
Zerbitzaria behar da asteburueta taberna baten lan egiteko.
605 72 72 39
(Iñaki)

ARRASATE
Sukaldari laguntzailea behar da asteburueta taberna baten lan egiteko.
618 62 79 88
(Ainhoa)

Bizikleta salgai. Ditec 890 Full Carbon. Neurria: 54. Campagnolo Record. Urtebetek dauka eta oso gutxi erabilera dago. 1.600 euro. Deitu telefono honetara: 678 72 89 18.

Eskusoinuak salgai. Bata: han-dia eta teknologia; bestea: txikia eta botoiaduna. 943 79 16 79 edo 652 72 01 15.

Gurpildun maleta salgai. Bi pertsonaren gauzendako lekuak dauka. 40 euro. Telefonoa: 943 79 68 18.

Ile-apainketa tresneria salgai. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 943 78 61 92.

Honda CDR 600 F motorra salgai. 1993ko. Pneumatiko-estal-kai, balazta eta bateria berrikin. 605 74 52 02.

Opel Astra turbodiesela. 1997ko. 165.000 km. 699 60 20 10.

Peugeot 206, Urdina, gasolina, 30.000 km. 652 77 11 08.

Honda XR 650 R motorra salgai. 7.500 km, egoera oso onean. 3.900 euro. 665 71 42 69.

Honda CDR 600 F motorra salgai. 1993ko. Pneumatiko-estal-kai, balazta eta bateria berrikin. 605 74 52 02.

Koltxoia eta somierria salgai, hankekin. 90x180. Deitu telefono honetara: 605 72 64 43.

Masajeak emateko mahai salgai. Li erabili gabe. Alturaren erregulagarreria eta toles-garraria. Larri beltzezko. 300. 1993ko. 605 72 64 43.

Peugeot 806 autoa salgai. 6.000 euro. 605 72 17 34.

Seat 127 salgai. Egoera onean. 943 76 46 90.

Seat Ibiza, 110 ZP TDI Sport. 5 urte eta 103.000 km. Gurpuzalazko berriak, jarri eta kentzeko lotura-bola, goiko parrillaeta CD kargadorea barne. 7.500 euro. 649 27 38 18.

Volkswagen Passat 1.9 TDI, 130 zaldil-potentzia, haigheño. Oso egoera onean dago. Deitu telefono honetara: 630 47 35 30.

804. HARTU

Musika instrumentuak hartuko nitzuke. Deitu 18:00etatik aurrean. 943 78 71 58.

805. ALOKATU

Karabanak gordetzeko lekuak alokatzen dira. 616 82 22 15.

806. GALDU

Aterkia galdu nuen azaroaren 19an Aretxabaleta, Ezkutu aurrean, Loreduna da. Telefonoa: 943 79 75 62.

Fujifilm kamera digitala galdu nuen azaro bukaeren Aretxabaleta edo Arrasaten. Deitu telefono honetara: 665 71 46 26.

Giltzak galdu nituen Lanbide Eskola inguruan. Deitu telefono honetara: 943 79 39 42.

807. AURKITU

Bergara. Aranerreka auzoan patinete bat aurkitu genuen joan den astean. Kerten gorria du. 695 78 09 43.

808. BESTELAKOAK

Arrasate. Uretako kefir-a duen norbaitekin harremanetan jarri nahi nuke. Deitu telefono honetara: 695 78 52 49.

Bergara. Hektarea bateko pinu-dia salgai Bergaran



Iñaki Larrañaga eta Ana Muxika bergararrak orain dela 25 urteko abenduaren 5ean ezkondu ziren Antzuolan, Uzarragan. Zilarrezko ezteiak bazkaria eginda ospatuko dituzte. Familiakoen partetik, zorionak!

hildakoak

- Eusebia Igartua Irizar. Oñatin, azaroaren 30ean. 93 urte.
- Carmen Nuñez Hermida. Oñatin, abenduaren 5ean. 84 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01
Eskelaren prezioa: 85 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bitan, argitaratz gero, 100 euro.
Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.



ESKER ONA Euxebi Igartua Irizar

Oñatin hil zen 2006ko azaroaren 30ean, 93 urte zituela.

Zure irrifarra
ta alaitasuna
beti gure bihotzeten.
Zure ilobak.



Oñatin, 2006ko abenduaren 7an.

URTEURRENA

Josefa Lete Arriola

Lehen urturreneko meza domekan, abenduaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Eusebia Arantzeta Lasagabaster

Bergaran hil zen 2005eko abenduaren 22an, 98 urte zituela.

Lehen urturreneko meza domekan, abenduaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Antonio Igartua Oruesagasti

Lehen urturreneko meza domekan, abenduaren 10ean, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Abenduaren 11: 110 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, abenduak 11, sari horiek izen-abizenak izango dituzte.
Eta zeu izan zaitezke saridunetako bat!

109. zozketako saridunak

PAMIOLA argitaletxeko liburu sorta bat
• Alaitz Perez de Arenaza (Arrasate)

Gonbidapen bat Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridunari bi emango zaizkio).
• Elena Txintxurreta Igartua (Oñati)

110. zozketako sariak

• Zortzi sarrera abenduaren 15ean, ELGETAKO ESPALOIAn, DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAREN barruan izango den kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango





Baldintzak

• Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
• Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902-36 38 51
09:00etatik 18:30era.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

bila-bila 7**hitz gezidunak**

| | | | |
|---------------------------------|----------------------------------|---|----------------------------|
| | Zeinu zodia-kala Temak, setak | Zekenak, ziztrinak Santuren apokopea | Aukera Lehen bi bokalak |
| Borrokarik eza Laugarren hil | | | |
| Zaborra | | | Sufrea |
| IRUDIKO MENDIA | | | Eratu |
| Lanpara | Neu, nihaur | | |
| | | Atomo kargatu Sarrera | |
| Pepe ..., kazetaria | | Emakume zahar | |
| Latza | | Erabat bete | |
| | | | 5. eta 3. bokalak |
| Gaizki esaka aritu | | | |
| Zuberoako hiriburua | | | |
| | | Akuri | |

GOIENKARIA

sudokua

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 4 | | | | | 7 | 1 |
| 6 | | | 1 | | | 2 | |
| | 2 | 4 | | 8 | | | |
| 5 | 8 | | | 1 | | | |
| 9 | | | | | | 6 | |
| | 8 | | | | 5 | 9 | |
| | | 3 | 4 | 2 | | | |
| 6 | | 9 | | | | 5 | |
| 2 | 4 | | | 7 | | | |

hieroglifoa

Zeinek kendu dio erregina?

**hizki salda**

Debagoineneko 5 pilotariren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | L | O | H | U | G | I | J | E |
| N | A | D | O | S | H | K | L | R |
| D | Z | N | I | M | A | K | T | R |
| A | K | O | A | R | O | O | I | A |
| R | A | A | H | R | K | E | N | S |
| T | N | R | O | B | A | T | D | T |
| E | O | R | T | E | S | I | O | I |
| D | E | E | U | B | E | R | A | |
| S | I | B | P | I | Z | T | E | Z |

bono fotoa

Ze herrian dago XV. mendeko eliza hau eta zein da bere izena?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorberezibar

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONO... .

Ekari txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Golenako edozein egoitzara

Gran Feudo Chivite ardo gorria

75 cl-ko botila

3,15 € 524 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
J. ANTONIO MARTINendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Ipizte.

**umore giroan**

Kike Amonarriz

Migeliko Parisen

Parisen dugu Migeliko, bere aholkularirik gertukoenekin. Batetik bestera dabilzala Emile Zola-ren estatua baten aurretik pasa dira:

- Ez al da "Miserableak" idatzi zuena?




- Ez, presidente jauna.
"Miserableak" Victor Hugo idatzi zuen.

- Frantziar hauek ulertuko dituenik ez da. "Miserableak" Victor Hugo idatzi eta oroitarria Zolari egin!


Hostoen Arrastoan

Ebak zuhaitz batetik askatutako hostoa airean bueltaka ikusi du:


- Hara! Gizon ikusezina!

soluzioak

Jerogifilekoak: dorre beltza!



Instrumentuak



- Piano kurtsoa. 7 urtetik aurrera.
- Gitarra kurtsoa: elektrikoa eta española. 7 urtetik aurrera.
- Talde murriztuak: instrumentu bana ikasleko.

PIANO ELEKTRIKOAK

450 €-tik aurrera

GITARRA ELEKTRIKOA

170 €-tik aurrera

+ Amplifikadorea + uhala + zorroa + afinatziale elektronikoa
+ kablea + hari sorta + puak + puak gordetzeko kaxa

BAXUA

215 €-tik aurrera

+ Amplifikadorea + zorroa + uhala +
kableak + puak + puak gordetzeko kaxa

GITARRA ESPAINOLA

50 €-tik aurrera

BATERIA OSOA

295 €-tik aurrera

Plater eta aulkia-rekin.

BOST ZORTZIDUNEKO TEKLATUA

99 €-tik aurrera

Konponketa tailerra

- Taberna, pub, diskoteca, orkestra eta talde musikalak instalazio eta mantentze-lanak



**Carrión
música, s.a.**

Manuel Iradier kalea 20. GASTEIZ

Tel.: 945-23 07 49 • Faxa: 945-23 14 25 • Poltsikoko: 629-43 17 04

**Zapatu arratsaldeetan irekita
(abenduaren 16tik 30era)**

**120 URTE ZUEN ZERBITZURA
ESKA EZAZU AURREKONTUA KONPROMISO BARIK**

Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriozt 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

BIDEO EKOZPENAK

ISLADA MULTIMEDIA

BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegarieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABAleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otarria Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABAleta / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA

ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

JESÚS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

JUAN MARI OSINAGA

ARRASATE / Zerkaosteta 17, behe
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ASEGURUAK

GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA

ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

DISEINU GRAFIKOAK

ISLADA MULTIMEDIA

BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegarieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otarria 16, solairuarte esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN

BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Egoitz Unamuno > Santamasetako boulder txapelketako antolatzailea

"Frontoian eginda, Santamasetako boulder txapelketak asko hobetuko du"

Datorren zapatuan, hilaren 16an, egingo dute Santamasetako VI. boulder txapelketa, Uarkapen.

Eta, Uarkapen diogunean ez gabilta bertan dagoen boulder txapelketa, Uarkapen.

ere, aurten, lehenengoz, frontoian bertan egingo dute txapelketa. Eskalatzaile taldea dabil hori

antolatzen, eta tartean dabil, beste saltsa askotan moduan, Egoitz Unamuno, *Whiskas*.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Boulder txapelketa aitzakia hartuta, Egoitz Unamunorekin (Arrasate, 1978) izan gara. Askok ezagutzen dute Unamuno, eta bat baino gehiago harrituta geratuko da bere izena irakurrita. Izan ere, erretiratuko gazte hori *Whiskas* ezizenez da ezagunagoa.

Aurten indartsu dator Santamasetako boulder txapelketa. Bai, dagoeneko seigarrena da, eta urtetik urtera geroago eta jende gehiago animatu izan da, bai parte hartzera eta baita txapelketa ikustera ere. Joan den urtean, adibidez, 70 lagunek haritu zuten parte, eta ikusleak ere zelanbait ibili ziren txapelketa jarraitzen, leku barik.

Horregatik erabaki duzue txapelketa frontoian egitea?

Neurri handi baten, bai. Joan den urtean ere ahalegindu ginen hori egiten, baina ez genuen behar adina laguntzarik jaso. Kontua da txapelketa frontoian egiteko egitura bereziak behar direla, eta Federazioak ditu egitura horiek. Oso garestia da eskalatzeko egitura horiek allokatzea.

Baina aurten lortu egin duzue.

Bai. Udalak diruz lagundi digu, eta joan den urtean atzera egin zuten hainbat babesle aurten animatu egin dira. Hala, frontoian eginda, Santamasetako boulder txapelketak asko hobetuko du; ikusleek frontoiko harmailetatik jarraitu ahal izango dute txapelketa hori. Behoko boulderrean egingo dira kamporaketak, eta goian egingo ditugu finalak.

Txapelketak ez du izaera herrikoia galduko?

Egindako ahaleginarekin, maila oneko eskalatzaileak gondidatu gura ditugu, eta sariak jarriko ditugu horretarako. Baina herriko eskalatzaileendako ere beste kategoria bat izango da. Inguruko jendeak urte osoa egiten du hemengo boulderrean, eta pentsaezina izango litzateke horiei parte hartu ezin dutela esatea. Gainera, frontoian izanda, eskalatzaile guztiondako egongo da lekuak.

Eskalada da zure zaletasuneko bat, baina ez da bakarra. Alde horretatik, nekez eskiatu ahal izango duzu Zubian.

Bai, eta hori jakinda Bartzelonara noa, lagunekin Zubia igarotzera. Aurtengo eski denboral-

ere, aurten, lehenengoz, frontoian bertan egingo dute txapelketa. Eskalatzaile taldea dabil hori

dirako etxebizitza hartu dugu Frantzian, Luz Saint Sauverren, baina Zubian ez naiz hara joango, ez da egongo-eta elur handirik. Dena dela, elur gutxi botata ere, gaur egun estazioek gaitasuna dute gutxieneko zerbitzua eskaintzeko.

Horrenbestez, neguan elurra eta udan eskalada.

Egia esateko, udan eskalatzenten baino uretan ibiltzen naiz gehiago. Gaztetatik egiten dut surfa, eskiatzen eta eskalatzen baino lehenago hasi nintzen tau-la gainean ibiltzen, gurasoekin Oriora joaten nintzenetik. Eta, itsasoa oso gertu ez badugu ere, ez dut kirol hori alde batera utzi.

Aukeratu, bada, zeintzuk diren hiru kirol horiek egiteko leku onenak.

Eskalatzeko Araotz aukeratuko dut. Nahiko gogorra da, asko ibili behar da bertan. Maila handiko bideak daude han, baina oso gustura ibiltzen naiz. Surfa egitera Zarautzera joaten naiz asko, baina azkenaldian ez dago horrenbeste olatu. Hala, Indonesian, Balin, dagoen Uluwatu hondartza aukeratuko dut. Han, olatuek 50 metro luze izaten dituzte, eta altuera baino, luzera izaten da garrantzitsuagoa, horrek emanen du-eta olatuarekin jolas egiteko aukera.

Eta eskiatzeko leku bat?

Sierra Nevada, duda barik. Denboraldi bat egin nuen Granadan, eta estazio ederra da, batez ere pistetatik kanpo ibiltzeko. Eguraldi ona egiten duenez, elurra kalitatea ez da onena izaten, baina elurra botatzen duenean, sendo botatzen du. Jendea Argentinatik eta bestelako lekuetatik joaten denean, Granadan geratzen da. Egia da Andorraren eskiatzeko estazio ederrak dau dela.

Aurten, baina, Frantzia aldean izugarri merkatu dituzte prezioak.

La Mongie eta Luz Ardiden estazioen artean lehia handia dute. Itxuraz, joan den urtean jende asko joan zen La Mongiera, eta eskiatzaile horiek errekonputatzeko, Luz Ardidenek aurten oso merke jarri ditu prezioak. Guk 210 euro ordaindu dugu urte osoko *forfait*-arenagatik, eta hainbat egunetan 138 eurotan jarri zituzten salgai. Aramon estazioetako *forfait*-ak, adibidez, 630 euro balio du. Alde ona dago...




XABIER URTZELAI

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Kaleko ikasketak. (Barre). **Zaletasun bat:** Kirol guztiak, orokorrean. **Ametsbat?** Indonesiara egindako bidaia erre-prikatzea. **Mania bat?** Bat baino gehiago dut. Adibidez, katu beltz bat ikusterakoan derrigorrez ukitu

behar dut egurrezko zerbaitei. **Parrandarako leku bat?** Horretarako nahiko *todoterreno*a naiz, edozein leku-tan moldatzen naiz ondo. **Aste bukaera biribila?** Furgonetarekin hara eta hona ibili naizen bat. Ez dit ardua eskalatzaile joateko den, surfa egiteko...



KOLDO ZUAZO Hizkuntzalari eibartarrak euskaren gaineko hainbat liburu kaleratu ditu.

GOIENKARIA

EUSKARA > 'DEBA IBARREKO EUSKARA. DIALEKTLOGIA ETA TOKIKO BATUA' LIBURUA KALEAN DA

Debarroko euskararen gaineko beste liburu bat egin du Koldo Zuazok

Koldo Zuazok
Durangoko azokan
aurkeztuko du
Badihardugu Elkarteak
argitaratutako azken
lana: 'Deba ibarreko
euskara. Dialektologia
eta tokiko batua'

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Durangoko azokako ekitaldien barruan, abenduaren 8an, egubakoitzean, aurkeztuko du Koldo Zuazo hizkuntzalari eibartarrak Badihardugu elkartearen eskuistik kaleratu duen azken lana: *'Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua'*.

Lanaren berrikuntza nagusia da lehen aldiz tokiko batuen

adibidea plazaratzen dela. Deba ibarreko ikastetxe, euskaltegi, lantegi, hedabide eta udaletan, euskara batua erabiltzeko orduan, bertako zein ezaugarriz jantzi azaltzen da liburuan.

Erabakien arrazoia ere agertzen dira Zuazoren lan berrian, beste alderdi batzueta euskaldunei eredua edo zeri heldua eskaintzeko.

"Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren artean dago Deba ibarra, eta bertako euskaran ere ezagun da kokagunearen eragin hirukoitza. Hizkera interesgarri hori erakusten da liburu honetan, eta, aldi berean, euskalkiak lantzeko eta erabiltzeko irizpideak aurkezten dira", dio liburua argitaratu duen Badihardugu elkartea.

Hain zuzen ere, Durangoko azokan egongo da salgai, Badihardugu elkartearen standean, 12 euroren truke.

BERGARAKO ADITZ TAULAK

Koldo Zuazoren lan berriaz gainera, *Bergara eta Elgoibarko aditz-taulak* eta *Euskalkian idazteko irizpideak* liburuxka ere izango dira Badiharduguren aurten nobedadeak Durangon.

Oñatiako Bedita Larraoetxea euskaltegiak duela urte batzuk egindako lanean oinarrituta, 2005. urtean eskualdeko adizkiak jasotzen dituzten aditz-taulak osatu eta kaleratzeko proiektua ipini zuen abian Badihardugu elkartea. Iaz, Oñatiako eta Eibarko aditz-taulen liburuxkak kaleratu zituzten eta aurten Bergarako eta Elgoibarko aditz-taulak. Hiruna euro balio dute liburuketek. *Euskalkian idazteko irizpideak* liburuxkak jasotzen ditu euskalkian idazteko irizpide orokorrak Deba ibarreko adibideekin. Liburuxka bi euroren truke eskuratu ahal izango da.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko.blogspot.com

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aistui
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-
aseguuak
/BZ-sistemas

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia


/gertu
/gorkataxi
/gurea
/guvizeder
/hamakataberna
/itxaseder
/irudisport
/jacing
/joseba
/korozabala
/markiegia

/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiópticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/pando
/richimaiher
/tabernaberri

/udalaitz
/urdeki
/urbietza
/vitoria
/zaindusz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.uxarte.net



teknologia berriak

> TELEFONOAK

Alzheimer gaitza dutenak galduz gero, haien aurkitzeko eskumuturreko telefono berezia dago

Maiatzean Frantzian merkatatu ostean, gurean eskuratu ahal izango da. Telefonika Moviles saretik eta Eulen giza osasun zerbitzutik bideratuko da zerbitzu hori, telefono bidezko arretagune gisa. Aparailuak erabilera erraza du: gaixoak eskumuturrean ipiniko du eta familiakoek aurrez zehaztutako segurtasun gunetik irteten bada abisua jasoko dute. Satelite bidezko seinalea ez badabil, esan nahiko du eraikin baten barruan dagoela, eta telefonoz deituko diote gaixoari.



Ordulari itxura duen Columba aparailuak GPS sistema du; 199 euro balio du eta 49 euro mantenua.

> DVD IRAKURGAILUAK

Mustek MP70D eta MP80D irakurgailuekin telebista digitala ikusteko aukera egongo da

Mustek MP70D eta MP80D DVD irakurgailuak berrikuntzak ditzak. Orain arteko DVD eta CD irakurgailuez gain, lehenengoari telebista digitalerako sintonizadorea gehitu diote eta zazpi hazbeteko pantaila eta urrutiko agintea ere baditu. MP80Dak zortzi hazbeteko pantaila du, eta, aurreko baliabideez gain, SD eta MMC txartelendako zirrikitua eta USB sarrera ere baditu, formatu horietan gordetako filmak ikusteko.



Zazpi hazbeteko (18 cm) pantaila du MP70D irakurgailuak.

> ORDENAGAILUAK

Salgai ipini dute, 90 euro ingururen truke, munduko eskuko ordenagailurik merkeena

Garapen bidean diren herrialdeetan heziketa sustatzeko ateratutu dirutze ordenagailu horiek. Prezioa 100 dolarretik gorakoa bada ere, 2008rako 100 dolarreko (90 euro inguru) preziora (hasieran agindutakora) jaistea espero dute. Datorren urte hasieran 900 ipiniko dituzte salgai eta horietako asko softwareak makina horietan probatzeko erabiliko dituzte. Ondoren, ekoizpena handitu egingo dute. Helburuetako bat da aberatsen eta pobreen arteko ezberdinatasun teknologikoei irtenbidea ematea.



Linux sistema operatiboa, Gigabyte bateko flash memoria, 4 USB sarrera eta kable zein kable gabeko konexioa ditu.

berriak

> GOITB

Mertxe Mondragon
Aramaiko alkatearen
txanda eguztenean

Hilaren 13an, eguztenea, *Debarri* saiora gonbidatu du Alberto Gorritiberea kazetariak Aramaiko alkatea. Gogoratu beharra dago alkateari galderak egiteko aukera duzula. Sartu *goiena.net*-eko eztabaidan eta egin zure galdera. Nahiago baduzu, telefonoz dei dezakezu (943 71 23 96). Hain zuen ere, jasotako galdera guztia egingo dizkio Gorritibereak Mertxe Mondragón, *Debarri* saioan, 21:15ean.

> 'DANBAKA'

Unnëa eta Skam
taldeen emanaldiak
ikusteko aukera

Datorren martitzenean, hilaren 12an, Unnëa talde oñatiarraren kontzertua eskainiko digu GOITBk. Abesti melodikoak aurkezta zituzten Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Eguenean, berriz, hilaren 14an, Skam talde aretxabaletarraren txanda izango da. Talde gaztea hori ere, hardcore melodikoen doinuetatik gertu. Aipatutako bi kontzertuak 21:45ean ikusiko dituzue.

>ARRASATE IRRATIA

Asteburuan bi
elkarritzeta bilduma
entzungai

Durangoko azoka dugun asteburu honetan, egubakoitz goizerako kultura elkarritzketak bildu dizkizuegu. Horrela, bada, Ruper Ordorika, Anje Duhalde eta Norton abeslariak kontatutakoak entzungo dituzue, besteak beste.

Zapatu eta domekan, berriz, *Asteko gainbegiratua* saioan, astean irratian izandakoak laburbilduko dizkizuegu, astebururo egiten dugun moduan.

> ARRASATE IRRATIA
Jim TNT eta Raul Lasa
'Danbaka' saioan
entzungai

Asteburu honetako Arrasate Irratiko *Danbaka* musika saioan, bakarlari bat beharrean bi izango ditugu. Biak arrasatearrak, gainera. Musika estiloan, ordea, ez daukate antzekotasun handirik.

Zapatu hitzorduan, Jim TNT eta bere harmonikaren doinuak nagusituko dira 107.7ko uhinetan. Domekan, berriz, Raul Lasa eta haren laguntzaile izan zen Rakel aktorearen emanaldi bitxiaren txanda izango da.


'HARMAILATIK' > ASTELEHENEA, 21:15

Shisha Pangma mendi tontorrerainoko abentura

Koke Lasa eta Ander Goitia mendizale goierritarrek irailean egin zuten Shisha Pangma espedizioa

GOIENKARIA > ARRASATE

Espedizioko helburua gailurra egitea zen; hego-mendebaleko hormatik abiatu ziren, benetan bide zail eta teknikoa. Irailean egin zuten expedizioa Lasa eta Goitia mendizaleek; Alex eta Igor mendizale bizkaitarrekin banatu zuten baimena. Izan ere, Shisha Pangma dugu Tibetean dagoen zortzimilako bakarra. Bada, azkenean ez ziren tontorreraino heldu. Hotza eta haizea izan ziren euren etsai nagusiak. Astelehenean, hilaren 11n, ikusi ahal izango duzue *Shisha Pangma-rako bide luzea* izenburu peko saioa, 21:15ean.



SHISHA PANGMA Goierritarrek ez ziren gailurrera iritsi.

GOIENKARIA

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Bernardo Atxaga idazle ezagunarekin berbetean 'Ilunpean' saioan

GOIENKARIA > ARRASATE

Gizabidea Fundazioak gonbidatuta eterri zen Bernardo Atxaga gurera. Aitzakia polita harekin berbetean jarduteko.

Asteasun jaio zen Bernardo Atxaga; Joseba Irazuren goitizena da. Ekonomia Zientzietan

lizenziatu zen Bilboko Unibertsitatean, eta hainbat lanbidetan aritu izan da (euskarra irakasle, irratiko gidoilarri, ekonomialari...). 80ko hamarkadaren hasiera aldera, berriz, literaturari bete-betean ekin zion. *Obabakoak* liburuarekin irakurle asko-

DANBAKA))))))
DEBAGOIENEKO II. MUSICA LEHIAKETA

5. KONTZERTUA
ABENDUAK
15
Egubakoitza | 22:30
Elgetako Kafe Antzokia

INALECTRIK
ARETXABAleta

LITTLE LITTLE MUCH
ARRASATE

THE 5 TWISTERS
ARRASATE

ANAL BAG
ARRASATE

KAMisetak SALGAI!

INFORMAZIO +
www.danbaka.com

Abenduak 7-15

Erakusketa



ARRASATE

> Teresa Iraola margolari frantsesak akuarela erakusketa ipini du

Teresa Iraola Frantzian jaoa da, baina Donostian bizi da. Akuarela erakusketa du egunotan Harresi aretoan, bisita ordutegi honekin: astegunetan, 18:00-20:00; zapatua eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

Zinema



ELGETA

> 'Blade runner' 80ko hamarkadako film klasikoa ikusteko modua izango da

Ridley Scott-ek zuzendutako 1982ko *Blade runner* zientzia-fikziozko film klasikoa emango dute eguztenean, hilak 13, Espaloia antzokian, 21:30ean. Deckard izeneko gizon batek lau erreplikante aurkitu eta suntsitu behar ditu.

Erakusketa



BERGARA

> Gai erlijiosoko seiluen erakusketa ipini dute, San Frantzisko Xabirren omenez

Bergarako Filatelia eta Numismatika Elkarteak gai erlijiosoa duten seiluen erakusketa ipini du Aroztegi aretoan. Euskal Herri osoko eta Salamancako, Bartzelonako... erakusleen seiliuak daude. Hilaren 10era arte dago zabalik.

Ospakizunak

ARETXABAleta

> Beinke elkartearren urteurrena ospatzeko jaiegun

Beinke elkartea 20 urte bete ditu aurten. Urteurrena ospatzeko, jaialditxoa antolatu dute abenduaren 15erako, datorren egubakoitzta. Ludoteka gaztetxoek antzerkia egingo dute, Beinke-Loramendi dantza ikuskizuna izango da, Jotzeko Prest! pala txapelketa finala eta afaria.

Taberna Berri jatxean batuko dira.

BERGARA

> Gabonetako argiak eta zeramika taldearen jaiotza

Gabeneko argiak piztuko dituzte, eta Simon Arrieta zeramika taldeak egindako jaiotza udaletxeen ipiniko dute jendeak ikusteko.

Hilaren 13an, eguztena.

ARRASATE

> Santa Lutzia egunean, luntxa izango dute Abaroakoe

Santa Lutzia eguna ospatzeko, luntxa izango dute Abaroako erretiratuek, joan den astean horretarako izena eman dutenek.

Hilaren 13an, eguztena, Abaroan, 18:30ean.

Musika

Lehiaketak

ELGETA

> Danbaka lehiaketako azkeneko kontzertua, hilaren 15ean

Danbaka musika lehiaketako azken kontzertua egingo dute abenduaren 15ean, egubakoitzta. Honako taldeek joko dute: Inalecrik (Aretxabaleta), Little Little Much (Arrasate), 5 Twisters (Arrasate) eta Anal Bag (Arrasate). Sarrerak salgai daude Goienako egoitzetan eta Gaztekutxaren bidez. Bestalde, Danbakako kamisetak erosteko aukera ere badago. Neska eta mutilendako diseinuak daude.

Argibide gehiago, www.danbaka.com webgunean.

BERGARA

> AHTren aurkako kontzertua antolatu du gazte batzarrak

Abiadura Handiko Trenaren aurkako kontzertua izango da hilaren 7an, eguna, eta honako taldeek joko dute: Torrelavegako Storms to Comek eta Madrilgo Moloko Plus-ek. Hilaren 7an, eguna, gaztetxean, 22:30ean.

ARETXABAleta

> San Vicente del Raspeig-eko abesbatzaren emanaldia

Alacanteko San Vicente del Raspeig hiriko La Aurora abesbatzak emanaldia egingo du hilaren 8an, egubakoitzta. Mozart, Berletti, Serrat, Favero, Moreno Buendía eta beste autore batzuen piezak abestuko dituzte.

Egubakoitzan, hilak 8, parrokan, 20:00etan.

ARRASATE

> Los Rancios Rancid-en tributu taldearen kontzertua

Rancid taldearen Los Rancios tributu taldeak

kontzertua egingo du 3.60 aretoan.

Hilaren 15ean, egubakoitzta, 22:30ean.

ARRASATE

> Bideoclip emanaldia eta diskor jartzailea 3.60 aretoan

Bideorock gaua egingo dute bihar, egubakoitzta, 3.60 aretoan; zapatuan, DJ emanaldia egingo du Beñat (*Silum soundz*) diskor jartzaileak.

Bideorock gaua 23:00etan hasiko da, eta Djaren emanaldia, 03:00etan.

OÑATI

> Aita Madinaren omenezko kontzertua egingo dute

Aita Madina konposatzaile oñatiarra zena omenduko dute kontzertu baten bidez. Euskal Orkestra Sinfonikoak eta Donostiako Orfeoiak egingo dute emanaldia.

Hilaren 15ean, egubakoitzta, parrokan, 20:00etan.

OÑATI

> Rafa Rueda eta Unnäaren kontzertua gaztelekuau

Rafa Rueda bakarlariek Saredun eskua delako diskoa aurkeztuko du zuzenean. Unnäa pop talde oñatiarrak ere joko du. Sarrera 5 euro kostatuko da.

Hilaren 16an, zapatua, gaztelekuau, 22:30ean.

Lehiaketak

BERGARA

> XV. Amodiozko Gutunen lehiaketa deitu du Jardunek

Amodiozko gutunen lehiaketa antolatu du Jardun elkarteak. 1992an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake. 450, 240, 150 eta 100 euroko sari bana emango dute.

Mugaeguna urtarriaren 7a da. Argibideak: www.jardun.net.

BERGARA

> VI. Olentzero marrazki lehiaketa antolatu dute

VI. Olentzero marrazki lehiaketa zabalik dago herriko Lehen Hezkuntzako ikasle guztienak, Jardun elkarteak antolatuta. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 18an egingo dute.

Argibide gehiago, Jardunen edo ikastetxeetan.

Antzerkia

ARRASATE

> Antzezlana egingo du Virginia Imaz aktoreak

Modelo clowntrapublicaria izeneko antzezlana egingo du Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko aktoreak, Emakume Txokoak antolatuta. Hilaren 14an, eguna, Emakume Txokoan, 19:00etan,

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Arrasateko akordeoi lehiaketako finala eta kafe-kontzertua

XIV. Arrasateko Akordeoi Lehiaketa jokatzen dihardute, eta finala, jendaurrean egingo duten emanaldi bakarra, etzi, zapatua, izango da Amaia antzokian. Bukaieran, sariak banatuko dizkiete aurtengo txapeldunei.

Bestetik, urtero bezala, akordeoi kontzertu sorta bat egon da. Azkeneko saioa kafe-kontzertu bat izango da, eta bihar, egubakoitzza, egingo dute Kajoi tabernan, 22:30ean.

Lehiaketako finala etzi, zapatua, Amaia antzokian, 12:30ean.

Bestelakoak

ARETXABAleta

> Durangoko liburu eta disko azokara irteera

Durangoko euskal liburu eta disko azokara irteera egingo dute Atxagazteko gazteek hilaren 9an, zapatua. Argibideak, Atxagazten.

ARRASATE

> Elias Canettiren liburu bat, Literatura Solasaldietarako

Udal Liburutegiak antolatutako literatura solasaldiek abenduaren 12an izango dute hurrengo saioa. Spainolezko taldeak Elias Canetti idazlearen *La lengua absuelta* liburuaz berba egingo du, Rikardo Arregik lagunduta.

Abenduaren 12an, martitzena, Monterronen, 18:30ean.

nire aukera



Iñaki Ugarteberu
Aldundiko Kirol zuzendaria
Elgeta

"Elgetan ez da ezer falta; ondo dago dagoenetan"

Aste barruan aukera handirik ez dudanez, aste bukaeran familia-rekin egoten naiz, eta lagunak ikusten ditut.

Familiarekin, aste bukaera gehienetan, kirol ekitaldiak ikustera joaten gara, hala aste bukaera lanarekin bateratuta. Normalean, Donostialderra joatea egokitzten zait. Bihar, zapatua, arratsaldean Bidasoak Estonia-ko Polva Serviti taldearen aurka duen partidua ikusiko dugu; etzi, berriz, Bruesa eta Real Madrilaren arteko saskibaloi partidura joango gara.

Zein kirol gustatzen zaizu gehien?

Denetarik, egia esan, eta gure umeei ere bai. Elgetako frontoian ibiltzen dira, eta nagusiek multikirola egiten du: patinatu, futbolean jokatu...

Eta zeuk, egin, egiten duzu kirolik?

Bai, ahal dudanean: frontoia, bizikleta, spinninga...

Kirol ekitaldiak ez dituzunean, zer egiten duzu gustura?
Elgetangeratzen gara lasai-lasai. Espaloia antzokira joaten naiz, lagunekin afariren bat izaten dut... Atseden hartzeko aprobetxatzenten dut.

Bidaiatzea gustuko duzu?
Bai, bai. Orain dela gutxi, familia osoa Eurodisney parkera joan ginan. Egipton, Argentinan... ere izan naiz; aurten dezentre bidaia-tu dut, bai. Europako hiriak ere asko gustatzen zaizkit.

Elgetan ezer falta da?
Ez, dagoenetan ondo dago. Jen-de kopuru nahikoa gara eta dau-kaguna ondo aprobetxatzenten dugu.

Zinema

ANTZUOLA OLARAN ETXEA

Vickie bikingoaren abenturak
Domeka: 16:30.

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Nanny McPhee
Domeka: 17:00.

ARETXABAleta GAZTELEKUA

(Gazteendako film bat)
Domeka: 18:00.

ONATI KULTURA ETXEA

El nuevo mundo
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Déjà vu
Eguenik domekara: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehenetik eguztenera: 19:30, 22:15.

RIALTO

Saw 3
Eguena: 17:00, 22:15.
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Asteleheneta martitzena: 19:30, 22:15.

Ratonpolis

Eguena: 19:30.
Egubakoitza: 17:00.

Gasteiz Guridi

El camino de los ingleses
17:30, 20:00, 22:30.
Algunos días de septiembre
20:00, 22:30.
Natividad
17:30, 20:00, 22:30.

Cristóbal Molón (euskaraz)

17:00, 18:30.

Vacaciones

17:30, 20:00, 22:30.

El ilusionista

17:30, 20:00, 22:30.

El gran silencio

17:00, 21:45.

Ghavica

20:00.

El perfume

17:00, 19:45, 22:30.

GASTEIZ GURIDI

Rompiendo el hielo
17:30, 20:00, 22:30.

Ratonpolis

17:00, 18:45, 20:30.

Infiltrados

19:00, 22:00.

Colegas en el bosque

17:00.

Isi / Disi: alto voltaje

18:40, 20:30, 22:30.

Casino Royale

17:00, 19:45, 22:30.

Scoop

22:30.

Déjà vu

17:30, 20:00, 22:30.

Harri magikoren bila

17:00.

Pequeña miss Sunshine

17:00.

Palacio Real

18:45, 20:40, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

El camino de los ingleses
17:30, 20:00, 22:30.

Algunos días de septiembre

20:00, 22:30.

Natividad

17:30, 20:00, 22:30.

Cristóbal Molón (euskaraz)

17:00, 18:30.

Vacaciones

17:30, 20:00, 22:30.

El ilusionista

17:30, 20:00, 22:30.

El gran silencio

17:00, 21:45.

Ghavica

20:00.

El perfume

17:00, 19:45, 22:30.

Scoop

22:15, 17:00.

ÁBAKO-LAKUA ZINEMAK

Va a ser que nadie es perfecto
20:00, 22:00, 00:30.

Ratonpolis

16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Déjà vu

16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Ratonpolis

16:00, 18:00, 20:00.

Los Borgia

23:00.

Casino Royale

16:00, 19:00, 23:00.

Colegas en el bosque

16:00, 18:00, 20:00.

Isi / Disi: alto voltaje

18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Un buen año

12:15, 15:40, 17:50.

Rompiendo el hielo

12:15, 15:45, 18:00, 20:15,

22:30, 00:45.

Un invitado por Navidad

12:15, 16:30.

El ilusionista

18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

El laberinto del fauno

20:10, 22:30, 00:50.

Colegas en el bosque

12:15, 16:15, 18:15.

Ratonpolis

12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

Saw 3

20:10, 22:15, 00:20.

Palacio Real

12:15, 16:10, 18:20, 20:30,

22:40, 00:50.

Natividad

12:15, 16:10, 18:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehenak, ikuslearen eguna (jaiegunki izan ezik).

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Casino Royale

12:15, 17:30, 19:00, 20:30,

22:00, 23:30.

Déjà vu

12:15, 17:00, 19:30, 22:00,

00:30.

Infiltrados

18:30, 21:30, 00:25.

El perfume

12:15, 16:30, 19:15, 22:00,

00:40.

Borat

21:50, 23:45.

Scoop

12:15, 17:00.

El camino de los ingleses

20:05, 22:20, 00:35.

El corral

12:15, 15:55.

La dalia negra

12:15, 16:20.

Isi / Disi: alto voltaje

18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Un buen año

12:15, 15:40, 17:50.

Rompiendo el hielo

12:15, 15:45, 18:00, 20:15,

22:30, 00:45.

<h

Gauza galduen gordelekua

GALDUTAKOAK Debagoieneko udaltzainen bulegoetan jasotzen dituzte galduako objektuak

EDU MENDIBIL > BERGARA
 Era guztietako objektu galduak aurkitzen dira kalean: poltsiko-ko telefonoak, giltzak, hortzordea, Maritxu Kajoi festan erabilitako poltsa dotorea... Horrelakoak Debagoieneko udaltzainen bulegoetan jasotzen dituzte. Arrasaten, berriz, Biztanleen Arreta Zerbitzuan eskaintzen dute zerbitzu hori joan den uztaila ezkerro. Edurne Muxika da bertako arduraduna. Hark esan digunez, 114 objektu dituzte erregistratuta bulegoan: "Gehienak giltzak, betaurrekoak, poltsikoko telefonoak, arropak, jostailuak eta horrelakoak izaten dira. Matematikako liburu bat ere badugu tartean, baina ez dutuste horren bila etorriko diren... ", dio Muxikak, umorez. Udalak bi urtez gordinetzen ditu aurkitutako objektuak: "Aurkitutako objektuaren erregistroa egiterakoan, ekarri duenaren datuak ere hartzentzitugue eta bi urteren barruan jabea agertu ez bada hari bueltatzentzioa ekarritakoa. Baino kasu askotan gertatzen da objekturen

bat galdu duena eta topatu dueña guk harremanetan jartzea".

Orain dela urte batzuk gerta-tutako kasu bitxi bat ere gogoratzen du Muxikak: "Milioi erdi pezeta ekarri zuen behin batek udaletxera, kalean aurkituta. Horrelako kasuetan Udala iragarria jartzera behartuta dago, eta horrela egin zen. Dirua jasotze-ra etorri zen pertsona bati galde-keta egin ostein, hora diruaren jabea ez zela argi geratu zen. Azkenean, handik denbora luze-ra benetako jabea azaldu zen".

HORTZORDEAK JABERIK EZ

Bergaran, udaltzainek ere dene-tek jasotzen dute. Jose Angel Roigek 23 urte daramatzia udaltzain: "Azken bi urteotan 200 objektu inguru jasoko genituen. Asko eta asko jabeek errekuoperatzen dituzte. Behin hortzordea ekarri zigut-ten, baina jabea ez zen azaldu... Jasotzen ez diren beste gauza asko gobernuz kanpoko erakundeetara bidaltzen dira zenbaitean". Olentzerok ere izango luke non aukeratu.

ARRASATE Biztanleen Arreta Zerbitzuan, Arrasaten, 114 objektu erregistratu dituzte uztaila ezkerro

ARAUDIA Galduako gauzak bi urtez gordinetzen dituzte: jabea azaltzen ez bada, topatu duenari bueltatzen zaio



DENETIK Telefonoak, patinetak... Denetik jasotzen dute Arrasaten, BAZen, eta udaltzainen bulegoan.

XABI URTZELAI

ahobero

"Guztiok atsegin dugu txantxa, baina eliteko kirolari batek zaindu beharra dauka, gauez irten barik, horregatik kobratzen dute-eta"

Jose Luis Bilbao > Bizkaiko diputatu nagusia

Bazterrak harrotu ditu Jose Luis Bilbaok Athleticen gai-neko iritziak emanda. Diputa-tu nagusi batek hobe luke horrelako saltsatan ez sartu.

iturri onetik

Bergarako Orfeoiak 'Seussen mundua' musikala eskainiko du Kursaalen, Gabonetan

Bergarako Orfeoiak *Seussen mundua* musikala eskainiko du Gabonetan Donostiako Kursaalen. Bi emanaldi egingo dituzte Orfeoiko kideek, abenduaren 29an eta 30ean.

Iazko Gabonetan estreinatu zuen Orfeoiak *Seussen mundua*, Bilboko Euskaldunen. Ondoren Bergaran bakanrik erakutsi dute, azaroan. Donostiaren ondoren, Iruñeko Baluartera eraman nahi dute, udaberri aldera.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

Eskoriatza berriro

Bere garaian eredugarri izan zen Eskoriatza herriaren ekarpen bateratua, herria zeharkatzen duen autopistaren kalteak murritzeko. Hain ondo egin zuten lan, Aldundiak onartu egin zituela hainbat proposamen, proiektua hobetze aldera.

Gero etorri ziren arazoak, proiektua gauzatzeko orduan. Bidegik ez zion Aldundiak agindutakoari eutsi, eta giro ona zapuztu egin zen. Zenbaitek gogoan ditugu Txabarriren hitz zakarrak, eskoriatzarrei *karlista* deituz autopistari trabak jartzen ari diren aitzakiatan.

Egunotan, Aralarrek salatu egin ditu legez kanpoko portaerak Marin aldeko lanetan eta, konpondu ezean, epaitegira jotzeko prest dago. Ez da dena hain zuzen egongo, Txabarri jauna. Ez dira eskoriatzarak hain *karlista* izango.

ai, ene!



Negarrik eragiten ez duen kipula

Jakiak prestatzeko baino gehiago, zer jan edo zer erosia gogoratzeko baliagarria izango zaigu kipula hori: *post-it*-ak dira.

<http://www.boingboing.net/>



kulturaren
plazerra

www.elkar.com

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA